

BAPATEAN 93

Bertso bilketa, transkribapenak:
ZALDUBI eta Iñaki AGIRRESAROBÉ

Azken aukeraketa: Iñaki Agirresarobe

Zuzenketak:
Rufino Iraola
Joxean Ormazabal

Erizpideak eta koordinazioa:
Bertsolari Elkarteá

Argazkiak eta azala: Jagoba Manterola

Doinuen izendapena: Juanito Dorronsoro

EHBE

BERTSOLARI ELKARTEA
Igeldo Pasealekua, 25
20008 Donostia
tel. 21 77 98 Fax 21 24 27

L.G.
ISBN:

nprimitzailea:

I

SUMARIOA

Aitzinsolasa	7
Bertso saioen mugimendua	11
Kontzeptuen azalpenak	15
Irizpideak	17
Lazkao-Txikiren agurra	19
Urteko bertsoak	23
Saioen aurkibidea	265
Bertsolarien aurkibidea	269
Izen-deiturak	271

AITZINSOLASA

Ez da duda haundirik, bertsozale aunitzendako, 1993, txapela Zarautza joan zeneko urtea izanen dela berez hemendik aitzina. Ezin liteke bertzela, Txapelketa Nagusia, lau urtetik behin bertso munduari eta oro har euskal kulturari etortzen zaion inarrosaldia da, eta apartekotasun horrek aisago finkatzen du jendearen oroimena egunerokoak baino. Bertsolaritzan, hala ere, ez da dena txapelketa eta hori oroitaraztera heldu zaigu behin-berriz liburu hau.

Sei ekitaldi iragan dira Euskal Herriko Bertsolari elkartea bapateko jardunak urtetik urtera ematen duen uzta oparoaren berri ematera abiatu zenetik. Sei ale, hortaz oraingo honekin, gorago aipatutakoaren distira eta oihartzunik ez duen eginahal isil baten emaitza izan arren, jadanik nahitaezko bilakatu zaigun katearen katabegi.

Bertsoak ahotik belarrirako bidea eta inguru berezi bat - lagunartea, plaza, "teleplaza" ere, orain- hautatu ditu gehienbat komunikazio tresna denaz bezainbatean bere xedea erdiesteko. Badirudi, bertsolariak hitzetik hortzera egiten dueneko instant iheskorrean, alegia, entzule-tropa girotuak belarriz bereganatu eta gogoan kilika somatzen duen une llabur horretan, egiten dela hezur eta mami. Hala da, baina hori bezain egia ere, bertsoa begiz eta bakarka ere jaso, dasta eta kanta daitekeela. Horren berri bazuten mende hasierako bertsopaperen erostunek. "Bertso berriak" haiek bilakatu zituzten "bertso zahar". Alde horretatik, liburu hau artaz eta maitasunez egindako bertso bilduma baizik ez balitz ere, bertsozaleak baluke hemen zer eta non goza.

Baina liburu hau areago ere bada. Gaurko bertsolaritzaren erradiografiarik fidelena bere orrialdeek eskaitzen digute eta

baieztapen hau soberazkotzat jotzen duena errepara dadila datu honetan: 1993.ean Euskal Herrian egin ziren 673 bertso-jaialdietarik, 60k aurkitu du lan honetan isladarik.

Bistan da hika-miketan has gintezkeela egin den aukeraketa zuzenena ote den. Halaberean beti izanen da holako edo halako lekutan aditu bertso borobil hori hemen agertzen ez dela eta zergatika hasiko denik. Hori dena, ordea, guttienekoa da, nik uste. Aldiz, orain eta hemen bertsolaritza nondik nora dabilen jakin nahi duenaren eskutan uzten den lehen mailako dokumentua da inportanteena.

Bada arrenkuratua agertzen denik, kasurako, bertsolaritzak bizirik irauteko egunez egun egin behar duen egokitzapenez. Bertsolarien irudimena eta baliabideak zertan dabiltzan, topikoetara gehiegi makurtzen ote diren, ematen zaizkien gaiek nahiz erabiltzen dituzten formulek berrikuntzarik dakarten... holakoak, eztabaida sorrarazten duten aferak dira. Horien kezka duenak, argi izpiren bat aurkituko du, ezpairik gabe, ondoko orrialdeetan, baita beharbada, trankil gelditzeko arrazoi bat baino gehiago ere.

Bertsolaritzaren barrenari baino areago, azalari dagokion bertze alderdi bat ere badugu, zaleen jakinmina bizten duena; pastelaren banaketa edo, sukaldeko hiztegia erabiliz. Liburuari begiratuta, aisa antzeman daiteke nor diren ibiltzen diren bertsolariak, baita non ere. Arlo honetaz mintzatzerakoan taldekerietan -gazteak, zaharrak- nahiz probintziakerietan erortzeko arriskua dugu beti. Ezin uka ordea, nola-halako ezinegona eragiten duela. Hona, horren adierazgarri, Iñaki Perurenak gai-emaile lanetan Leitzan jarritako gaia: **"Gaur hemen, Naparroako herri batean, Gipuzkoako hiru bertsolari zaudete. Zer pauso eman behar dira Naparroan Gipuzkoako hainbat herritatik hiru bertsolari naparren eskaria izateko?"**.

Nor-non dabilen aipatu dugu. Nor ez dabilen, hori ere ezin saihestuzko afera dugu. Lehen aldiz bapatekotasunari eskainitako sail honi ekin zitzaionetik, aurtengo honek ez digu Iparraldeko bertsolari bakar baten lanik oparitu, ezta hango saio bakarraren testigantzarik ere. Bertze toki batzuetan bertsolaritzak hartu duen indarra mugaz haratako hiru probintzietan berandutzen ari da seinale, noski.

Bada, azkenik, liburuaren hondar partean ohi den Bertsolari Aurkibidean irakurleak estrainekoz atzemanen ez duen bertze izen bat. Jakina, Lazkao Txikiz ari naiz. 1993.ak Lazkaomendiko gizon ttikia eraman zuen gure artetik, baina horrek ez du erran nahi haren itzal haundia bilduma honetan zehar barreiatu gelditu ez denik, ondoko orrialdeek han-hemen eskaintzen dizkiguten bertso zirrara garriak lekuko. Nik nolabait bukatu behar eta haren oritzapenetan bukatu nahi nuke. Horretarako, zilegi bekit hona ekartzea hura eritetxean oraino bizirik zegoela, Andoni Egañak Zestoan kantatua:

Nun galdu zaigu bertso on baten
ondoreneko marmarra?
Nun galdu zaigu ziri sartzea?
Nun galdu da irriparra?
Fintasuna ta gordinkeria
berezi ohi ditun marra,
lehen zebilen txirri-txarra,
moteldu da motor zaharra,
Txikiaren bihoztzarra,
umorea da zu esperantzan
mantentzen zaitun indarra,
ta esperantza da gu umoretsu
mantentzen gaitun bakarra.

Lazkao Txiki gabe ere, umorea eta esperantza ez galtzen
lagunduko gaitu, agian, liburu honek.

Aingeru Epaltza

BERTSO SAIOPEN MUGIMENDUA

Liburu honetan bertso saioei buruz ematen den informazioa, Bertsolari Elkartean jasotakoa da. Ehuneko handi batean jasotzen bada ere, burutzen diren bertso saio guztien berri izatea ia ezinezkoa egiten da. Halazta ere, egungo bertsolaritza mugimentuaren berri izateko lekuko guztiz fidagarria dela uste dugu.

Gu ez gara hemen datu hauek interpretatzen hasiko, besteak beste, bertsolaritza bere hedapenaren arabera bakarrik neurtu ez daitekeelako. Nolanahi, datuak hor daude bakoitzak nahi beste gogoeta eginbide.

Urtean zehar burutu den bertsolaritzaren mugimendu horretan, beste gauza askoren artean, lau gauza aipatu nahi genituzke:

1- Aurreko urtean aipatzen zen zortziko nagusian kantatzeko joerak bere-berean darrai, nolana, Txapelketa Nagusiaren eraginez edo, 93an 8ko txikian ere hainbat saio egin dira.

2- Plazetan gehien dabiltzan bertsolariek, urte honetan ere, dohan hainbat saio egin behar izan dituzte helburu anitzen aldeko saioetan: erretako baserrien alde, euskara eta euskal kulturaren inguruko hainbat elkarteren diru biltetarako, Bosnia, droga, hirugarren mundua, presoak... edo antzeko errealitateekin elkartasuna adierazi eta dirua biltzeko...

3- Bertso jaialdietan batz-batzeko entzule kopurua 92koaren ildo beretik joan da, 400 eta 800 bitartekoa eta sarrera kobratzen den kasuetan, 500 - 800 pezeta artekoa.

4- Gero eta bertso saio gehiago antolatzen dira dirua ateratzea beste helbururik gabe, tokiko: eskoletako gazteek ikasketak bidaiak egiteko, kirol elkarteek beren egoera finantzieroa saneatzeko... Jaialdi gehienek, denak ez esatearren, beren burua ordaindu egiten dute.

PROBINTZIA	JJaialdiak	PPlazalibre	LLagunarte	TTxapelketa	SSariketa	HHitzaldiak	GGainerakoa	Denera
GIPUZKOA	138	138	57	8	3	9	39	392
BIZKAIA	40	43	22	11	7	0	14	137
NAFARROA	18	54	27	10	1	6	6	122
ARABA	6	5	1	1	1	0	0	14
IPARRALDEA	3	0	1	2	0	0	2	8
DENERA	205	240	108	32	12	15	61	673

GIPUZKOA

ESKUALDEA	Jaildiak	Plazalibre	Lagunarte	Txapelketa	Sariketak	Hitza ldiak	Gainerakoa	Denera
Deba-Behera	12	16	3	1	0	2	3	37
Deba-Garaia	17	19	9	1	0	0	2	48
Goierri	21	25	5	2	1	0	9	63
Beterri	28	17	10	0	0	0	3	58
Donostiald.	23	27	12	3	0	5	12	82
Kosta Urola	29	17	12	1	1	1	5	66
Errenterialdea	8	17	6	0	1	1	5	38
Denera	138	138	57	8	3	9	39	392

BIZKAIA

ESKUALDE	Jaialdiak	Plazalibre	Lagunarte	Txapelketa	Sariketak	Hitza ldiak	Gainerakoa	Denera
Lea-Busturia	12	12	5	7	4	0	5	45
Uribe-kosta	2	7	2	0	0	0	3	14
Arratia	2	6	5	0	0	0	0	13
Durangaldea	12	7	5	1	2	0	4	31
Erdalgunea	12	11	4	3	1	0	2	33
Denera	40	43	22	11	7	0	14	137

NAFARROA

ESKUALDEA	Jai ldiak	Plaza libre	Lagun artea	Txapel ketak	Sarik etak	Hitza ldiak	Gaine rakoa	Dener a
Bidasoa-Baztan	11	29	18	4	0	2	1	65
Araitz-Leitza	3	8	5	2	1	0	1	20
Larraunaldea	1	9	2	2	0	0	1	15
Erdalgunea	3	8	2	2	0	4	3	22
Pirineoaldea								
Denera	18	54	27	10	1	6	6	122

ARABA

ESKUALDEA	Jai ldiak	Plaza libre	Lagun artea	Txapel ketak	Sarik etak	Hitza ldiak	Gaine rakoa	Dener a
Aiaraldea	1	0	0	0	0	0	0	1
Leintz	0	1	0	1	0	0	0	2
Erdalgunea	5	4	1	0	1	0	0	11
Denera	6	5	1	1	1	0	0	14

IPARRALDEA

Iparraldea	Jai ldiak	Plaza libre	Lagun artea	Txape lketa	Sarik etak	Hitza ldiak	Gaine rakoa	Dener a
	3	0	1	2	0	0	2	8

Kontzeptuen azalpena

Jaialdiak: Gaijartzailea, 4 bertsolari edo gehiago...
Plaza librea: 2-3 bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagunartea: Jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
Txapelketak: E.H., Probintzia mailakoak edo eskolartekoak.
Sariketak: Elkarateek, Udalek edo motibo jakin baten inguruan
antolatzen direnak.
Hitzaldiak: Bertsolaritza gai izanik edozein markotan
antolatua.
Gainerakoak: Bertso-asteak, omenaldiak, bertso-ekintza
bereziak...

Herrialdeak: (eskualde gisako lur eremuak)

GIPUZKOA

Deba-Behera: Eibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Mendaro...
Deba-Garaia: Elgeta, Oñati, Arrasate, Eskoriatza,
Aramaio...
Goierri: Zegama, Legazpia, Ormaiztegi, Legorreta, Ataun...
Beterri: Amezketak, Ikaztegieta, Berastegi, Alkiza,
Billabona...
Kosta-Urola: Zumaia, Azkoitia, Bidania, Aia, Orio...
Donostialdea: Andoain, Usurbil, Donostia, Astigarraga,
Urnieta...
Errenterialdea: Hondarribia, Oiartzun, Pasaia, Lezo...

BIZKAIA

Lea-Busturia: Ondarru, Markina, Lekeitio, Aulestia, Ibarrangelu,
Nabarniz, Gernika, Muxika...
Uribe-Kosta: Bermeo, Bakio, Plentzia, Mungia, Sopela, Getxo,
Leioa, Derio, Asua, Larrabetzu...
Arratia: Zaratamo, Orozko, Otxandio, Zeberio, Igorre,
Lemoa.
Durangaldea: Zornotza, Durango, Mallabi, Ermua, Elorrio...
Erdalgunea: Basauri, Bilbo, Ezkerraldea, Enkarterriak...

NAFARROA

Bidasoa-Baztan: Bidasoa, Bortziriak, Baztan eta Malerreka
Araitz-Leitza: Goizueta, Leitza, Areso, Atallu, Betelu...
Larraunaldea: Sakana, Larraun, Basaburua eta Ultzama
Pirineoaldea: Orreaga, Luzaide, Eugi
Erdalgunea: Iruñea, Erribera, Erronkari, Lizarra...

ARABA

Aiaraldea: Areta, Laudio, Abornikano...
Leintz: Aramaio eta ingurua
Erdalgunea: Gainerako Araba

IRIZPIDEAK

"Bapatean 93", aurrez kaleratuak izan diren Bapatean-en beste bost aleek egin izan zuten bide beretik datorkigu. Ahalegin honen helburua, urtez urte burutzen den bertso gintzari buruzko lekuko izatea litzateke.

Esandakoaren harira, begibistakoa da, irakurleak, liburu honetan ez duela aurkituko urteko bertso antologia. Ale honetan halere, aurrez finkatutako irizpieen arabera eta medio informatikoak tarteko, bertso laritza mugimenduaren "mapa" antzeko zerbaiten informazioa eskaintzen da. Bertso saioak egiten diren txoko bakoitzeko berri izatea ia ezinezkoa denez, agian zenbait oker egon daitezke, baina hau da Bertsolari Elkarteak urtean zehar bildu duen informazioa.

Lan honen oinarria, Bertsolari Elkartearen enkarguz Zaldubik batez ere eta Iñaki Agirresarobek bildutako grabazioetan oinarritua dago. Irizpide modura kontutan hartu izan dira: bertsolari bakoitza ibili danaren arabera bertso kopurua, bakoitzak sortutako emaitzarik ustez hoberenak, saio mota ezberdinetatik hartuak eta gaien aniztasuna.

Saio bakoitzaren ostean, biltzaileak erabakitzen du zein bertso transkribatu eta kasu honetan, 1.300 bertso transkribatutatik, Iñaki Agirresarobek egindako 600 bertsoetako emaitza da eskaintzen dena. Oro har, Elkarteak ezarritako irizpide eta koordinazioarekin burutua izan da liburu hau.

93. urtean bapatean kantatutako bertsoak ditu oinarri eta ez dira barne sartzen, Nafarroako Txapelketa edo Txapaleketa Nagusiko bertsoak, ez eta eskolarteko edo bertso jarrien alorrekoak.

Bertsolari Elkarteak

LAZKAO-TXIKI

1926-09-16 / 1993-04-3

Lazkao-Txikiren jendaurreko azken bertsoa, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian kantatutakoa izan zen, 1993ko Urtarrilaren 24an, Alfontso Irigoien eta Santi Onaindiaren omenaldi egunean. Handik egun gutxitara, Urtarrilaren 28an, bihotzeko gaixotasun bati aurre egiteko ebakuntza bat egin zioten Donostiako Poliklinikan eta, ondorioz, ez zen gehiago bere onera etorri, ez zen esnatu. Apirilaren 3an, Matia eritetxean agur esan zion bizitzari.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago (aldakia)

Lazkao-Txiki: Bi gizon haundin ohoreetan
hastera goaz kantari,
lendabiziko besarkada bat
eta egunon zueri.
Hoek ginduzten gerra ondoan,
bertsolarien gidari;
garai hartako esker ordainez
mila zorion bieri.

Hileta Elizkizunean kantatuak

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Oi laborari gaixua

J.Lopategi: Lurra lurrari ordaindu eta
zeure espirituz aidean,
hegazka zoaz izarrik izar
erromes Jainko bidean.
Zure sarrera bertso-afari
batez ospatu nahiean,

zeure zain dagoz zeruetako
bertsozaleen mahaian.

Neurria: 10eko nagusia
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

P.Iraola: Abalineko izar argia
izar misterioa,
itzaldu zera ta ilun dago
Lazkaomendiko auzoa.
Zu izan zera gure lagunon
maisua eta gurasoa,
gure oroitzan jasoko dugu
zure izate osoa,
zeruko aitak izan zaitzala
bere altzoan jaso.

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Garmendia: Atzo goizean txori guztiak
esnatutzeko orduan,
bat betiko lotan hor gelditu zan
uste ez gendun moduan.
Lazkao-Txikik agurtu gaitu
eta norabait da jua,
sinismendunak poz bat badegu
burutik ezin kenduan
egun haundia datorrean
alkartutzeko zeruan (bis)

Neurria: 10eko nag.
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Peñagarikano: Lazkaomendiko seme argia
bertsolari, txiolari;
maitagarritan maitagarria,
umorearen irudi.
Zeinen xamurki kanta zenion
zuk behin egunsentiari.
Goizean goizik alaitasuna
baldin badegu nabari,
pentsatuko det Lazkao-Txiki
ari zaigula kantari (bis)

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Hamaika aldiz daukazu lehendik

Sarriegi: Lazkaomendin sortua eta
bertan hazia gainera,
maisuen maisu, gure eredu

garbia izan zen bera.
Goierra aldeko kimu gazteak
hartaz oroituko gera,
egun sentia datorrenero
Lazkao-menditik bera.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Lazkano: Lazkaon jaio, hazi inun ez,
noizbait esana zenduan;
gezurra ere polita bait da
parra egiteko orduan.
Nik galdetzen dut, besterikan nor
hazi dan zure moduan?
Haundienetan haundi zinaden
bertsolarien munduan,
euskera zutik dabilen arte
izango zera goguan. (bis)

Hilobiratzeko orduan kantatuak:

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin Berriotxo

X.Zeberio: Aman magalen kantatu zendun
arten zinela mutiko.
Oh, Joxe Miel! gehio ez dezu
zure bertsorik jaulkiko,
egunsentiai abestutzeko
berriz ez zera jeikiko.
Sortzen ikusi zintudan lurrak
estal zaitzala betiko.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Hire izena azkenerarte

Amuriza: Agur hainbeste poz eman duzun
Lazkao-Txiki maitea,
kostako zaigu gure plazetan
ez zaudela sinestea.
Agurra eman ta mingarria da
zu hilobian uztea.
Beste mundua ez da izango hau
izan den bezain tristea,
zerbait badago desio nuke
zure ondoan piztea.

ORDIZIA 1993-01-2

Bertsolariak: X.Narbarte, Munduate, J.R.Elortza, E.Arozena eta Silveira. Herriko Argi Berri elkarteak bertsolari gazteekin antolatu ohi duen saioa. Herriko zineman, 500 bat entzuleren aurrean eta sarrera ordaindua. Gaijartze eta aurkezle lanetan Nikolas Zeberio.

E.Arozena

GAIA: Zer eman eta zer kendu dizu bertsoak?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hara nun diran mendi maiteak

Aitak mimatu ninduen hemen
bertsoetan jarduteko,
haren pelota eman dit orain
berandu etxeratzeko,
fama pixka bat ere lortu dut
telebistan atetzeko,
garrantzitsuna dirua eman dit
tabernetan gastatzeko. (bis)

Zer eman dizu? Zer kendu dizu?
Galdera bete betean,
kendu didana pentsatu behar
oraingo hontan menpean,
iñor ez dedila harritu gaur
ondoko hau esatean:
Lotsa haundiak galdu ditut nik
astakilo hoiien artean. (bis)

ANTZUOLA 1993-01-5

Bertsolariak: Murua, Egaña, Narbaiza, J.Enbeita eta Lazkano. Herriko bertsozaleek Udalaren babesarekin urtero antolatu ohi duten saioa. Sarrera ordaindua, 300 bat entzule eta gaijartze eta aurkezle lanetan Jesus Kortaberria <<Kaxeta>>

J.Sarasua

GAIA: Bertso eskolan elkarrekin ibilitako Felix Iñurrategik munduko gailurra jo zian, Everest igo zian...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Felix laguna bertso hauetan
ez naiz izango faltsoa,
bertsoa eta mendia ez dira
zure meritu osoa,
nola-nai ere ez al da gauza
polit ta kurioa,
munduko tontor haundienaino
iritsi dela bertsoa? (bis)

Bertso on bat ere botako zendun
zuk tontorra jotakoan,
atake hori prestatu gendun
guztiok bertso grupoan,
nik saio asko nitun hemen da
hargatik ez nintzan joan,
bestela biok egingo gendun
bederatzi puntukoan. (bis)

Bromak utzi ta zuen azaina
da benetan paregabe,
baina halare lagun bezela
esango dizut suabe,
nahiz-ta zu egin munduko mendi
gailur altunaren jabe,
segi ezazu beti bezela
gehiegi sinistu gabe. (bis)

J.Enbeita

GAIA: Zer paper izango du Euskadik Europan?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Poztu zaitezte euskaldun denak
jada Europan gaude-ta
gisa hontara aspaldi hontan
jo dute mila tronpeta,
sustrairik gabe jarri gaituzte
itxaropenez beteta,
baina nik daukat nere barruan
zalantza asko gordeta,

izango al gara Madrilen eta
Parisen marioneta? (bis)

Orain artean esaten gendun
bizi ginala katean,
ta askatasuna heldu omen da
denontzako bapatean,
zer eskari ta zer eramango
gure Europako atean,
ames guztiak hutsak ditugu
ta dira geure kaltean,
ezer onikan ezin da eman
aske ez geran bitartean. (bis)

Aspaldidanik dator gaur arte
inperialisten soka,
eta Europan ez da aldatu
oraindik euren epoka,
eta nahi dute poz faltsu batez
orain hastera saltoka,
gauza bakar bat ein genezake
jarraitu geuren borroka,
egunen baten ea lortzen den
herri txikien Europa. (bis)

HERNANI 1993-01-6

Bertsolariak: Peñagarikano, Lazkano, Lujanbio, Murua eta J.Enbeita. Hernaniko Bertso eskolak urtero antolatu ohi duen Errege eguneko saio honetan, 600 bat entzule bildu ziren Polikiroldegian. Udala laguntzaile. Bertso eskolak prestaturiko gaiak aurkezten J.L.Urdangarin aritu zen.

Peñagarikano - Lazkano - Murua

GAIA: Entzun dudanez urte zaharreko programa aurkezteko hasiera batean hiru kandidato omen zeuden: Murua, Lazkano, eta Peñagarikano. Prueba asko egin ondoren Anjel Mari aukeratu omen zuten. Orain programa ikusi eta gero ze ondorio atera dezue?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Murua: Nonbait ez ziren ausartu haiek
ni telebistara sartzen,
Peña nolako bitxoa gendun

ez ziran asko ohartzen.
Kontrolakoek esan didate
zeatik ez diok galdetzen,
lotsatzen al dan neska gazteei
arpegira begiratzen? (bis)

Lazkano: Bagendun nahiko arrazoia ta
bazan nahiko aitzakia,
azaldu zaigun lanpostu hori
ez baizan oso merkia,
baina azkenik halaxe gendun
hirurok erabakia,
muxua gehien falta zuenai
utzi genion tokia. (bis)

Peñagarikano: Kandidatoak ugari ziran
hautatua izan nintzen,
zalantzik gabe onena ni neu
laztantzen eta ikuitzen,
ta Amatiñok esan zuena
zuek ez zenuten aditzen,
Hitler-en kintak ziren aitona
ez zitula ametitzen. (bis)

Murua: Hala esan zion Amatiñori:
"Aizu lasai erretira",
pentsatu nuen: Peña zar honen
asmoak zeintzu ote dira?
Hura trajea ta pajarita
pinta eta gerri jira,
ta gau osoa pasatu zuen
Anen titiei begira. (bis)

Lazkano: Amatiño horrek hartu al gaitu
halako amenazuan?
Ikusten danez hark ere dauka
errespetua auzuan,
fija zaitezte haren kalboan
eta Peñaren musuan,
nere aitona juan balitz ere
hainbeste luziko zuan. (bis)

Peñagarikano: Miloi ta erdik jaso omen zuten
nik emandako mezua,
bata aitona zaharra degu ta
hura guztiz berritsua,
Elorrioko santua degu
Balentin Berriotxua,
Balentin baino famatuago
nik eman nion muxua. (bis)

Murua: Hura ikusita harrituko zan
inor nahiz izan itxua,
muxu emateko sudur aparta...

Peña hau degu bitxua!
Elorrioko santua degu
Balentin Berriotxua,
ta muxu batez txoratzen dana
Anoetako txotxua. (bis)

Lazkano: Al baldin balu landare hori
nahiko luke etxerako,
hura aurrera juan liteke
baina Peña atzerako,
hiru muxuren rekuerdoa
daduka arratserako,
jubilatzerira iritsiko da
beste hiru hartzerako. (bis)

Peñagarikano: Beste hiru muxu eman nizkion
Lazkanoren alabari,
aurrerantz ere emango ditut
nun-nahi muxuak ugari,
Elorrioko Ane hor dabil
bazter guztitan kontari,
esanez muxu eman ziola
bertsolari guaponari. (bis)

Murua: Ane laztana hori esan al den?
Hara zer desilusio!
Bat baino gehiok nola geninan
musu ematea desio,
hau guapoena bertsolaritan
hara zer nolako azio...
Aizan lehenbailehen egin haiteke
ONCE-koekin sozio. (bis)

Lazkano: Gizarajo hau itxutu zaigu
harek musu bat emanik,
gehiago ez zaio arrimatuko
ez ama ta ez amonik,
baina esan dun kontuarekin
pena bat sentitu det nik,
ez nuan uste nere alabik
hain inutilik nuanik. (bis)

Peñagarikano: Holako aitak merezi luke
jipoia edo egurra,
une batean batu ziraden
han zerua eta lurra,
eta Anek neri esan zidana
jaunak hau ez da gezurra:
<<Lazkanon buru haundia baino
nahio det zure sudurra>>. (bis)

OÑATI 1993-01-8

Bertsolariak: Egaña, Peñagarikano, Lazkano, J.Sarasua, Lujanbio eta Maia. Jaialdi bikaina 1000 bat entzuleren aurrean burutua. Zubikoa pilotalekuan eta gaez. Saio ordaindua. Herriko Bertso Eskolak antolatua. Nikolas Segurola gaijartze eta aurkezle lanetan.

Lujanbio - Lazkano

GAIA: Lehenago aitona deitu dik baina, Lazkano, Maddalenen aita izango haiz, eta nahiko kezkatuta habil Maddalen orain hasi baita gaua parrandan pasa eta goizaldera etxeratzen...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Lujanbio: Alaba nahiko gaztea dezu
holako aitonarentzat,
eta nabari gelditu dira
gaur parrandaren emaitzak,
ta goiz aldeko ze ordu degun
nahiz eta zuk hartu aintzat,
aita ez zaitez hainbeste keja
zuzen etorri naiz behintzat. (bis)

Lazkano: Zer aldaketa gertatu zaigun
bizi geran mundu hontan,
dena galdua ote dan ere
pentsatutzen det askotan,
gaua parrandan igarotzen du
eta egun guzia lotan
ta gero lanak utzitzen ditu
amatxok egitekotan. (bis)

Lujanbio: Zuk ni etxean nahi nauzu beti
fameli zaharren legez,
ta nik parranda egite hori
omen da amaren kaltez,
harrokeritan ez zaitez hasi
isildu zaitez mesedez,
zuk parrandarik ez dezu egiten
baina lanikan ere ez. (bis)

Lazkano: Nere lanetik bizi zerade
maitea hamasei urtean,
ta azkenikan esker gaiztoa
dadukazu bitartean,
parranda hoiek izan ditezke
alaba zure kaltean,

gauz normal gutxi gertatzen baita
bertsolarien tartean. (bis)

Lujanbio: Aita daukat hain serioa ta
nik hain fundamentu gutxi,
eta gauean egin dedana
ezin dizut erakutsi,
behin Sarasuak esan zuenai
oraintxe nahi diot eutsi,
aukera bat behin izango eta
pasatzen ezin nun utzi. (bis)

Lazkano: Hara zertara iritsia dan
nere alaba gaixua,
guraso eta etxez ahaztuta
pasatu du gau osua,
eta gainera ejenplotzako
hartutzen du Sarasua,
jentuza hoiekin baldin badabil
ziurra da frakasua. (bis)

Lujanbio: Zeinekin negon ez det esango
nahiz-ta askok badakiten,
Sarasuakin ez nitzan egon
ez zaitez jarri hain kirten;
gaur goizaldean etxeratu naiz
nahiz atzo gauean irten,
egun bateko parrandak ez du
bate kalterik egiten. (bis)

Lazkano: Horra zertara iritsi zaigun
bertsolarian bitartez,
ikusitzen det ibiltzen dala
edozein mutiko maitez,
segurantzia komeni baita
hola ibiltzeko partez,
garanti osoz ibiltzez geroz
txapeldunakin joan zaitez. (bis)

Lujanbio: Aita zaharrai nabaitzen zaio
aspaldiko dun dotrina,
mutil majoa nahi dula berak
hori degu gauz jakina,
eta Peñakin joateko dio
hori ez da tipo fina,
neri gutxinez gustatzen baizait
muxu ematen dakina. (bis)

Lazkano: Nere alaba argia dela
aspaldi ohartu nitzan,
eta berriro erakutsi dit
arrazoi horren baldintzan,
ikusirikan gaurko gazteak
zeinen ausarti dabiltzan,

urtetan nahiko egin haiz eta
heuk nai denana egin zan. (bis)

GOIZUETA 93-01-16

Bertsolariak: J.Sarasua, S.Lizaso, Murua, M.Arozena, Silveira eta Telleria. "Gorgori" baserri errearen alde dirua biltzeko jaialdia. Udalak antolatua. Zineman, gauez, sarrera ordaindua eta 700 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Juan M^a Oiartzabal aritu zen. Bertsolariez aparte, trikitalariak eta bertoko bertso eskolako haurrek ere parte hartu zuten jendearen gozamenerako. Saioa atzerapen handiarekin hasi zen.

Telleria

GAIA: Carlos Printze galestarra eta bere amantearen arteko elkarrizketa grabaturik duen zinta zara; jar ezazu martxan.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

Tirrin! lehenengo, tirrin! bi aldiz
Tirrin! hirugarrenean,
telefonoa norbaitek eskuz
hartu zuen azkenean,
gizonezkoak: "Kaxo!" galdetu
erarik goxoenean,
emakumeak: "Kontxo!" erantzun
nolako modu onean,
berehalaxe hasi ziraden
jolaserako planean.(bis)

Emakumeak galdetu zion:
"Zer moduz zabilta, Karlos?"
"Desesperatu xamarra nago
ta zu ikusteko gogoz."
Gizonezkoak ta zu Cameli
"Nik zu ikusteko desioz
gure gizona bi eguneko
da kanpora joateko asmoz,
ohe batean egongo gera
gure etxera bazatoz" (bis)

Eta Karlitos eszitatatu zen
gonbita hori entzunik,
ta esan zion: "Ai zure tanpax
Cameli, izan nahi dut nik,
zure galtzetan barne sartuta
sentitzen nago jadanik,

nere Diana joan zan baina
fletxa ondo dut oraindik".
Elkarrizketa mua ta mua
bukatu zuten azkenik.(bis)

LEKEITIO 1993-01-17

Bertsolariak: Egaña, J.Sarasua, U.Ituriaga eta S.Lizaso.
Trikitixa eta kopla lehiaketaren sari banaketa zela eta herriko
bertso eskolak Udalaren babesean antolatutako saioa. Herriko
Antzokian Jose Antonio Aranburu "Natxi"ren gidaritzapean.
Arratsaldean eta 500 bat entzule bildu zen.

J. Sarasua

GAIA: Gaur egunkari batek titular hauxe dakar: Yugoslabian
guztion begien aurrean serbiar jenoizidioak jarraitzen dau.
Bitartean munduko aliatuek Sadan gogorki zigortzen dute.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Telebistatik ikusten degu
horrenbeste pelikula,
fikzioa ta egia sarri
bereizten ez ditugula,
nolanahi ere oraingo hontan
garbi liteke kalkula,
leku batzutan kasurikan ez
bestean zigor mardula,
garbi ikusten da interesdunak
munduan agintzen dula. (bis)

Yugoslavian gertatu dena
ez al da izan itzela?
Jendea dabil herririk gabe
urte askotan bezela,
ta ikusten dugu petrolioa
garrantzitsuago dela,
iparraldean dago haria,
hegoan jende motela,
ta txarrena da geroni ere
goiko bandoan gaudela. (bis)

Egia esan guk ezin dugu
goiko bando hori laga,

eta nolabait gertatzen denaz
parte hartzaileak gara,
Yankiak eta español hoiek
hemen badute islada,
egoera honek irtenbide bat
izan leike behar bada,
hemendik irtetzeko bidea
geu aske izatea da. (bis)

OIARTZUN 93-01-23

Bertsolariak: Maia, J.Lopategi, Lujanbio, J.Enbeita, J.Sarasua eta Egaña. Eguzki Talde ekologistaren aldeko saioa beraiek antolaturik Oiartzungo Udalaren laguntzarekin. Madalen Soro pilotalekuan, gauzez, sarrera ordaindua eta 700 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Inaxio Usarralde.

J.Enbeita - J.Lopategi

GAIA: Hilabete t'erdian lau petroliontzien istripua eta bi olio isurpen gertatu dira. Zer gertatzen da?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

J.Enbeita: Aspaldi hontan petrolioak
ia estaliak gaitu,
asko arretaz badaude ere
ni ez naiz asko harritu,
denok nahi dugu presa hutsean
zentzunik gabe haunditu,
kontrol gabeko aurrerapenak
holako akatsak ditu. (bis)

J.Lopategi: Ez dakit nondik aurkitzen diran
talentu edo buruak,
aspaldi hontan petroliotan
sortzen dira apuruak,
itsasoa beltz jarri digute
kutsaturik inguruak,
munduan beti agintzen baitu
lehen esandako diruak. (bis)

J.Enbeita: Benetan pentsa ezkerro jaunak
ez al da gauza tristea?
Bat Galizian, ta Noruegan

erori zela bestea,
petroluntzien arriskuetaz
horrenbesteko nahastea,
bakar-bakarrik nahi dugulako
dirua irabaztea. (bis)

J.Lopategi: Zer erosirik izango al du
nozbaitean aberatsak?
Heltzen zaizkigun berri tristeak
gertatzen dira hain latzak,
aurrerapenak beti izan ditu
bere trabak ta akatsak,
laister akabo itsasotako
bixigu eta legatzak. (bis)

J.Enbeita: Gizasemeak ein ginanetik
gure lurraren jabeak,
berez zuzenak diren brujulak
daude zentzunik gabeak,
itsasoa ta lurra ditugu
ia galduz bi aldeak,
langabezirik ez du izango
gure Eguzki Taldeak. (bis)

J.Lopategi: Amets haundi bat genuen eta
gaur azaldu nahi genduan,
erremeioa jarri dezagun
gerta ez dadin beranduan,
guztiok bizi behar genduke
bejetariano moduan,
bestela laister nor biziko da
gu bizi garen munduan? (bis)

DONOSTIA 93-01-24

Bertsolari Eguna, Alfontso Irigoien eta Santi Onaindia omendu zireneko saioa. 45 bertsolarik hartu zuten parte. CAT eta Bertsolari Elkarteak antolatua. Victoria Eugenia Antzokian, eguerdiz, sarrea 700 pta eta antzokia nahiko bete egin zen, 800 bat pertsona. Gaijartze lana Bertsolari Elkarteren zeregina izan zen eta aurkezpenak egiten, Andoni Egaña eta Jokin Sorozabal aritu ziren. Ohizko entzulegoa du saio honek, nahiko adinekoa.

Larrañaga - Gorrotxategi

GAIA: . "Donostiara etorrri aurretik epailearen aurretik pasa zarete. Larrañagak Gabon Gauean afaltzeko oilategitik oiloak lapurtu zituen, epaileak hiru urtetako zigorra eman dio; Gorrotxategik aldiz, bere lantegian astero-astero miloiak ostutzen ditu, epaileak aske utzi du"

Neurria: Berezia

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Larrañaga: Burua daukat gainbehera,
bihotza berriz minbera,
jasan ezina da neretzako
gaurko egoera,
Espainiako lege bera,
gaur Euskadiren gainera,
lapur txikiak barrura eta
haundiak kalera. (bis)

Gorrotxategi: Ezina eta amorrua,
barrenean zomorrua,
giltzapea dek gaurtik aurrera
hire esparrua,
nik pozik zeukat barrua,
hau dek mundu katxarrua,
eta hik tonto jokatu badek
ez dek nere errua. (bis)

Larrañaga: Zer janetik eskatzia
bada nahiko desgrazia,
oilo batzuek harrapatzea
zan oker guzia,
haundia det malezia,
tranpa gaiztotan nahasia,
oilategia bezain zikina
dago justizia. (bis)

Gorrotxategi: Ez bisigu, ez angula
Anjel gelditu zaigula,
epai ordua iritsi zaio
gainetikan burla,
hau ez dek ahuntzen eztula
Ez al dek entzun sekula
zakur haundiak zakur haundia
defenditzen dula? (bis)

Larrañaga: Emanaz ogi apurra
deitu nien purra-purra,
baina hanketik heltzea ez zen
lantegi xamurra,

zuk miloien iruzurra
eta neretzat egurra,
orain ni baino hobeto dago
Boyer-en zakurra. (bis)

Gorrotxategi: Saiatu behar norbera
beteko bada platera,
lau oilo mika ostuta gero
kartzela batera,
motel, betezak kartera!
ez sartu oilo artera,
Joan Gerra ere libre zebilek
kontuak atera. (bis)

Larrañaga: Injustizia indarrez
dago hemen zoritxarrez,
txikiarentzat lege zorrotzak
haundiei baterez,
tarteko zenbait interes
ezkututzen dira errez,
zerritokian dena da libre
oilategian ez. (bis)

Gorrotxategi: Zazpi indulto berezi
nahiz eskatu Juan Carlos-i,
askatasunan argi izpirik
ezin dek ikusi,
heure oilo eta guzi,
hortxe ustelduko haiz hi,
ai litxarrerero zikina ez dek
besterik merezi. (bis)

ZESTOA 1993-02-13

Bertsolariak: J.Lopategi, S.Lizaso, Ega , Peñagarikano, Olalde eta Euzkitze. Urteroko bertso saioa. Herriko Pilotalekuan gauez. Saio ordaindua 800 bat entzulerekin. Gaijartze eta aurkezpen lanetan Laxaro Azkune. Saio bikain eta beroa suertatu zen.

Peñagarikano

GAIA: Bertso saio baten ondoren eta bertso saioaren aurretik ere bertsolariak momentu latzak pasako ditu, ba? Nolakoak dira zureak?

Neurria: 8 puntukoa

Doinua: Baserrian jaio nintzen

Galtzak estali ohi dute
hanketan dugun dardarra,
eta jendeak egin du
noiz-nahi algara ta farra,
lehen ehiztari gaia nuen
eta ez zen ez gai txarra,
Lizaso ondo jardun da
nik berriz saio zazarra,
nahiz eta txaloak entzun
guk frontoian barra-barra,
bakarrikan nagonean
sarritan darit negarra,
ondo pentsatu ezkerro
zein egoera kazkarra,
lotsa pasatuta ere
disimulatu beharra.

Zestoan ere zabalik
izaten degu atea,
ta jendeak nahi dun maila
zaila daukat ematea,
tristerik nagoenean
maite det bakardadea,
eta malkoetan hustu
barrengo atsekabea,
sarritan etxeratzen naiz
ni're nahigabez betea,
pentsa izan det gehiago
inora ez joatea,
Uztapidek esan zuna
orain nahi det esatea,
batzutan gogorra dela
bertsolari izatea.

Txaloa izaten degu
bertsoaren erantzuna,
nola azaldu dezaket
nik barrengo oihartzuna?
Txaloak entzundakoan
hura bai edertasuna,
eta gaizki egin ezkerro
nolako samintasuna,
gaizki irteten bazaigu hor
guri kantuzko jarduna
guk disimulatzten degu
gaizki egiten deguna,
baina sinestu zaidazu
aizu entzule kuttuna,
bertsolaria bera da
gehiena sentitzen duna.

S.Lizaso - Egaña

GAIA: Oraingo honetan, Andoni, Andoni izango haiz eta hi, Sebastian, bere alaba Saioa. Eta astelehen goizeko zortziak dituk...

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Nere senarrarekin

S.Lizaso: Aita eta alaba
gerade ni ta zu,
igande eguerdian
laxtan eta muxu,
astelehen goizean
hainbat amenazu,
beti hasarre nola
esnatzen zera zu? (bis)

Egaña: Neuk ere ez nun egin
ume umilikan,
ezin dezu, ez, hazi
hola familikan,
ez itzazula euki
mukik zintzilikan,
eta gosaria jan
ixil-ixilikan. (bis)

S.Lizaso: Beti sermoi berdina
dezu azkenean,
noizbaiten jarri zaitez
aitaren planean,
nik negar egiten det
zure aldamenean,
amatxok egiten du
falta zeranean. (bis)

Egaña: Hauxe da hau tortura
aita batentzako,
honekin karrerarik
ez det aterako,
ama aipatu digu
juan zaite por sako,
leihotik ez det bota
neurea dalako. (bis)

S.Lizaso: Nahiz-ta amari eman
hainbeste enkargu,
ez zerade egiten,
aita, gure kargu,
beti zutzaz galdezka
jarduten gera gu,
telebistan bakarrik
ikusten zaitugu. (bis)

Egaña: Hau da guruzbidea
behin eta betiko,
lau urte eskaxekin
harro eta tinko,
ume bat ekartzea
genduen begiko,
zer zetorren jakinda
ez nun ekarriko. (bis)

S.Lizaso: Hobe egin bazendu
gau haretan paso,
hainbeste ez nintzaden
minduko akaso,
amak behin esan zuen
nik gogoan jaso,
aita zerala baina
ez zera guraso. (bis)

Egaña: Txikitatik dakarki
sorgiñaren planta,
bateko negarra ta
besteko zarata,
jantzi zuk abrigoa
mahaitik altxata,
ikastola azkena
helduko zera-ta. (bis)

S.Lizaso: Hori ez zendukazun
aita zer esanik,
nik ez dizut ematen
gehiegizko lanik,
ni zaintzeko ez badezu
horrelako planik,
maite ez banazu're
zu maite zaitut nik. (bis)

Egaña: Gurutzatu dezagun
etxeko atea,
onena degu txintxo
eskola joatea,
aitarekiko honek
dun borondatea,
nik ere maite zaitut
Saioa maitea. (bis)

S.Lizaso: Orain engainatzeko
al dezuz asmoa?
Zure proposamena
ez degu sana,
ni engainatutzeko
daukazu gogo,
ez det sinesten baina

ikastola noa. (bis)

Egaña: Bertsolaria naiz ta
orain nago grabe,
astelehen goizak beti
gogorak dirade,
pizamarekin nago
eta galtzik gabe,
esnesaltzaileakin
joango al zerade? (bis)

S.Lizaso: Azkenik esan dezu
besterekin joan,
nik zer egin behar det
behin hontarakoan?
Banoa ikastolara
ta izan gogoan:
goxogo egon zaite
etorritakoan! (bis)

Egaña: Ate ixkinan jarri
ta hizketan bapo,
nere alabak badu
sorginkeri pranko,
ez da joaten eta
bidali beharko,
ea iristen zeran
arratsalderako. (bis)

J.Lopategi

GAIA: Galdera konprometitu xamarra egin behar diot honi: Hire txapelaren aginte aldiak aurten bukatu behar al du ala?

Neurria: Zortziko haundia
Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun

Orain hogeita hamabost urte
txapelketetan sarrera
egin nuen da orain gazteak
jartzen didate barrera,
nola-nahi ere txapel batekin
bukatu nuen karrera,
lasaitasuna gozatu nahi det
hurrengo urtetik aurrera.

Hainbeste plaza, hainbeste bertso,
erdi txar ta erdi edar,
aldi batzutan poza sortu ta
bestetan eragin negar,
hamar bat txapelketa hoietan

Euskal Herri hontan zehar,
hirurogeira hurbildu naiz ta
gerra gehiago ez det behar.

Astun samarra gertatu ohi da
txapeldun baten kargua,
orain gazteak har dezatela
nik daramadan gradua,
nola-nahi ere dakizutenez
aurreraturik ordua,
Peñak aspaldi hartu du hemen
Baltzaren errelebua

Egaña

GAIA: Gaurko saio hau ez nuke bukatu nahi gizon bat aipatu gabe:
Lazkao-Txiki.

Neurria: Zazpi puntukoa
Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Bart arratsean Lazkao-Txikiz
pentsamenduan nenguan,
txoriak ere gehientsuetan
isiltzen dira neguan,
udaberrian piztuko zaigu
txori txikien moduan,
hemen nahi degu onduan,
besteokin tabladuan, (bis)
ze leku gutxi behar zun harek
gurekin zegon orduan,
ta falta zaigun garaian berriz
ze hutsune utzi duan! (bis)

Nun galdu zaigu bertso on baten
ondoreneko marmarra?
Nun galdu zaigu ziri sartzea?
Nun galdu da irriparra?
Fintasuna ta gordinkeria
berezi ohi ditun marra,
lehen zebilen txirri-txarra,
moteldu da motor zaharra,
Txikiaren bihoztzarra, (bis)
umorea da zu esperantzan
mantentzen zaitun indarra,
ta esperantza da gu umoretsu
mantentzen gaitun bakarra. (bis)

Zuk behin Zestuan aipatu zendun
sehaskan kulun-kuluna,
eta aitortu euskera ere

bertatik hartu zenduna,
ta orain faltan botatzen degu
zure bertsozko jarduna,
ai adiskide kuttuna,
bertsolari on txukuna, (bis)
algara dena, txalo den-denak
zuretzat dira laguna,
ta maitasunak egin dezala
medikuntzak ezin duna. (bis)

ELGETA 1993-03-5

Bertsolariak: A.Sarasua, Egaña, J.Enbeita eta Lizarreta. Urtero egin ohi den saioa Udalak antolaturik. Polikiroldegian, gauez, borondatea ordaindurik eta 150 bat entzulerekin. Gaijartze eta aurkezle lanetan Arantzazu Loidi aritu zen.

Egaña - A.Sarasua

GAIA: Elgetan eliza konpontzeko edo diru bila omen dabilta. Andoni, ez dezu txikitarik ere eman, ta Aitorrek, berriz, eskua poltsikoan sartu eta danba diru potoloa bota du.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

A.Sarasua: Komunista hau gaiztoa da ta
hortan egin du pekatu,
ta apaiz jauna honi eskatzen
alperrik zaigu nekatu,
txikiteoan gastatzen dezu
ta elizari ukatu,
gero hiltzean zerurik behintzat
ez ezazula eskatu. (bis)

Egaña: Gorrien fama ipini nahi dit,
zer nolako desgrazia!
Perrotxikirik ez ematea
ez da horrein itsusia,
txikiteoan gastatutzeko
Egañak badu grazia,
mundu honetan gozatu nahi det
gozatu leiken guzia. (bis)

A.Sarasua: Gozamenakin izan diteke
agian honen kaltea,
ez da kostatzen milaka duro

elizari ematea,
gaztea dugu inuxentea
ta borondatez torpea,
bost milarekin eros diteke
zeruko pasaportea. (bis)

Egaña: Elizak ere badu ordea
majina bat katramila,
hor ibiltzen da fededun batzun
poltsiko hustuen bila,
pertsone sarri zukutzen du ta
horra bere maratila,
orain bost mila nahikoa bada
bihar igual hamar mila. (bis)

A.Sarasua: Abade jaunak izan behar du
gurekin hainbeste sari,
beretzat dira gure eskeak
otoitzak eta opari,
gure Egañak egin beharko du
penitentzia ugari,
eta oraintxe hasteko behintzat
dozena bat agurmari. (bis)

Egaña: Aizu tipoa, zer ari zera?
Kristina eta arraio!
Gaur eguneko fedeari honek
begi itxuka darraio,
dirudienez Egañari're
ordua iritsi zaio,
Abemariak esango ditut
dirua eman baino nahio. (bis)

HONDARRIBIA 1993-03-6

Bertsolariak: Lujanbio, Ibarra, E.Arozena, S.Lizaso, Egaña eta Peñagarikano. Emeki emakume taldeak, "Emakumeen Astea" egitarauaren barruan antolatutako bertso saioa. Arrantzaleen Kofradian gauzez. Gaijartze eta aurkezle lanetan Junkal Iza aritu zen, 300 bat entzuleren aurrean. Sarrera dohan izan zen.

Peñagarikano - E.Arozena

GAIA: Peñagarikano bertsolari zaharra edo beteranoa, Estitxu, beriz, bertsolari gaztea edo nobatoa. Bertso jaialdi batera zoazte eta jaialdi horretan parte aurretik zuen elkarrizketa.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Naiz ta hiltzea derrigorra den

Peñagarikano: Ni zaharra naiz ta zu gaztea
hori ondo badakizu,
iruditzen zait zu ote zauden
oso bildurtti ta izu,
baino animo Hondarribiak
gaur txalo joko baidizu,
nik ahal dedana lagunduko'izut
ta zaude lasai Estitxu.

E.Arozena: Bertsolaritzan eman nahi nuke
beharko dugun dirdira,
eta batzutan harritu ohi naiz
figura hauei begira,
nahiago nuke urduritasun
horiek hutsak balira,
patxarana ta montekristoa
beharrezkoak al dira?

Peñagarikano: Danak bertsotan ez degu egiten
lehengo zaharren modura,
nahiz-ta neronek hartua dedan
beteranoen itxura,
montekristoren kea sarritan
igotzen baida burura,
zuk patxarana hoientzat utzi
eta edan zazu ura.

E.Arozena: Bizian behin ere izango dugu
hola hasteko aukera,
baina halare izan daiteke
gu biontzako galera,
baina halare ez dut ulertzen
nigan daukazu jarrera,
bi ordutatikan luzatutzea
beharrezkoa ote da? (bis)

Peñagarikano: Gertatu ohi da sarritan trabak
guk kendu ezin paretik,
eta gu ere abitzen gera
inoiz bide okerretik,
ahazten bazaizu galde zaidazu
doinua hasi aurretik,
ta ni laguntzen saiatuko naiz
laguna naizen partetik. (bis)

E.Arozena: Askok diote ohar zaitezte
bertsoa gaur ze zaila den,
eta nik uste saio honetan
geratu dela nabarmen,
nobatismoa ta esperientzia

kontrastatu dira hemen,
ta doinutikan nabaritu da
ni zein hasiberri naizen. (bis)

Peñagarikano: Gauza berbera gerta zitzaidan
nei txapelketan ordea,
Estitxu zera udaberrian
paregabeko lorea,
bertsoen bidez azal ezazu
zuk barrengo adorea,
esan dezaten Estitxu dela
Manolo baino hobea. (bis)

E.Arozena: Peña oraingoz hasi zaigula
gure familiarian sartzen,
baina hori dena sobran dagola
ez ote zera ohartzeko?
Eta doinua berreskuratuz
gai hori hasi behar hartzen,
berak bakarrik dakin doinua
hasi baizaigu kantatzen. (bis)

Peñagarikano: Esango dute zeinen neskak
salada eta mardula,
hau bezelako napar politik
ez nun ikusi sekula,
lehen apal-apal hasi da baina
gero azkenean burla,
adarra jotzen ikasi dezu
Estitxu bejondeizula. (bis)

E. Arozena: Onuragarri izandu baita
hemen burlaren klasea,
baina halare bertsolaritza
ez dago modatik pasea,
eta erakusten hasia zera
baina ez nago ase,
positiboa izandu baita
zure lehenengo klasea. (bis)

BERASTEGI 1993-03-20

Bertsolariak: Lujanbio, I.Elortza, Iturriaga, Irazu, Silveira eta Maia. Gazteen Aldeko ekitaldien barnean antolatutako saioa. Herriko gazteek antolatua Udalaren laguntzarekin. Pilotalekuan eta gaez. Sarrera ordaindua eta 500 bat entzule. Laxaro Azkune aritu zen aurkezle eta gaijartze lanetan. Antolakuntza aldetik oso narrats: beranduegi hasi eta entzumena oso eskasa.

Iturriaga

GAIA: Arte Ederretan edo Bellas Artes-etan aritzen da ikasten eta pintore lanetan jarri behar det. Nolako neska margotuko huke?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Pintore gisa egin beharko
orain nere eginahala,
hartu beharko brotxa ta pintzel
espatula eta pala,
argazkirikan nola ez dudan
beste askotan bezala,
pintatu behar modelo eder bat
argi luze ta zabala,
garbi esanda Maddalentxo bat
bera baita ideala. (bis)

Fondoa egin diot urdiñez
ta geratu da ederto,
gorri bizi bat zapatentzako
ta oraindik askoz hobeto,
jertse txuri bat badauka eta
astiro-astiro lantzeko,
tubotan bila hasi naiz baina
geratu naiz keto-keto,
kolore beltza falta behar zait
arpegia pintatzeko. (bis)

Gure Maddalen ez dut ederto
utzi hemen gaurko plazan,
nire pinturen tratu okerra
nola behar zuen jasan,
ez dut moldatu nere kuadroa
gaurkoan nahi nuen eran,
entzulegoak esan dezala
gaurkoz izan ala ez izan,
eta itxurarik ez baldin badu
astratoa dala esan. (bis)

DONOSTIA (Altza auzoa) 1993-03-21

Bertsolariak: J.Enbeita, Egaña, Mendizabal, Lazkano eta Maia.
Korrika 8. ekitaldiaren inguruan AEK-k antolatua. Pilotalekuan
burutu zen eguerdian, sarrera dohan eta 300 bat entzule izan

ziren bertara hurbildu zirenak. Gaijartze eta aurkezle lanetan German Orbegozo aritu zen.

Maia

GAIA: Altza auzoan dauden etorkin askoren semeak euskara maitatzeko bi arrazoi sendo azal itzazu.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da neoiz egoiten

Etorkinaren seme ugari
seguru daudela hemen,
bere burua defendatzeko
behar du nahikoa kemen;
neuk'e badakit zailtasuna ta
bide luze hori zer den,
arrazoi onak aurki ditezke
azaldu beharrean gauden
zer lur zapaltzen ari geran ta
zein herritan bizi garen. (bis)

Askotan entzun ohi ditugu guk
halako esaldi okerrak,
"joder euskara zaila dala-ta"
gu generala hain alperrak,
bainan mendian horren libreki
ez dira ibiltzen eperrak,
eror ditezke atzetik bada
halako ehiztari senperrak,
hemen alperrak ez dira behar
baizik ikasle ederrak. (bis)

AEK dago gure bide bat
sarritan hartu beharko,
nahiz-ta oztopo ugari izan
beti aurrera joateko;
borondatea jarri behar da
ez zazutela usteko,
izerdi pixka bota behar da
gure helmuga hartzeko,
gure herria nazio bat da
euskara dala tarteko. (bis)

ORDIZIA 93-03-27

Bertsolariak: Egaña, Murua, Iturriaga, Maia, S.Lizaso eta Euzkitze. Korrika 8.a zela eta AEK-k antolatua Udalaren laguntzarekin. Herriko antzokian, gauez, sarrera ordaindua ta 700 bat entzule. Iñigo Eguren eta Aitor Sarriegik burutu zituzten gaijartze eta aurkezle lanak. 300 entzuletik gora izan ziren kanpoan gelditu behar izan zutenak barruan tokirik ez eta.

S.Lizaso - Iturriaga - Maia

GAIA: Jon, karneta atera berria hago, eta Sebastian aitaren autoarekin bidaiaria egitea pentsatu duk. Abiatu eta lehendabiziko bidegurutzean Unai lurrera bota duk.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Maia: Nere karneta berriarekin
kotxean geunden honela,
errepidera salto egin da
ez gendun kontu ustela,
beste kolpe bat hartu det eta
orain ahal dedan bezala,
eskerrak behintzat bat jo behar ta
tipo hau bota detela. (bis)

Iturriaga: Goierri aldean sarri ibiltzen naiz
lagunak behera ta gora,
baina sarritan atera nahirik
auto-stop-ean kanpora,
gaur ikusi dut goierritarrak
gidatzen duten ganora,
jakin ezazu berdina ez dela
kotxea eta traktora. (bis)

S.Lizaso: Semeak hartu zidan kotxea
uste gabeko trantzea,
eta aitzaki denak neretzat
hortan dut malaletxea,
baina zu, Unai, komeni zaigu
zer pasa den agertzea,
kotxeak zu jo zenitun edo
zuk jo zenuen kotxea? (bis)

Maia: Kontuak-kontu aberi hori
ertengo zaigu garesti,
aurrerantzean ez naiz joango
bere kotxe eta guzti,

orain mutilak amnesia dauka
ez banago oso gaizki,
hiru alditan esplikatu ta
zer pasa zaion ez daki. (bis)

Iturriaga: Beste norabait joatekotan
utzi nuen nik herria,
ta ia bertan bota ditut gaur
burua eta gerria,
karneta zuen berria atera
gauza ikaragarria,
eskerrak behintzat ez zeneukala
karneta atera berria. (bis)

S.Lizaso: Okerrena da semea eta
biak lagunak izaki,
konplota eginda ni izurratu
ez al dute erabaki?
Errori danak bultza gabe're
lehendik erortzen badaki,
mozkorturikan eroriko zan
gero kotxean aitzaki. (bis)

Maia: Aurrerantzean ibil dadila
errepidetik aparte,
dakinak soilik hartu dezala
abentura hortan parte,
Iturriaga jotzeagatik
penarik ez daukat bate,
nere aitatzok jo izan banu
ni txikituko nintzake. (bis)

Iturriaga: Ezin konpondu kotxeko horrek
gaur esan duen bezala,
ez dakit dugun failoduna edo
ez dakit dugun ergela,
aitatzok esan omen dio ta
zuzen-zuzen zoazela,
ta ahaztu'in zitzaion kurbetan pixkat
okertu egin behar dela. (bis)

S.Lizaso: Ez dakit bera erori zen hau
edo kotxeakin bultza,
zauri larririk ez dauka behintzat
nahiz ta kolpatu gorputza,
seguru on bat badegu eta
izango dezu laguntza,
urrena kontuz pasa zaitea
Elgetatikan honuntza. (bis)

Bertsolariak: Amuriza, J.Lopategi eta S.Lizaso. Korrika 8.a Donostiara, bere helmugara, iritsi zeneko eguna eta egitarau zabal baten barruan antolatutako saioa. Trinitate enparantzan, eguerdiz, sarrera dohan eta 200 bat entzule. Gai libreko saioa. Entzulegoaren erantzun hotza jaso zuen saioak. Bestalde, inguruko kaleetatik zebiltzan musika taldeen zaratak ez zuen batere lagundu saioaren garapenean.

Amuriza - J.Lopategi - S.Lizaso

GAIA: Entzulego gutxi etorri zela medio, jardun bat egin ostean, Korrika 8.na gaia hartu zuten, batak eta besteak zer nolako premia zuen kirola egiteko aitzakiarekin.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Amuriza: Harritzekoa hau ere ez da
nola hemen da Donosti,
Korrikaren alde gu kantatzera
hirira hemen daukazki,
hiru izen gaur bilduak gaude
bat nahiko gizona noski,
Lizasori ere korrikaldi bat
ez zaio etorriko gaizki. (bis)

S.Lizaso: Amuritzaren desafioak
sortu hainbat buruhauste,
gizen geranok denak makaltzat
kolpean jotzen gaituzte,
heorri ere bizkor haizenik
arren ez zakela uste!
Nik gaurkoan korriko diat
hik korrika hainbeste. (bis)

J.Lopategi: Batek zirria jaurti zuen ta
gero erantzuna merezi
hau ere saltoz hasi liteke
bizkaitar bien ihesi,
nolanahi ere korrikalari
hau ez legoke itsusi,
baina gaur egun korrika hoietan
beltzak ditugu nagusi. (bis)

Amuriza: Gaur kros bat bada Bizkai aldean
nere orrian jarria,
izena dauka Zornotza eta
ez da notizi berria,
behintzat badute kirol horretan
fama ikaragarria,
hemen badago gineatar bat
bertsotara etorria. (bis)

S.Lizaso: Beraz, nundikan etorri zaigu
orain gaude jakinian,
beltza da baina ez da egoten
hau kantatu ezinean,
abildadea haiek ta honek
ditek leku ezberdinean,
haiek hanketan dute indarra
honek berriz mingainean. (bis)

J.Lopategi: Mingaina ondo erabiltzea
ez al zen gaurko helmuga?
Zaindu ditzagun gure euskera
ta Euskal Herriko ohitura,
Amuriza're Zornotzan gendun
korrikalari modura,
direkzioa erratu eta
Donostiara etorri da. (bis)

Amuriza: Lehengoan zehar zabaltzen ari
omen da beren kontura,
korrikari ta bertsolaritzan
bada ordun abentura,
Realak ere hartu berri du
beltzak sartzeko ohitura,
Arzalluz Jaunan RH-a
toki onean gelditu da. (bis)

S.Lizaso: Amurizaren hitz joko hori
betidanik nabaria
gai zerrenda're itxura danez
ekarri du ugarria,
krosetik hasi ta futbolera
pasa da honen haria,
zer zera kirol kazetaria
edo-ta bertsolaria. (bis)

J.Lopategi: Desorekatu nahi gaitu gu ta
entzulegoa engaina,
baina bertso bat merezi luke
esandakoen ordaina,
Arzalluz horren hitz guzti hoiei
hartu diegu tamaina,
Oceano're RH da
ni bezain beltza da baina. (bis)

Amuriza: Hemen batetik eta bestera
goaz pausoan-pausoan,
Lizasok ere jarri berri nau
eratorrei erasoan,
Arzalluz ere entzun genduan
etxean eta auzoan
hark RH esan zun baina
HB esan nahi zuan. (bis)

S.Lizaso: Hizketarako zuek ez ezik
haren hainbat borondate,
ta jakinean botatzen ditu
makina bat disparate,
bere buruai mesede egin
eta besterenai kalte,
inoiz sotanak jantzitakoak
denok berdinak zerate. (bis)

J.Lopategi: Sotana artetik etorria da
Euskal Herriko legea,
lehen sermoietan ta gero hitzetan
azalduz horrek berea,
RH-kin mintzatzen zaigu
Arzalluz ta PNV-a,
baina basean sartu omen zaie
HB-ren sindromea. (bis)

ZALDIBIA 1993-04-2

Bertsolariak: J.Sarasua, Lizarreta, Egaña, Peñagarikano,
Gorrotxategi eta Narbarte. Erretako baserri baten aldeko
jaialdia. Herriko pilotalekuan gauzez. Odolbiltzaile Elkarteak
antolatua. Gaijartze eta aurkezle lanetan Nikolas Zeberio izan
genuen. 300 bat entzule eta sarrera ordaindua.

Egaña - Gorrotxategi

GAIA: Biok kateak zerate. Gorrotxategi burnizko katea eta Egaña
urrezko katea.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kontzientzia izaten degu

Egaña: Nere kontra nork daduka ezer?
Polit naiz eta akabo.
Urreak badu bere estima,
bai orain ta bai lehenago,
burdinezkoa hor ikusten det

gero eta zatarrago,
biok kateak gerade baina
alde pittin bat badago.

Gorrotxategi: Katea beti izan da hemen
zenbait gauzaren lokarri,
asmo horrekin gizon artera
gizonak noizbait ekarri,
zu dizdiratsu bazaude ere
ni ez nago parregarri,
ni langileen seinalea naiz,
zu lujoan ezaugarri.

Egaña: Bota didazun arrazoi hori
ez da gertatu kaxkarra,
pobrea eta xumea zera
baina bastante azkarra,
halare gure diferentzia
daukat aipatu beharra,
nere dizdirak poza dakarki,
zure herdoiak negarra.

Gorrotxategi: Dizdiratsu ta eder zaude zu
apaintasunez betian,
eta ni berriz herdoiz beteta
hemen urteak joatian,
ni zaila naiz ta zu berriz eten
noiz-nahi kolpian-kolpian,
urrezkoa iristen zaila da
burnizkoik ez dan tokian.

Egaña: Munduan batzuk izaten dute
hainbat izerdi ta neke,
besteak berriz lujoa errez
eskueran eta merke,
harro xamarra izanagatik
bihotz bat badegu guk'e,
urrezko kate asko ditunak
burnizko bat behar luke.

Gorrotxategi: Kostek kosta asko duanak
beti urrea erosi,
harrokeria izanagatik
gero lasai erakutsi,
eta burnia hementxe dago
bere herdoi eta guzi,
dizdirarikan ez izan arren
burlarik ez det merezi.

ZORNOTZA 1993-04-3

Bertsolariak: Egaña, Murua, Iturriaga, Urdangarin, Respaldiza eta Maia. Korrika 8.a zela medio, AEK-k antolatutako jaialdia. Arratsaldez, ordaindua eta 250 bat entzule. Argindarrarekin arazoak izan ziren. Karmelo Ikastetxeko aretoan burutu zen saioa eta oso giro onean. Gaiak eta aurkezle lanak, Benardo Mandalunizen zeregina izan ziren.

Egaña - Murua

GAIA: Talde honetan, Joxe Mielekin kantuan esperientzi gehiena izan duzuenak zuek zarete, beraz, bertsoz esaiguzue orduko oroitzapenak.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Egaña: Gauzak holaxe izaten dira
inor ez baita betiko,
gizon txiki ta bromoso hura
gehienok gendun begiko,
orain gugandik urrun joan da
ta bihotzak zenbat brinko,
halare pozik egoteko gai
bagerade nereko,
irriparrea bizi den arte
Joxe Miel ez da hilko. (bis)

Murua: Haundia gendun guztia ia
nik egiten det aitortza,
aldi berean gidari sendo
ta lagun bertso morrontza,
aldi berean zuhurtasuna
aldi berean bihotza,
aldi berean negar malkoa
ta lehertzerainoko poza,
udaberriko lehen lorea,
neguko azken izotza. (bis)

Egaña: Umore ona ezker eskuin
sentimentuak goi ta behe,
jendeangana iristen zekin
beti xuabe-xuabe,
hainbat urtetan zehar egin zen
gure bihotzaren jabe.
Orain zer egin? Nola jokatu?
Denok zalantzatan gaude,
zer izan gendun kontatu nahian
mito bilakatu gabe. (bis)

Murua: Gure bertsoak izan zintuen
hasi berritan haurride,
zure bertsoak guztia zeukan
ohe zuri ta maindire,
parre algaren aita zintugun
irrifarraren senide,
barru guztia hustuta gero
mundu berrirako bide
hartu dezue ta lore guztiak
negarretan ari dire. (bis)

Egaña: Gaur goiz partean berria entzunda
izoztu egin zait odola,
Txikia beti irriparezka,
ta Txikia beti hola,
abertzalea, bertsolaria,
adar askodun arbola,
hire itzala gure artetik
ez dek urtuko inola,
aio Joxe Miel ondo ibili,
hagon tokian hagola. (bis)

Murua: Atsekabea, egon ezin bat
zu gugandik joan beharrak,
finean fina, zintzoan zintzo,
euskeraz biziz zuztarrak,
ameslariak begi bizkorrak,
zorrotzak zure giharrak,
gogoan dauzkat "Oh! Baserritxo"
edo "Amaren bularrak".
Bizi pozari eutsiko dio
zuk emandako indarrak. (bis)

Iturriaga - Egaña

GAIA: Atzo iluntzean gertatua. Bella Oterora joan zara tragotxo
bat hartzen, Unai, eta halako baten konturatu zara zure
aurrean dagoen berrogei urte bueltako neskek ez dizula
begirik kentzen...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Iturriaga: Aspaldidanik erabakia
etortzea hona batera,
lagunak hartu kotxean eta
goazen Zornotza partera,
Bella Oteron hau ikusita
dena egia ote da?

Ulertzen dut bai zergatik deitzen
dioten azkenen aukera... (bis)

Egaña: Nere aukera zu zaitut orain
begiratuaz soinera,
badut etxea, badut logela,
ta burbujadun bainera,
ustegabeko hitz gordin batzuk
badatozkit mingainera,
Bollicao hau jango nuke nik
papel da guzti gainera. (bis)

Iturriaga: Atso zahar honek bi kilo pote
ditu aurpegian, hara!
Hortik dabilta hiru-lau kalbo
egiten elkarri traba,
txikiteroak, tripa beherantza,
elkarri farre ta algara,
hona etorri eta Tom Cruis-en
ber-berak sentitzen zara. (bis)

Egaña: "Ya decía yo" mutil hau degu
Tom Croizen mutil klasea,
ikusi eta piztu egin zait
gazte garaiko gosea.
Galderatxo bat egin nahi dizut
ta ez da zaila, bai zea!
Beste zeozer ba al daukazu
patilak bezain luzea? (bis)

Iturriaga: Inguru hontan batu ohi dira
hainbat pizti ta animali,
alkohol kontuan bapo edanda
gero hainbat erregali,
neurri kontuan atso zaharra
ez zaitez pasatu, lili!
Zuri goserik ez zaizu piztu,
ez zaizu inoiz itzali. (bis)

Egaña: Uste gabeen Bella Oteron
a ze zirkoa montatu!
Zatoz nigana belarri ertzera
zerbait nahi dizut kantatu,
gizajale bat eta gazte bat
destinoak gaur juntatu,
pagatzeko're dispuesta nago
baina ez zazu kontatu. (bis)

Iturriaga: Pagatzeko ere prest omen zaude,
igual bost mila pezeta,
nola aspaldian nere patrika
ez dan goraino beteta,
zure itxura ikuste hutsak

jartzen nau egiz erreta,
hala, ba, goazen, bestela ez zaitut
gainetik kenduko eta. (bis)

Egaña: Hauxe txoiloa ni sentitzen naiz
erregiña edo dama,
lehendikan ere haundia gendun
durangar gazteen fama,
gainetik kentzen izango omen du
ez dakit nolako lana;
eskerrik asko! Bejondeizula!
Horixe zan nahi nuana. (bis)

SUNBILLA 1993-04-11

Bertsolariak: Peñagarikano, Egaña, S.Lizaso, Murua, Euzkitze eta J.Sarasua. Sokatira Taldearen aldeko bertso saioa talde berak antolaturik. Arratsaldez pilotalekuan, sarrera ordaindua eta 800 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Bittor Elizagoien aritu zen. Saio beroa eta entzuleek nahiko barre egiteko parada izan zuten.

Peñagarikano - S.Lizaso - Egaña

GAIA: S.Lizaso dugu Sunbillako sokatirako entrenadorea, aurten kriston markak egin behar zituela eta iragarki batean jarri zuen ekipoa indartzeko zagero bat edo atzelari on bat behar zuela. Hauek biak aurkeztu zaizkio. Berak aukeratuko du.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

Peñagarikano: Talderako bat zuen
hautatu beharra,
hemen kirol zaleek
bai badute garra,
txuria egon arren
edota igarra,
beste inork ez dauka
nik dedan indarra. (bis)

Egaña: Kantatu duen hori
ez al da itsusi?
Peña ta nere artean
neroni nagusi,
esparragoan pinta
nork ez du ikusi?
Berrogei kilo ez da
kaka eta guzi. (bis)

S.Lizaso: Talde itxurazko bat
nahi nuen zuzendu,
eta erronkan behintzat
bera nabarmendu,
Peña probatu nuen,
berehala kendu,
tira egin behar da
bultza egiten du. (bis)

Peñagarikano: Nere moko txorrotxa
hain da bihurria,
baina nere indarrak
nun dauka neurria?
Ezkerrez jasotzen det
berrehuneko harria,
nik dedan indarra da
ikaragarria. (bis)

Egaña: Peñak dauka indarra
kristona orduan,
indartsuagorikan
ba al da munduan?
Besoan bola dauka
Sansonen moduan,
baina ez det esango
nola egin duan. (bis)

S.Lizaso: Zarauztar gaztea ere
dator borondatez,
baina indar gabea
neretzako kaltez,
ta Andoni bistatik
ezkutatu zaitez,
aurpegian kailoak,
eskuetan batez. (bis)

Peñagarikano: Egañak esan duna
ez da horren txarra,
Sansonen ejemploa
zeuretzat edarra,
Sansonek bere ilean
omen zun indarra,
horregatik daukazu
hau kendu beharra. (bis)

Egaña: Lizasok izan zuen
eskeintza doblea,
Peña exkaxa da ta
ni ez naiz hobe,
oraintxe pentsatu det
plan bat dotorea,
bakar-bakarrik jarri
entrenadorea. (bis)

S.Lizaso: Ez da oso erreza
daukaten papela,
erabaki behar det
akabo bestela,
ta uste det zagero
jarriko naizela,
eta beste bi hauek
pañuelo bezela. (bis)

S.Lizaso

GAIA: Nafarro aldean badakit asko ibiltzen zarela eta bai atzeko bertze bortz hoiak ere, galdetuko nizuke beste bost hoiak sekretuak ia zein diren.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

S.Lizaso: Telebistako izarra eta
bertsotan gorengo maila,
nora-nahi joanik ondo moldatzen
Xabierrek ez du zaila,
bere burua ondo mantentzen
beti izan da abila,
han janda honuntz etorri ohi da
bere postrearen bila. (bis)

Euzkitze: Egia da bai kilometrotan
badut makina bat gastu,
martxa honetan segi ezker
ezingo naiz aberastu;
aizak Lizaso nere famarik
ez zak hainbaste narrastu,
orain sei urte egin nian da
oraindik ez al zaik ahaztu? (bis)

S.Lizaso: Peña sarritan heltzen da honuntz
etxetikan bidalia,
ta itzuleran animotikan
beti erdi itzalia,
garizumatik kanpora nahiz ta
degun hemen ibilia,
urte guztian egiten ditu
barau ta bijilia. (bis)

Peñagarikano: Alde batera ez du merezi
hau erantzuten hasterik,
ni bezelaxe ikusten ditut
hainbat neskak gazterik
nik bijilia eiten dedala

ez det holako usterik,
ta berak ez du hemen egiten
purua erre besterik. (bis)

S.Lizaso: Ondoren dagon txikia degu
bertsolari bat aparta,
hala ere ondo ibiltzekotan
horrek ere zerbait falta,
laztan edo-ta autograforik
ezin omen du aguanta,
ezertxo ere ez du egiten
lotsatu egiten da-ta. (bis)

J.Sarasua: Gure Lizasok ez du kantatu
batere gezur grabea,
esan liteke hartzen duela
hargatik atsekabea,
egia da bai hori holaxe
nago konplejoik gabea,
egin gabe ez fardatutzea
ez baida askoz hobea. (bis)

S.Lizaso: Nik ondoegi ezagutzen det
ondoren datorren hauxe,
zarauztarra da, bere buruan
badaduka hainbat haize,
neska kontuan ibili arren
makina bat tranpa klase,
aurki zepoan eroriko da
azeria bezelaxe. (bis)

Egaña: Ni azeria izanagatik
ez naiz ibiltzen larrian,
eta zepoan ez naiz erori
onian edo txarrian,
umea eta amonarekin
antxen zegok baztarrian,
Sebastian nola esan dek hori
nere andrean aurrian? (bis)

S.lizaso: Gabiriako ile kizkurrak
berez daduka dizdira,
eta juaten dan leku guztitan
sortu ohi du ikusmira,
neska gazteak jarrai ezker
beti Muruai begira,
lehenez gainera bertsolariak
hemen ugalduko dira. (bis)

Murua: Lagun bezela neri bota dit
oso arrazoi sakona,
baina Lizaso bertsolari da

eta gainera gizona,
Gipuzkon baino askoz gustorao
etorri izan da hona,
herri danetan badu haurren bat
aita deitu ohi diona. (bis)

ZUMAIA 1993-04-16

Bertsolariak: S.Lizaso, Euzkitze, Sorozabal, Egaña,
Peñagarikano eta Lizarreta. Maria eta Jose Eskolako antzokia
leporaino bete zuten bertaratu ziren 600 pertsonak. Santelmotako
bertso saioa, jai batzordeak antolaturik. Gauez eta sarrera
ordaindua. Gaijartze eta aurkezle lanetan Laxaro Azkune.

Euzkitze - S.Lizaso

GAIA: Euzkitze, Bill Clinton da, eta Sebastian, bere
guardaespaldasak. Clintonek egunero footing egiteko ohitura
du, baina bere guardaespaldasak ez, eta hor ibiltzen da bere
ondoren larri.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Nere senarrarekin

S.Lizaso: Clinton ez zaidazu jo
neri adarrikan,
goizero ez da hola
ibili beharrikan,
zure atzetik ez naiz
joango alperrikan,
motorra ekarri edo
segi bakarrikan. (bis)

Euzkitze: Horrelakorik ez zait
esan orain arte,
tipo hauek aurpegi
galanta daukate,
beti ibiltzen zera
nigandik aparte,
zugatik baldin bada
lasai hilko naute. (bis)

S.Lizaso: Ez naiz asko harritzen
hortaz ohartzea,
hori da zure lanak
dakarren trantzea,
eta gertatzen bada
tiroka hastea,

ez dezu ba usteko
parean jartzea. (bis)

Euzkitze: Ez dakit zure esana
egia izan den,
enteratu naizenez
potroso bat omen;
"paren ez naiz jarriko"
bota dezu hemen,
pozik jakingo nuke
zertarako zauden. (bis)

S.Lizaso: Arrazoa badezu
hori galdetzeko,
ta ez zaitea jarri
kopeta beltzeko,
Etxe Zurian nago
ni zure antzeko,
lan gutxi egin eta
ondo kobratzeko. (bis)

Euzkitze: Zure ateraldiak
ez dira txukunak,
hara zer bota didan
ondoko lagunak,
zure alperkeriak
dira ezagunak,
beraz bi bagera hori
egiten degunak. (bis)

S.Lizaso: Nunbait bi izatea
ez dezu graziko,
baina lagun hoberik
ez zun mereziko,
zugandikan lanean
ez det ikasiko,
eta korrika ere
ni ez naiz hasiko. (bis)

Euzkitze: Gizon efikaza da
bere baldarrian,
baina orain jarri naiz
postura txarrian,
nago metodoren bat
hartu beharrian:
Montekristo bat jarri
muturran aurrian. (bis)

S.Lizaso: Sistima hori ez zan
zuretzat kaltean,
aproba egin zazu
tarte-tarte;
"jarriko det -zenion-
ahoa betean,"

baina ostu dizkizut
lo zeunden artean. (bis)

Euzkitze: Honekin gauza onik
ez da aterako,
kontratatu nuan da
neure kalterako,
beraz neurriak hartzen
ausartu beharko,
boluntario zaude
kalabozorako. (bis)

AZKOITIA 1993-04-17

Bertsolariak: J.Lizaso, Euzkitze, Lazkano eta Gorrotxategi.
Ezohizko bertso saioa. Gaez eta 200 bat entzule pilotalekuan.
Saio ordaindua. Gaijartze eta aurkezle lanetan Antton Aranburu
aritu zen. Bertsolariak butaka batzuetan eserita jardun zuten
kantari, batere altxa gabe.

J.Lizaso - Euzkitze

GAIA: Aita-semeak zerate. Zu Xabier, sekretu baten jabe zera
gainera, gaur bertan jakin dezue sendagileak hala esan
dizulako minbizia dela medio bizpahiru hilabeteko bizia
geratzen zaiola aitari, Joxeri.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Elizan sartu ziradenian III

Euzkitze: Ai aita zaharra notizi batek
jarri nau nahiko serio,
sendagileak bere etxera
deitu izan dit propio
zure bizitza azkenetan da
behintzat harek hala dio,
gaur arte bizi izandakoak
ez al du bate balio?

J.Lizaso: Arrazoi dezue oraindainoan
eder samarra izan da,
neuk aitortzen det neure bizia
pikuetara jua da,
horregatikan ez zazu galdu
medikuan propaganda,
hil ber nuala lehen'e banekin
hiltzeko jaio nitzan-da.

Euzkitze: Denok hiltzeko jaiok gera
iñungo dudarik gabe,
noizpaiten ere heriotz beltza
egingo da gure jabe,
badezu mina disimulatzen
makina bat abildade,
neri ez didazu egin nahi baina
barrutik negarrez zaude.

J.Lizaso: Hizketan egin edo isildu
neretzako dezu berdin,
gogoratzen naiz zeruko Aitak
goitik didala hotsegin,
ni estorbu bat bakarrik nazu
ta hobeto det aldegin,
nerea hainbeste izan da eta
ez zazu negarrik egin.

Euzkitze: Lehen guztia zan eguzki bero
orain guztia da laino,
eta tristurak hartua nauka
burutik hanketaraino,
behin bizitzaz zuk esan zenduna
ez zait ahaztu egundaino,
motza ta ona hobe dala
txarra ta luzea baino.

J.Lizaso: Sasoi antzean dagon artean
hiltzea ez da suertian,
baina holakoak arkitzen dira
hemen tartian-tartian,
semetxo maite zure aita zaharra
laister hor degu lurpian,
amari behintzat lagun zaiozu
bizirik dagon artian.

Euzkitze: Munduan iñork ezin dezake
orain zuk aina goraipa,
orain artean egin dezuna
eredugarria baita,
ezin zaitzaket maite zaitudan
baino askoz gehiago maita,
ama ere berdín maitatuko det
nik agintzen dizut, aita.

SEGURA 1993-04-17

Bertsolariak: S.Lizaso, J.Agirre, Peñagarikano, Egaña,
J.Lopategi, Mendizabal eta Mañukorta. Euskal Bizikleta itzuliko
etapa baten amaiera antolatu ahal izateko dirua biltzeko saioa.

Herriko Txirrrindulari Elkarteak antolatua. Gaez pilotalekuan eta 1000 bat entzuleren aurrean. Sarrera ordaindua. Gaijartze eta aurkezle lanetan Iñaki Murua bertsolaria aritu zen.

Egaña - Peñagarikano

GAIA: Peña ikusten dezue ze despistatu aurpegiarekin ibiltzen dan sarritan, eta gaurkoan behintzat Peña, hi haiz extralurtar edo extraterrestre bat, momentu hontan jeitsi haiz lurrera eta lurtar honekin topo egin dek, Andonirekin...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Adiskidia Andoaindikan

Egaña: Buru gainean hots raro batzuk
entzunak ditut hor ozen,
-Kaixo bitxito zer moduz zaude?
Hizketan hasi gaitezen,
buru txikia ta flekiloa,
bi antena zuzen-zuzen,
esan zaidazu ze izen dezun
eta nundikan zatozen.

Peñagarikano: Baztar batean aparkatuta
neure platilo ta motor,
uste zenuten bizia zunik
ez zegola beste iñor,
nundik natorren galdetzen dezu
erantzun behar derrigor,
ez det izenik, Marte deritzan
planeta batetik nator.

Egaña: Holakorikan ez nun ikusi
ez uda eta ez negu,
nahiz "funtzioa"n ikusten ziran
bi martziano eredu,
eta hizketan nola dakiten
oso jakitun gaude gu,
benetan polit ikusten zaitut
ñir-ñir egingo al degu?

Peñagarikano: Barkatu baina ñir-ñirren berri
ez gendun ikasi Marten,
itsasoa ta lurra hain zaila
lehenoz ez zegon bereizten,
zerua ere urdina gendun
hasia dago itxusten,
joandaneke hogeitertan
ez degu ezer ikusten.

Egaña: Ai Marziano! benetan oso

tipo aldrebesa zera,
etorri eta hor hasi zera
ekolojisten antzera,
miope dala edo itxua
irten zaio mingainera,
ikusi gabe ein leike ñir-ñir
eta ederki gainera.

Peñagarikano: Marte gainetik ezin bereiztu
ke beltza eta lainua,
pentsatzen nuen nere planeta
zela planeta ñañua,
eta mundua ezagutzeko
nik banuen enpeinua,
ezautu badet ezagutu det
hau da hau desengainua!

Egaña: Kolore berdez gizon plako bat
gure herrian barrena,
begirada du despistatua
ta lo hartzen du hurrena,
ezertxorekin konfiantzik ez
ta keja arrazoi dena,
anai biki bat badezu hemen
Peña izena duena.

Peñagarikano: Mundu honetan nik somatzen det
behintzat istilu ugari,
gizonezkoak mozkortu eta
hor hasten dira kantari,
batzuek beltxak, bestek haundiak,
beste batzuk ile hori,
aspertu naiz ta Martera noa
ta goraintziak Peñari.

Mendizabal

GAIA: Zer miresten duk?

Neurria: 10eko nag.

Doinua. Santa Barbara zure bizitza II

Nik miresten dut besterengatik
ahalegintzen dan laguna,
miresten dut nik eguneroko
lan isileko jarduna,
nik miresten dut faltsokeririk
gabeko leialtasuna,
pobreek duten bizinahia ta
bizitzaren erantzuna,
haundi-maundien umiltzea ta,

txikien haunditasuna. (bis)

Egaña

GAIA: Jo dezagun, Andoni, zu zerala kañoiaren puntatik oraintxe ziztu bizian atera den bala bat eta konta izkiguzu momentu horretako zure burutapenak.

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Nik uste nuen mundu hau zela
kañoi beltz honen itzala,
orain kanpora bidali naute
ziztu baten berehala,
nere buruan badaukat mila
buruhauste ta kabala,
zer sortuko eta bala,
ez al da suerte makala? (bis)
Egia da bai jaiotzen dena
hil egiten omen dala,
nere kasuan egi doblea
hiltzeko jaio nintzala. (bis)

Txarkerirako ibiltzen dute
nere indar ta kemena,
birrindu zazu hango zubia,
puskatu ezazu trena,
sustrai sustraitik atera zazu
repetidore antena,
huts nazazute hurrena,
itsas urrunen barrena, (bis)
eta hartara beteko degu
amestu liteken dena,
pertonentzako pakea eta
neuretzako atsedena. (bis)

Gizon zitalek sortu ninduten
denontzat zoritxarrian.
"Joan eta hura egin zak, bala!"
Eta nik derrigorrian,
duintasuna ere badaukat
pixkat halabeharrian,
alperrik nago lurrian,
edo itsas bazterrian, (bis)
neu lehertuko naiz, despeditzen naiz
gizartearen aurrian,
eta lore bat jarri zazute
kainoi denen muturrian. (bis)

LASARTE 93-04-23

Bertsolariak: Amuriza eta Egaña. Bertso afaria. "Ttakun" euskeraren aldeko elkarteak antolatua Udalaren laguntzarekin. Goiegi jatetxean. Sarrera ordaindua. Aurkezle Nikolas Zeberio eta Lasarteko Bertso Eskolakoak laguntzaile. Gehienbat gai librean garatu zen hiru ordu ta gehiagoko saioa. 140 afaltiar. Giro beroa eta goizeko 3ak aldera amaitu zen saioa.

Amuriza - Egaña

GAIA: Hasierako agurraren ostean bata besteari hika-mikaka jardun ziren. Egañak bertso tartean *maitia* hitza sartu zuen eta abiapuntu harturik honela jarraitu zuten.

Neurria: 8ko nag.

Doinua : Txoriak eta txoriburuak

Egaña: Burrukarako ez nauk etorri
ai Amuriza maitia!
eta xipoka hastea izan
leike biontzat kaltia,
litekena da ni ezinean
lur zolara joatia,
gauza bakarra eskatzen diat
etxera eramatia. (bis)

Amuriza: Lehendikan ere Egaña honek
bazebilen propaganda,
ez da mirari SOS eskatzea
hain gautxoria izanda,
honen planetan kezkatzen nago
halaxe ohitua zan ta,
zer demonio bilatzen dek hik
neri maitia esanda? (bis)

Egaña: Afai garaian hor eduki det
aldemenean, onduan,
sentimenduak azaldu ditut
bertsotarako orduan,
ta hau entzunaz gauza bat daukat
barruan edo goguan:
nik zeinen gaizki esan diodan
ta zein ondo ulertu duan. (bis)

Amuriza: Adinak bere tikea badu
ez badu ere berdindu,
hark gaizki esan nik ondo ulertu
bertsoak hala agindu,

detailetxo bat emango'izuet
ez nazazuten sumindu,
nik ez nion hain ondo ulertuko
hankaz ukitu ez banindu. (bis)

Egaña: Ai Amuriza igo egin da
elkarrizketan nibela,
izan'e ez da mugitzen zaila
lagunaren manibela,
hankaz ukitu egingo nun bai
lagunak zion bezela,
esaten nun bai zigarro hori
potolo samarra zela. (bis)

Amuriza: Ez dakit honek esan duena
konprenitu duen inork?
Bi hanka ere hor baditut nik
eta dauzkanak edonork,
potolo samar omen zegoen
honek burla gisa zio,
ikusiko dek nora joango den
sua ematen badiok! (bis)

Egaña: Berriro ere kantuan nator
mikrofonoan harira,
nere laguna oso terreno
zailtan sartzen ari da,
Lasarte eta aipa ditzagun
hortakoxe gaude tira,
saio osoa ezin deu pasa
geure zilborrai begira. (bis)

Amuriza: Beraz Egañak gaia aldatu
nahi zidak aldamenetik,
bistan dago hau atera dela
zilborrez bere onetik
Lasarten gaude orain jakin det
lagunaren esanetik,
Zer moduz dabil zitudade hori
herria egin zenetik? (bis)

Egaña: Gazte denboran eritzi nuen
benetan herri tristea
ez zen goxoa Lasarteraino
Zarauztikan iristea,
orain jendea hor sumatu det
euskaldun eta gaztea,
aldatu egin beharko det nik
Lasartez nuen ustea. (bis)

Amuriza: Hemen ederki hasiak gaituk
eta jarraitu galanki,
nola neurriko loreak bota
honelako herri bati,

aldatu behar duen ustea
sozioak erabaki,
purua erretzen eta gainera
koipea ematen badaki. (bis)

Egaña: Arrazoi dauka diplomazian
nabil fuerte samarrik
halare nere sentimenduek
ez dute falta indarrik,
nere ustea aldatu egin da
ez dago esan beharrik,
pentsatzen bainun Lasarte zela
lau mantxurriano bakarrik. (bis)

Amuriza: Mantxurriano hitza barnetik
nunbait Andoniri erten,
Gasteizen ere bizi izan da
halako bolara baten,
han aspertuta berriz Zarautzen
instalatu zaigu aurten,
handik bialtzen digutenean
azalduko da Lasarten. (bis)

Egaña: Zortzi urtetan Bitorin bizi
ia erregeen pare,
orain Zarautza etorri naiz-ta
ez alkate ez errege,
nere zizare hoiek berotzen
ez hasi, egin mesede
edo bestela fraile kontutan
sartu naiteke ni ere. (bis)

Amuriza: Alde batetik bestera joaten
hasteko bada baimena,
konbentu ederrak ere gaur daude
ez da izango krimena,
holako baten sartzeko ere
zu zinateke onena
hanka ikutzen badakizu ta
egina dezu gehiena. (bis)

GABIRIA 1993-04-24

Bertsolariak: Irazu, E.Arozena, I.Zelaia, U.Agirre, Sarriegi eta Meabe. Ohi bezala, afalondoren burutu zen Gabiriako XXII. Osinalde bapateko bertsolari gazteen sariketa. Elkarte leporaino bete zen. Osinalde Elkarteak antolatua. 150 entzule. Epaimahaia osatzen zutenak: Eusebio Igartzabal, Altzo Txiki, Joxe M^a Gabiria eta Mikel Agirre. Gaijartze lanak Osinalde

Elkarteak burutu zituen eta aurkezle lanetan Ibon Elgarresta aritu zen.

U.Agirre - Irazu - Zelaia

GAIA: Zuek hiru hizki edo hiru letra zarete, hiru bokal hain zuzen. U. Agirre A hizkia; Zelaia, E; Irazu, I. Defenditu bakoitzak zuen hizkia.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

U.Agirre: Orain hasi behar det
gure gai petrala,
I hizkiak burua
aidean duala,
eta E-k hiru hanka
martzianok bezala,
A hizkia izango da
ona ta normala. (bis)

Zelaia: Abezedarioak
badauka indarra,
jendeak erabiltzen
digu barra-barra,
baina nere kasoan
ez al degu txarra
beti honen atzetik
ibili beharra? (bis)

Irazu: I hizkiak'e badu
bere garrantzia,
hitz batzun esanahia
ez daukat ahantzia,
kristau izpiritua
gure iritzia,
Iparraldea eta
Independentzia. (bis)

U.Agirre: Irazuk gaur kristona
bota du erdira,
baina ni hasiko naiz
berari begira,
hor nik ere garrantzi
latza daukat, tira,
bi hizkiak A-rekin
bukatzen baidira. (bis)

Zelaia: Ordena aldatzeko
ez daukagu betik,
horragetikan ez det

bestuko kopetik,
E hi motel ze habil
esanaz kolpetik,
kasu horretan nago
Irazun aurretik. (bis)

Irazu: Unai izanagatik
nahiko hitz zabarra,
I-an bukatzen zaigu
hori ez da txarra,
eta gainera daukak
onartu beharra,
Txirritak bi I zeuzkak
eta A bakarra. (bis)

Irazu

GAIA: Zuk zer daukazu emateko eta zer hartuko zenuke?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Semaforoak gorri ta berde

Bertso munduan eman dedana
ez da izandu arrotza,
nere lagunei laguntasuna
emateko ez naiz lotsa,
nere maiteai emango diot
barru-barrutik bihotza,
ni baino zerbait gaztego denai
esperientziaren hotsa,
ta gurasoei ni horrenbeste
zaindu izanaren poza. (bis)

Hartzeko berriz norbaitengandik
igual bere maitasuna,
bertsolaritzan Egañagandik
dadukan zorrozatasuna,
giro berean Muruak
dadukan goxotasuna,
eta gainuntzen gure bizitza
gertatzen da hain astuna,
neri're aukerak faltatzen zaizkit
denoi faltatzen zaiguna. (bis)

Lehen sentipenak hartuko nitun
nere aman bularrian,
hark esan zitun lehen hitz goxoak
gorde nitun belarrian,
gero hazi ta nere bidea
hiri haundian larrian,
eta geroztik nere kaxara

hortxe nabil egurrian,
ta ematea behintzat nahi nuke
hartu izan dedan neurrian. (bis)

ANDOAIN 1993-05-2

Bertsolariak: S.Lizaso, Telleria, Egaña eta Murua. Andoaingo Santakutzak zirela eta jai batzordeak Udalaren babesean antolatutako saioa. Beheko Kale auzoan burutu zen. Plaza librean, gauean eta oso entzule gutxi. Gaijartze eta aurkezle lanetan Aitor Mendiluze aritu zen. Saio hotza eta entzumen eskasa. Entzulerik ez zegoelako saioa berandu hasi zen.

S.Lizaso - Telleria

GAIA: Telleria izango da baserriko jabea edo nagusia eta periodikuan anuntzio bat jarri dezu morroi bat behar dezula esperientziakin, eta zein aurkeztuko eta Lizaso. Egun batzutarako prueba bezela jarri dezu eta hor ikusi dezu behiari ordeñadora adarretan jartzen...

Neurri: 8ko txikia
Doinua: Nere senarrarekin

S.Lizaso: Irakurri nuen da
hona ni presente,
zurekin lanerako
gertu derrepente,
esperientzia ere
badaukat dexente,
hamar baserritatik
lehen bidali naute. (bis)

Telleria: Periodiku bateko
bere eraginak,
ta eskatzen nituen
oso morroi finak,
baina ez dira zuzenak
morroiak eginak,
behiak adarretikan
ez ditu irainak. (bis)

S.Lizaso: Nagusia erritan
kolpetik ekina,
marmita betetzea
honek duen grina,
errapean jartzea
normala zen baina,
adarrean jarrita

etekin berdina. (bis)

Telleria: Gurelesa pobretu
behar zaigu bela,
makina alda zazu
auskalo bestela...
Marmitarikan ezin
bete da horrela,
uste al dezu behia
mutilzaharra dela? (bis)

S.Lizaso: Mutilzaharran kontuan
badaki dezente,
baina behiak errepeak
antzuak dauzkate,
zer egin esango'izut
zuri derrepente:
"letxabit" bota eta
iturritik bete. (bis)

Telleria: Esan du asmoren bat
honek baduala,
morroi haundia ez da
ez gizon normala,
hori eginda halare
nahiko du jornala...
Txekorrek hobe dute
esne naturala. (bis)

S.Lizaso: Ikuilu zelebrea
hemen det ikusi,
behiak mantendu gabe
ez daitezke bizi,
soro ta belardiak
denak daude sasi,
behi kaxkar hauek saldu
ta ahuntzak erosi. (bis)

Telleria: Halare negozioik
ez diat uzteko,
zer motibo dadukak
horrela hasteko,
behi txarrak saldu eta
ahuntzak erosteko,
berdin izango zio
adarra jezteko. (bis)

S.Lizaso: Nagusiak eman du
adarraren nota,
itxuraz nere aurka
daduka konplota,
ondo ez jetzi arren
ez zaio inporta,
antxumeak sortzean

errepera bota.(bis)

Telleria: Gogoa badaduka
ta ez du kalteko,
aizak nagusiari
izan errespeto,
behia baina ahuntzekin
gaudela hobeto,
seguru nahiko ditu
beronek jateko. (bis)

IBARRA 93-05-07

Bertsolariak: Murua, Euzkitze, Gorrotxategi, Munduate, Sarriegi eta Loidisaletxe II. Kultur Astearen egitarauaren barnean herriko gazteek antolatua Udalaren laguntzarekin. Herriko plazan, gauez, sarrera dohan eta 350 entzule. Bertso eskola gaijartzaile eta Onintze Aranalde aurkezle.

Gorrotxategi - Sarriegi

GAIA: Zuek, bi belarri zarete. Zu Sarriegi, kontu gustagarriak entzuten dituzuna; Gorrotxategi kontu mingarriak entzuten dituna. Zer kontu dira hoiek?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

Gorrotxategi: Ale galantak ditut kanpoan
ta azal fin bat barruan,
gure amatxok egun batean
holaxe egin ninduan,
negargarrizko kontuak sobre
daude gaur belar onduan,
hauek entzuteko ez dakit nik
entzuteik merezi duan.

Sarriegi: Egia esan nere jarduna
ez da horren mingarria
nere aldetik begiratuta
oso atsegingarria,
ezaguna da neska kontuan
berak duen etorria,
hain zuzen bainaiz Eguzkitzeren
ezkerreko belarria.

Gorrotxategi: Nere belarri haundi hauek ai!
ez dute askorik goza,

notizi on bat entzunaz ezin
segundu bat ere osa,
ez da besterik gerra tristea
eta berdin tiro hotsa,
eta hoiekin galdutzen det nik
mundu hontan bizi-poza.

Sarriegi: Ez nuen uste zure jarduna
zitekenik hain bortitza,
nere gainean ez dauzkat eta
hainbat ta hainbat baldintza,
neri suabe gustatu ohi zait
esaten didaten hitza,
ta ozenegi entzungo nuke
Munduatena banintza.

Gorrotxategi: Zoritxarrean oraindik ere
badabiltza hamaika mito,
laister kontutan hasiko dira
Aznar eta Felipito,
beste gauzarik zer eingo dute
nere belarriak ito,
sartuko ditut bi kortxo eta
betirako hortan kito.

Sarriegi: Ez zaitez jarri horren haserre
orain Jose Luis belarri,
kontu ugari esan asmotan
etorri bainaiz elkarri
ni ezkerreko belarria naiz
hori aipatu det sarri,
kontu goxoak entzutekoan
nere eskuinean jarri.

ELIZONDO 1993-05-8

Bertsolariak: Euzkitze, J.Sarasua, Peñagarikano, Egaña,
S.Lizaso eta M.Arozena. Amaiur Sokatira Taldearen aldeko bertso
saioa talde berak antolaturik. Arratsaldez Pilotalekuan izan
zen. Sarrera ordaindua eta 500 entzule inguru hurbildu zen.
Gaijartze eta aurkezle lanetan Iñaki Murua aritu zen.

M.Arozena

GAIA: Giro ederra dagoela aprobetxatuz mendi buelta bat egitea
erabaki duk eta mendian hoala hor ikusten duk txorikume bat
kabitik erori eta lurrean. Zer burutapen sorrarazten dik?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Zerbait arraro ikusi det ta
begiratu dut lurrera,
disdira batek kolpez moztu du
nik naramakin karrera,
txorikume bat lumarik gabe
etorria da honera,
galdera ere egina diot
erdi hilen zer ai zera?
Euskal Herrian etxerik gabe
dabilTZan gazteen antzera?(bis)

Esan bezela nahiko tristea
txorikumean disdira,
bertan uzteko nere bihotza
kolpe haunditan ari da.
Goiko aldera gero jarri naiz
nondik erori dan begira,
eskutan hartu ta igoko det
haritzan adar haundira,
aita ta amak hain gogo haundiz
eginda duten kabira. (bis)

Kabi hortara bilduko dira
zure aita eta ama,
orain nik zuzen emango dizut
geroko bizitzan plana,
lumak atera arte hor egon
hori nola ez dan zama,
ta ondorenen etorri zaitez
nahi badezu neregana,
neure leihoan emango dizut
zui komeni zaizun jana. (bis)

Peñagarikano

GAIA: Badakizue bertsolariok bertso saioaren aurretik beti izaten degu halako urduritasun bat, geldi egon ezin bat, komunera joan behar bat eta abar. Peñak ere izan du halako bat saio honen hasieran eta hor joan da Intzara, baita komunean sartu ere. Une hontan hantxen dago komunean eseri eta ateari begira. Zer jartzen du atean?

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Lasaitu nahi nuen nik
krisketa itxita,
hura zen puzkar hotsa
galtzak erantzita,
gero zer ikusiko
bertan eserita?
Porkey-ren pegatina
Fragai erantsita. (bis)

"Gora Intsumisoak",
"militarrei pum,pum",
"Kakitzat ta Jo-ta-ke",
"Indurain txapeldun",
"Gora Juan Carlos, Alli"
eta "gora Aizpun",
ta kontraesanetako
Nafarroa euskaldun. (bis)

Erderaz irakurtzen
hor hasi naiz gero,
"Sarasua Bollito",
"Egaña porrero",
"Murua potroso" ta
"Perez parrandero",
bihotz baten ondoan
"Peña te quiero". (bis)

J.Sarasua - Egaña

GAIA: Zu Sarasua, HIES-aren birusa zara, ta oraintxe zaude
Egañaren gorputzean sartzeko zorian.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

J.Sarasua: Odola daukat garraio bide
ta gorputza dut etxea,
alde hortatik neri igual zait
aurea edo atzea,
gizakiengan sartzea dut nik
derrigorrezko trantzea,
zulo haunditik edo txikitik
nundik nahi dezu sartzea? (bis)

Egaña: Haunditik edo txikitik berdin
zeure modura eratu,
baina mezedez neri sarrerik
ez zaidazu minberatu,
ederki dakit zure gaitz hori
ezin leikela geratu,
baina zuk ere ez dezu gorputz

xamurrena aukeratu. (bis)

J.Sarasua: Gorputz gogorra izanda ere
badut nere zeregina,
zaudela lasai sartzean behintzat
ez dizut egingo mina,
Andoni ez zenduke beharko
ez birus, ez medizina,
bertso saioen ondoren formal
etxera joago bazina. (bis)

Egaña: Benetan gogoz entzuna dizut
lehenoko bertso alea,
disimuloan adarra joaz
kendu nahiean ilea,
sermoi luze bat kontatu digu
ta hori da seinalea,
biak batera ote zera zu
birusa eta prailea?

J.Sarasua: Birus prailea deitzen didate
ta hala nahi dut azaldu,
aizu Andoni, zure buruak
zentzurik izango al du?
Kutsatu ondoren orain arteko
ohitura guztiak galdu,
Naparroaldean ez ezazula
nere semerik zabaldu. (bis)

Egaña: Ahal baldin bada ez dut izan nahi
beste inoren hondamen,
oraindik indar haundia daukat
badabilkit nahiko kemen,
atzo Zestuan, gaur Elizondon,
ta bihar berriz Senperen,
ia birusa neuk hiltzen dudan
birusak ni hil baino lehen. (bis)

ELORRIO 1993-05-14

Bertsolariak: Maia, I.Elortza, J.Sarasua eta Egaña. Ikastolaren 25. urtemuga zela eta antolatutako saioa. Gaez, Arriola Kulturetxeko aretoan. 400 entzule inguru hurbildu ziren saiora. Arriola Kultur Elkartearen laguntza jaso zuten antolatzaileek. Gaijartze eta aurkezle lanetan Anton Mari Aldekoa-Otalora aritu zen.

Maia

GAIA: Zuri hitz bat emango dizut gai bezala: Rifi-Rafea.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ama Birjina Erkudengoa

Horren aurrean hamaika jendek
piztutzen ohi du antena,
hiruzpalau hitz entzutearren
okerra edo herrena,
horreri buruz honako hau da
pentsatu genezakena:
Ridikuloa da mundu hontan
negoziorik onena.

Ikusi ondoren pantaila aurrean
sarri egon naiz kezketan,
zergatik parte hartu horrela
era hortako festetan?
Ta Urrusolo horreri buruz
zer esan leike benetan?
Protagonista izatearren
kaka egingo luke bertan.

Bere saioak bihurtu dira
inguruan ezagunak,
jende guztiak maitatzen ditu
era hortako jardunak,
alperrik dira hitz gozoak ta
alperrikan hitz txukunak,
programa onena hori badegu
ederki gaude lagunak!

BILBO 1993-05-15

Bertsolariak: A.Lopategi, Iturriaga, I.Elortza, Respaldiza eta Intxausti. Azken urteotan, Santutxuko bertso eskolak Bilboko Udalaren laguntzarekin, udaberrian bertso saioak antolatu ohi ditu. Arenaleko plazan hasi baziren ere, Bidebarrieta liburutegiko aretoan egin dira azken ekitaldiak. Eguerdiz egin zen saioa, sarrera dohan eta 200 bat entzulerekin.

Respaldiza - I.Elortza - A.Lopategi

GAIA: Zuek hirurok disenatzaileak zarete eta lehiaketa batera kartel bana aurkeztu duzue. Epaimahaikoek epaitzeko garaian kartelak esku artean dituztenean, hiru kartelak berdinak direla ohartzen dira.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Adiskidia Andoaindikan

Respaldiza: Zer egin behar pentsatu nuen
aurretik behin ta birritan,
ta azkenean musa eder bat
etorri jatan bisitan,
hauena ikusi eta berdina
atera jaku praktikan
gauza berdinak urtetan dabe
talentu bardinetikan.

I.Elortza: Inspiratzeko ebali nitun
arreba, ama ta aita,
ez dakit hauek egingo zuten
gero egin dutena nahita,
baina mesedez lagun ezazu
talentu kontua aipa,
Juanjo zuk duzun talentu apurra
kopiatzekoa baita.

A.Lopategi: Ni hauen berbak entzunda gero
moskeatu samar nago,
hirurok kartel berdina dogu
ez al da nahiko arraro;
diseinugintzan ni beti nabil
oso abil ta ondrado,
biak kopiatu ein eustiela
esan beharrik ez dago.

Respaldiza: Ez nagizue hemen imini
kopiattaileen gisan
arte kontuak txiki-txikitan
niri ahaztu egin jatazan;
Iturriaga tartean zala
beharko dautsuet esan,
Arte Ederrak ikasten ditu
berak txibatu euskusan.

I.Elortza: Lehenago esan dut Juanjok nirea
hartuta zuen imita,
gero honenaz enteratuta
antza egin zuen korrika,
baina Aritzekin benetan nago
duda-mudatan jarrita,
fotokopia aterako zun

kopiatzen'e ez daki ta.

A.Lopategi: Ai ene! Zenbat kezka sortu dan
kartel honen inguruan!
Ta ez dakigu ideia zeinek
eduki eban buruan?
Pentsatzen nago bagagozela
egia esateko orduan,
oin lau urteko kartel batetik
hirurok kopiau genduan.

Respaldiza: Kopiatutzen hasi ginen ta
makina bat ordu extra,
pentsetan gendun sariarekin
egingo gendula festa,
hemen danori ikusi jaku
kopiatzailean kasta,
saria neutzat utzieizue
sintzeroena neu naz ta.

I.Elortza: Honek lehenengo gelditu nahi du
Aritzek berriz bigarren,
ni behintzat ez naiz larritu behar
hau ez irabazi arren;
Juanjo hartzazu saria behingoz
ta txorradak utzi hemen,
saria zeutzat utziko dugu
hoben kopiatzearren.

A.Lopategi: Baina nik ez dut barriz atsegin
holako hainbat erreparto,
gainera ezin gaitezke konpon
hirurok luzarorako;
eta badaukat ideia on bat
konponduko gara bapo,
patentea bi hauentzako ta
sari hori niretzako.

AZPEITIA (Aratz-erreka) 1993-05-15

Bertsolariak: Olaso, Maia, Euzkitze eta Loidisaletxe II. Oso entzule gutxirekin burutu zen bertso saioa. Lau bertsolari izan ziren kantari eta Nikolas Zeberio gaijartze lanetan.

Olaso - Maia - Euzkitze - Loidisaletxe II

GAIA: Lau gazte hauetatik bi baserritarrak dira, eta beste bi unibertsitarioak. Olaso eta Loidisaletxe, baserritarrak eta

Maia eta Euzkitze, unibertsitarioak. Ba al dezue elkarren inbidiarik?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Olaso: Gazte denboran ikasketetan
egin dute ahalegina,
umetatikan baserrin lanen
gu biok gendun ekina,
nahiz-ta lan hori azkenerako
ez dan oso atsegina,
jakintsuk edo tontok azkenen
gaur jornal berdin-berdina. (bis)

J.Maia: Unibertsidade alde hortan
gu gabiltza oso triste,
nahiz-ta sarritan alde txarretik
datorren zenbait albiste,
ikaslearen bizitza txarra
danikan inork ez uste,
ez pentsa inork kasualidadez
hazi naizenik hainbeste. (bis)

Euzkitze: Ikasketekin egia esan
ez det jantzi almazena,
gaijartzaileak esan duena
ez zen batere zuzena,
eta uste det bera degula
danetan aldrebesena,
ez al dakizu Euzkitze det
baserriaren izena. (bis)

Loidisaletxe: Hauek hartutzen dituzte berez
egundoko gozatuak,
lana ta holako gauza txar hoiek
dauzkate atzeratuak,
bere bizitza besten kontura
ondo asko osatuak,
ondon-ondona bizitzen dira
ikasle frakasatuak. (bis)

Olaso: Oinez ikasi eta lanean
hasi ginan derrepente,
ta hauek liburuk galtzarpen hartu
burua eskolaz bete,
beti kalean ohituak daude
juxtu-juxtu daude tente,
konpuestuakin granjan dauden
oilaskok ematen dute. (bis)

J.Maia: Olaso honek esan dunakin
egon gaitezke erreta,

konpuestua gora eta behera
hor jarri det nik arreta,
alper-alperrik egiten dezu
horrelako berriketa,
zenbat oilasko daduzkan ere
mutilak ez daki eta. (bis)

Euzkitze: Baserritikan aparte xamar
daramat bizitza dana,
baina gehiegi ez zait gustatu
Olasok bota duana,
koneju baten tankerakua
da Aiako lagun laztana,
eta jaio zan egunetikan
gehiago hazi ez dana. (bis)

Loidisaletxe: Nahiko zalantzan jarriak ditu
ikaslearen sasoiak,
sarri ez dira entzuten eta
horrelako arrazoiak,
Olaso segi aurrera ere
hauei ematen jipoiak,
oilaskorikan ez zekit dekan
alboan dituk kapoiak. (bis)

Olaso: Euzkitzeren arrazoi hori
gendun nahiko garestia,
jaio ezkerro zerbait hazi nauk
nahiz eta egon txikia,
nere amatxo oaindik bizi dek
eta nahikoa alaia,
hortik pentsatu nolakoa dan
Euzkitzen jakinduria. (bis)

Euzkitze: Aizu Olaso etxetik oso
gutxi irtena izanik,
bizitza zer dan esplikatzeke
hasi beharra daukat nik,
praka gorriak jantzita inoiz
ez zaitut ikusi oraindik,
begiratuta ez du ematen
baserritarra zeranik. (bis)

Loidisaletxe: Bikote honi tankera onik
neuk'e ez diet ematen,
ikasten duten edo ez ere
zaila dago antzematen,
baina pentsatu hauek eskolan
zer ikasi dezaketen,
beti eskolan da ez dakite
A, E, I, O, U esaten. (bis)

Olaso: Hori esaterik gaur Euzkitzek
ez nian asko espero,

bere bakerok ajatu antxak
eukiko'itu honezkero,
eskolarik ez eta tontoa
esaten ari zat gero,
lehengo astean erosi nitun
rebajan zeuden ezkerro. (bis)

J.Maia: Oso luzeak izaten dira
Loidisaletxen itzalak,
oso gutxitan ikusten dira
horren mutil zerbitzalak,
A, E, I, O, U esaten horrek
egin ditu eginalak,
kontsonanterik ez dakilako
esaten ditu bokalak. (bis)

Euzkitze: Hauek etxean botatzen dute
nekea ta izerdia,
guk beste nunbait ikasi degu
gaur dakigun pikardia,
Maia suabe mintza gaitezen
hau da arrazoi garbia,
gixajo hauek ez dute ulertzen
guk esandako erdia. (bis)

Loidisaletxe: Gu atzeratzen egin dituzte
orain ere eginahalak,
baina badakit nolako diran
ikasleen martingalak,
matematikan galderak aiba
gainera apal-apalak,
kilotan zenbat pixatutzen du
hogei erraldeko txahalak? (bis)

OIARTZUN 1993-05-16

Bertsolariak: S.Lizaso, Murua, Egaña, Peñagarikano, J.Sarasua eta J.Lopategi. XII. Bertso Astean Giriza Kultur eta Kirol Elkarteak antolatutako saioa Udalaren laguntzarekin. Madalensoro Pilotalekuan, eguerdiz eta 1000 pertsona inguru bildu zen bertara. Sarrera ordaindua. Gaiak herriko Bertso Eskolak prestatu zituen eta aurkezle lanetan berriz, Karlos Aizpurua aritu zen.

Peñagarikano - J.Sarasua - S.Lizaso.

GAIA: Anjel Mari, orain arte haurdun zinen, erditu eta seikiak izan dituzu. Erditze horretan Sebastian izan da aurrena ateratzen eta Sarasua azkena.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Peñagarikano: Orain amatxo egin naiz eta
nago pozik eta alai,
hilabetetan hortxe egon naiz
eguna noiz helduko zai,
eta erditze lanetan gogor
esaten nun "Ai eta ai",
azkenekoak lana ez dit eman
baina aurrenekoak bai. (bis)

S.Lizaso: Lasaitu, ama! Trantze txar denak
zuretzat pasiak daude,
nahiz-ta zerrendan nor zen aurrena
barrendik ez gendun galde,
haundiena zen lehenbizikoa
eta zeuretzat mesede,
azkenengoa egingo zendun
batere sufritu gabe. (bis)

J.Sarasua: Ni ondo nengon eta haundiak
atera nahi zuen garaiz,
ni azkenengo izanagatik
ez naiz haundi horren bekaitz,
tripa barruan ateratzeko
beldurrez egon arren maiz,
horren burua pasa ondoren
oso errez atera naiz. (bis)

Peñagarikano: Izugarria dela uste det
gu andreon almazena,
nik zaharrenari jarriko diot
Sebastianen izena,
kilo ta erdi azkenengoa
ta lehenengoa gizona,
bati titia eman beharko
ta besteari Maizena. (bis)

S.Lizaso: Egin gaituzu ta mantentzeak
badu bere garrantzia,
ama mesedez entzun ezazu
semearen irrintzia,
haundiena naiz oraindik ere
nik nahi nuke haunditzia,
beraz titia hartzerakoan
nik daukat preferentzia. (bis)

J.Sarasua: Haundien horrek ateratzeko
beti izan du asmoa,
oso normala ez ote degun
beti izan det susmoa,
tripa barruan beti gu jotzen
hau ez da anai sanaa,

hori kanpoan baldin badago
ni berriz barrura noa. (bis)

Peñagarikano: Negar da negar ari dira bik
eta ez dira isiltzen,
gaurtik aurrera saiatu behar
nere umetxoak hazitzen,
komadrona ere ni bezelaxe
hortxe egon da sufritzen,
bi ordu ta erdi behar izan ditu
honen burua garbitzen. (bis)

S.Lizaso: Zuk diozunez ondo garbitzen
izan dezute nahiko lan,
hala ta guzti ama haurrikan
zuk ez baztertu inolan,
nere pixuan erdia hartu
horrek nik aina denboran,
taila normala iritsi arte
sar zazu inkubadoran. (bis)

J.Sarasua: Anai haundia normala denik
neri ez zait iruditu,
ama maitea tripa barruan
ai, zenbat degun sufritu!
Seme zaharrena egin dezu ta
begitu iozu, begitu!
Gu hasieran zortzi ginan da
zaharrenak biak jan ditu. (bis)

Peñagarikano: Nik sei ume gaur izan ditut ta
ibili naiz ezinean,
bainan hala ere ni salbo nago
zerbait badet barrenian,
ta alkarrekin jarriko ditut
nik sehaskan sukaldian,
esango dute kukukumea
txantxangorrian kaban. (bis)

S.Lizaso: Arren ez utzi besteren esku
egin zazu ahalegina,
hazteko ere errezago zan
biok berdinak bagina,
seguru nago ama ni nauzu
lehenbiziko etekina,
ta anai txiki hori bai dala
azkeneko zipristina. (bis)

J.Sarasua: Egia esan anai guztiak
ez gera berdin etorri,
halare nahi dut familia hau
bere onera ekarri,
konpon gaitezen gure bizitza
izan dadin eamangarri,

guri titia emaiguzu ta
haundiari behi bat jarri. (bis)

**S.Lizaso - Murua - Egaña - Peñagarikano - J.Sarasua -
J.Lopategi**

GAIA: Saioa ere bere erdira iritsi da edo lehen zatia egin du
behintzat, beraz, publizitateari tarte txiki bat egingo
diogu. Baina guk oraingoz ez dugu esponsorrik eta sei
bertsolariei anuntzio bana egitea eskatuko diet.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Anai arrebak hementxe nator

S.Lizaso: Okasioa badaukat eta
alperrik zergatik galdu?
Gauetz ez degu asko eskertzen,
goizean berriz ugaldu,
Pikolin edo koltxoien fama
hemen nahi nuke zabaldu,
zoritxarrean bart arratsean (bis)
nahiz eta gutxi zapaldu.

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Aita asmo hartu det

Murua: Erdi kalbo bazaude
mesedez adizu:
Ez izan Egañak
duen hainbat izu,
asun urez burua
garbitu ezazu,
hilean behin orraztu
ahal baldin badezu,
ile kizkur edarra
aterako zaizu. (bis)

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Anai arrebak hementxe nator

Egaña: Txukuntzio degu deterjente bat
ta sortuko ditun saltsak...
Txuriak txuri uzten badaki
bapo kentzen ditu mantxak,
Txukuntziok baietz errez hobetu
beste guztien emaitzak,
begira nere alkandora ta(bis)
begira Peñaren galtzak.

Neurria: 10ko txikia
Doinua: Ai gure antzinako

Peñagarikano: Publizitateari
ondo errepara, (bis)
Luter King azaldu ta
beltz zikina laga,
Baldano azaldu ta
hori sudaka da,
Oskar Wilde azaldu ta
marikoia hara,
horiek danak baino
gehiago al zara? (bis)

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

J.Sarasua: Jaurlaritzaren mezua da hau
guztioi emateko hats,
erronka latza dugu aurrean
eta goaz Europarantz,
Euskal Herritar maitagarria
lan egin behar dezu latz,
Egaña eta Peñak bezela
izan zazu zero akats. (bis)

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

J.Lopategi: Publizidade mundua degu
abila eta trebea,
baina itxuraz nor izango da
ni naizen baino hobea?
Udaberrian denak izan nahi
kolore onaren jabea,
txapeldun honek ekar dizue
hortarako jarabea. (bis)

ORIO 1993-05-22

Bertsolariak: S.Lizaso, Euzkitze, J.Sarasua, Olaso, Egaña eta J.Lopategi. Kultur ekintza bat antolatzea zen saioaren helburua. Herriko Ikastolak antolatua. Gaez eta pilotalekuan burutu zen 600 entzulerekin. Sarrera ordaindua. Gaijartze eta aurkezpen lanak Pello Urretabizkaiak burutu zituen.

S.Lizaso

GAIA: Zuk Sebastian, larogei urte dituzu. Bertsolaria izana zara, baina gauzak ez zaizkizu hain ondo joan eta beharrak jota kalera irten zera gaur, kale eskin batean bertso kantari ari zera... Baina orain arte behintzat ez dizute sosik ere bota. Ea orain kantatutako hiru bertsoen ondoren gauzak aldatzen diran...

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Ez nuen uste zahartzaroa
hain gauza gogorra zela,
gazte denboran zentzu gehiago
izango nuen bestela,
kale ertzean kantatu ta kanta
baina hutsik det txapela,
ta ohartu naiz bakar bakarrik
orain gelditu naizela,
udazkenean zuhaitz gehienak
ostorrik gabe bezela. (bis)

Garai batean ibiltzen nitzan
herri batetik bestera,
zahartu naiz ta soldatarik ez
hutsikan daukat kartera,
kale ertzean eskean baina
neronentzako kaltera,
egun osoa hemen pasa ta
sosikan ez det atera,
lagunak ere joaten al dira
sasoiarekin batera? (bis)

Nere barruan nabaritzen det
korapilo nabarmena,
okerrena da urteen soka
bizirik ezin etena,
bizi nahiean deadar hau da
barrenetikan ertena,
neure buruaz neuk sufritu ta
gozatu ohi det gehiena,
lehen izanaren poza badaukat
ta orain naizenan pena. (bis)

OÑATI 1993-5-22

Bertsolariak: J.Agirre eta Lazkano. Urtero egin ohi den bezala, Larregain Elkartek antolaturik eta honen egoitzan, Emilio eta Andresen omenezko bertso afari bikain bat izan zen 300en bat afaltiarrekin. Gaijartze eta gidaritza lanak, Nikolas Seguiolaren zeregina izan ziren.

J.Agirre - Lazkano

GAIA: J.Agirre baserritarra izango da, dan bezelaxe, lanean aspertuta edo oso nekatuta zuhaitz baten azpian zegoen jarrita eta kukua etorri zaio gainera eta desafio bezela, kantuan, lanean hasteko esanez. Kuku hori Lazkano izango da.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Andre Madalen, andre Madalen

J.Agirre: Makinatxo bat udaberritan
nik pozikan dizut entzun,
aurrera ere izan dezadala
hortako behar hainbat zentzun,
baina uste det amenazu bat
gaur egin ote didazun,
eta zedorrek esplika zazu
zenbat lan egiten dezun.

Lazkano: Nere lana da hemen kuku ta
gero hemendik trotea,
gisa hortara beti bezela
igaroa zait urtea,
ta zuri berriz gustatzen zaizu
zugaizpean egotea,
juan dan urtetik hazi zaizkizu
sasia eta otea.

J.Agirre: Hotz eta bero pasatu ditut
hamaika egun nahasiko,
ez det esaten ez zuanikan
sasiak irabaziko,
urtean ume bat sortutzea da
kukuzar honen graziko,
txantxangorria lagun ez balu
berak ez luke haziko.

Lazkano: Baina ez det uste ez dagonikan
hemen ni bezain alperrik,
zedorrek ere egiten dezu
hortan talentu ederrik,
ikusten nago lurra jo dute
makinatxo bat baserrik,
aurki kukua jo beharko det

basahuntzentzako bakarrik.

J.Agirre: Baserri hoiek eroritzeak
ez dizu egiten grazikan,
neronek ere hala ez balitz
nahiago nuke kasikan,
baina zuk ere ez dezu egiten
zuk aparteko gauzikan,
negua nola pasatzen dezun
jakingo nuke pozikan.

Lazkano: Udarlan lana egiten det nik
eta neguan suabe,
horretarako bizimodua
bilatutzen det zu gabe,
bertsolaria zeran ezkerero
nahiko pordila zerade,
zuk ez bait dezu gure gisara
kantatzen kobratu gabe. (bis)

J.Agirre: Udaberrian zu izaten zera
udaberiaren mezu,
eguzkiak'e goizean goizik
eman izan dizu musu,
baina San Pedro inguru hortan
berriz aldeiten diguzu,
ta lagun zendun txantxangorria
hura eskertzen al dezu?

Lazkano: Ez pentsa gero hainbat gorroto
duanik nere bihotzak,
eta ez nago urtean zehar
egindako lanen lotsak,
txantxangorrian sari kontuak
ez dirade oso motzak,
aurtengoz ere gaixua zegon
kukua etortzeko pozak.

J.Agirre: Txantxangorria pizti umila da,
ez da izaten harrua,
baina harek'e lagundutzeko
zuri badu amorrua,
kuku ta kuku pasatzen dezu
lau hilabeten barrua,
zure aldean politik dira
xoxo ta birigarrua

Lazkano: Bere ustetan mintzakera hortan
hemen egin nahi du grazi,
barkatu baina bertsolaria
adarra jotzen ez hasi,
nola jokatu bertsolariei
nik bai nioten ikasi,
berak kantari dabilta eta

andreak umeak hazi.

J.Agirre: Bertsolariak ez gera izango
esan dezun hainbat traste,
lau seme-alaba hazi ditugu
saiatuz jai eta aste,
eta zu berriz ume batekin
kuku eta kuku triste,
mutuak ere egin izan du
zuk eiten dezun hainbeste.

Lazkano: Entzulegoa nola dadukan
bere eskura gaurkuan,
gure gizona isildutzerik
ez dago berehalakuan,
baina ez dago alde haundirik
bertsolari ta kukuan,
etxean kabroi gerade baina
oso politak kanpuan.

ZARAUTZ 1993-06-5

Bertsolariak: Egaña, Sorozabal, Euzkitze, Iturriaga, Olaso, J.Lizaso eta M.Arozena. Bertsolari Elkarteak, Elkartearen diru beharrei aurre egiteko 6 bertso saio antolatu zituen "Ari naizela, ari naizela..." kanpainaren barnean. Sarrera 800 pezeta kobratu zen eta Polikiroldegian burututako saio honetara 545 entzule hurbildu ziren. Joxerra Garzia izan zen gaijartze eta aurkezpen lanen ardura bere gain izan zuena.

Olaso - Sorozabal

GAIA: Olaso, kaso honetan, Pagoetako guarda izango degu. Duela bi aste Sorozabalek gau baterako kanpindenda jartzeko baimena eskatu zian eta eman hioan eta gaur joan haiz eta oraindik han ziok.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Olaso: Tienda kanpaina jarritzekoa
gau bateko genun zita,
uste gabe bezperatikan
egin bai zidan bisita,
hamabost egun pasatu dituk

harritu nauk ikusita,
motel hori dek abusatzia
abusatutzen hasita! (bis)

Sorozabal: Kanpin zelai bat ba omen zala
Pagoetan inguruan,
sartu ninduen ta orain dago
hori egindako damuan,
sarri Pernando amezketarrak
egiten zuen moduan,
noiz joango nitzan esan nion nik,
ez noiz aldegingo nuan.(bis)

Olaso: Mutiko honek pentsatzen jarri
eta egin dit galanta,
hamabost egun igaro dizkit
aguanta eta aguanta,
motel aldeizak hemendik eta
ez zak eman hainbat lata,
bestela laster aldein beharko dek
kanpina bertan lagata. (bis)

Sorozabal: Baina zergatik handik kanpora
inor bialtzeko grina,
ez nuen uste zinanik horren
gogorra ta ezjakina,
neska polit bat eramane nuen
horrek eman dizu mina,
zuk dezuna da besteren onik
inun ikusi ezina. (bis)

Olaso: Tranposoa ta enbustera
kolpetik diot igarri,
gezurra esanda kolore hoiek
ez zaizkio jartzen gorri,
berak dionez neska polit bat
hartuta zala etorri,
hemen gehiago egon nahi badek
beste bat azkar ekarri. (bis)

Sorozabal: Pertsonak ezin egin lezake
eskatzen duen guztia,
lehen daukadana bilatzea're
baita ederki kostia,
orain nahi luke besten neska bat
hemen beretzat uztia,
hemen sarrera merkea dago,
baina IVA garestia. (bis)

Bertsolariak: S.Lizaso, Egaña, Murua, Telleria eta Mendizabal. Bergarako auzo honetan Ottaba jaietako saioa. Jai batzordeak antolatua, Udalaren laguntzarekin. Eliza barnean egin ohi dira bertso saioak herri honetan. Gaez burutu zen, sarrera dohan eta 300 bat entzule hurbildu ziren bertara. Balendin Gabilondok bete zituen aurkezle eta gaijartze lanak. Gorabehera handiko saio nahiko arraroa atera zen.

Mendizabal

GAIA: Azken urteotan, Bosnia-Herzegovinako gerra dela eta, zenbait emakume eta ume bortxatu dituzte. Ba al da arraizorik hortarako?

Neurria: 10eko txikia

Doinua: Espainian behera

Balkanetako gerrak
dirau urtebez,
eta itxura onik
han ez dago batez.
Bortxakeriak nunahi
ta haurrak negarrez;
konponbide izpirik
ez dago, tamalez...
Arrazoirik ez dago
ta hitzik ere ez.(bis)

Hango triskantzak eta
hango sarraskiak,
hango armen hots eta
hango angustiak;
etxe eta kaleak
odolez bustiak,
argirikan ez dauka
pake eguzkiak...
Lotsatu behar ginake
gizaki guztiak.(bis)

Gure partaidetza ere
ez da noski hutsa,
denon esku baitago
pakearen funtsa.
Han dute herioa
ta dute gurutza,
zerbait bidal dezagun
hemendik haruntza:
lehenbizi kontzientzia
ta gero laguntza.(bis)

ERREZIL 1993-06-12

Bertsolariak: Murua, Loidisaletxe II, J.Lopategi, Maia, Olaso eta Sorozabal. Herriko jaietan burututako saioa. jai batzordeak antolatua, Udalaren babesean. 200 bat entzule bildu ziren, gauez, herriko pilotalekura. Gaijartze eta aurkezpen lanetan: Manuel Agirretxe. Sarrera dohan. Saio hotza eta ez zen oso puntakoa atera.

Murua

GAIA: Iñaki, gaur hire semetxoak galdetu dik: "Zer da tortura?"

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

Galdera hori erantzutea
ez da hain zaila benetan,
probatu ez duen asko ez dago
gure Herri zahar honetan:
hartzen zaituzte zakurtzar hoiek
gauez beren eskuetan,
eta kolpeka gau osoz euki
busti arte odolatan.

Esposak lotu ta ostikoka
bota gelaren baztarren,
gero kolpeak eta galderak
berriro ahalik azkarren.
Azkena esan beharrekoak
botatzen dizute aurren,
eta, semetxo, hori guztia
euskaldun izatearren.

Gero ondoren, nahi eta nahi ez,
probatzen da espetxea,
azken urtetan abertzaleon
gure bigarren etxea,
ta han sarritan gertatu ohi da
ajolik gabe hiltzea...
Hauxe bakarrik nahi dut zuretzat:
torturaik ez probatzea.

LEKUNBERRI 1993-06-13

Bertsolariak: Mañukorta, M.Arozena, Telletxea, E.Arozena, Sorozabal eta Lazkano. Euskararen Eguna burutu zen egun honetan. Pilotalekuan antolatu zuten bazkariaren ostean kantatu zuten bertsolariek. IKA euskaltegia izan zen antolatzaile; sarrera ordainduta izan zen saioa. Gaijartze eta aurkezle lanetan: Bittor Elizagoien, 400en bat entzuleren aurrean.

Mañukorta - M.Arozena

GAIA: Mañukorta, gezurra irudi badu ere, mediku ospetsu bat dugu, operatzen aritzen den zirujanoa. Gaur kirofanora joan zara, pertsona bat operatzera, eta nor izango, eta zure etsairik haundiena: M. Arozena han dago mahaian etzanda.

Neurria: Kopla nagusia
Doinua: Bedeinkatua izan dedila III

Mañukorta: Mundu honetan bizi izateko
danok maitatzen deu, baina
ahalbait ondoen sendatu nahi det
nere etsairik haundina.

M.Arozena: Nahita ere ezin ongi egin nik
sendagileai harrera,
esan zaidazu zuk zein lekutan
egin zenduen karrera.

Mañukorta: Unibertsidade batean nik
ikasi oso astuna;
behar bezela sendatuko det
zuk daukazun osasuna.

M.Arozena: Honen aurrean hemen nago ni
aguanta ezin dan minez...
Gizarajoa, albaiteroa
izango da hau gutxinez.

Mañukorta: Karrera on bat egina daukat
berdin lur, zeru ta lainu.
Euskal Herriko onena degu
hemen gaurkoz "Doctor Mañu".

M.Arozena: "Doctor Mañu" honek sendagiletan
egina du bere plana,
baina, mesedez, oraindik neri
zuk ez gaur sartu labana.

Mañukorta: Arnasa ere juntu-juxtuan
zuk dadukazu hotz-hotza,
lehengua kendu ta ipiniko'izut
arkume baten bihotza.

M.Arozena: Arkumearen bihotzarekin
ez naiz ongi ibiliko;
seguru asko akabo bertso,
oraingotikan naiz hilko.

Mañukorta: Ez zaitez jarri mediku on bat
bildurrarekin tentatzen,
arnasarekin ikasiko'ezu
bertso hobiak kantatzen.

M.Arozena: Medikutzako tipo raro hau
ez dut inolaz onartzen,
honek bakarrik nola dakien
behian azpik ateratzen.

Mañukorta: Buruak ere jarritzen ditut
oso argi eta txukun:
horren ondoren irtengo zera
Euskal Herriko txapeldun.

M.Arozena: Berriro ere hemen ari da
fanfarroi baten antzera;
ez zera txarra, egia esan,
hortako kapaz bazera.

Mañukorta: Halabeharrez egiten badet
egiteko ahalegina,
edoertako ipinitzen det
nik gizonaren makina.

M.Arozena: Gerritik behera ez nago gaizki,
gerritikan gora dūda,
eta bildurrez operatzera...
Zer animala heldu da?

Mañukorta: Zu lasai-lasai etorri zaitez,
Naparruako kaikua;
goi parteā nik konponduko'izut
ta andreak azpikua.

M.Arozena: Oraindik nago mundu honetan
asko bizitzen egarri;
mesedez, behintzat, zuk daukazunik
neri ez zaidazu jarri.

Mañukorta: Hogei urtian ikasi nuen
"Doctor médico" eskola,
ta hiru saltoz jarriko dizut
gerri azpiko pistola.

M.Arozena: Pistola kontuk aipatu ditu
Dotor Mañuk berehala;
itxusia ta, igerri diot,
gainea marikoia dala.

Mañukorta: Gaizki esanda oin ekarri nau
ni gaixo honek letxera;
nahiko milagro egin det eta
orain goazen etxera.

OLABERRIA 1993-06-18

Bertsolariak: Irazu, Lujanbio, J.Sarasua, S.Lizaso, Egaña eta Peñagarikano. Herriko jaiak zirela eta, jai batzordeak antolatutako saioa, Udalaren laguntzarekin. Plaza librean gauez eta dohaneko saio honetara 600 bat pertsona hurbildu ziren. Gaijartze eta aurkezle lanetan Joxepa Madariaga aritu zen.

Irazu - Lujanbio - J.Sarasua

GAIA: Hemen dauzkagu erlauntzian hiru erle: Maddalen, erregina;
erle alperra, Irazu; eta langilea, Sarasua.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Adiskidia Andoaindikan

Lujanbio: Erle hauekin tokatuko zait
panorama nahiko ilun,
jarrai xamarrik ezin baitira
bi hauek lanean jardun,
ta langileai esan nahi diot,
mesedez, zuk ondo entzun:
erle alperra ia behingoan
espabilatzen didazun!

J.Sarasua: Hara ta hona ni beti nabil
lanaren ahaleginean;
nere alboan dagon alper hau
nago ikusi ezinean.
Inoiz kolperik ez digu jotzen
ta ezta mingainean,
ta gero beti bera jartzen da
erreginaren gainean.

Irazu: Normala denez, ezin abitu
plan egiteko bidian;

zoriona ta lan egitia
elkarrengangik aldian.
Ai, erregina, arrautz txikiak
jartzen dituzu kabian!
Ai, erregina, ze eingo zenduke
zanganorikan gabian?

Lujanbio: Nere gainian jarri ta ez jarri
zergatik ez da isiltzen;
erregina hau holakoetan
ez da askotan aritzen,
eta alperra saiatze'ez bada
loreen hauts hori biltzen,
laister baino lehen jarri behar det
nere ingurua garbitzen.

J.Sarasua: Zangano honek sekula ez du
lanikan egiten bate;
beste bi hauen bizimodua
langileontzako kalte;
eta, gainera, honek gauero
erregina digu maite...
Besteik ez bada noizik eta behin
nere gainean jar zaite.

Irazu: Gauza haundirik ezin det egin
horren gauza txikiekin;
hemen gustorik ez badezu zuk,
beste batera aldegin;
ta erreginan agindu hori...
Ez al du gaizki hitzegin?
Lore-hautsak biltzen... Nahikoa ez al det
lore-hautsak botatzeakin?

Lujanbio: Langileai're langile antzik...
nik ez diot bate ematen;
ta beste lanak egitekotan
aze gogoa daukaten...
Ta alper horrek "hautsak botatzen"
esan du halako baten;
horrek nei ez dit ez eztirik, ez
eztitasunik ematen.

J.Sarasua: Erregin honek lan egin gabe
pribilejio txokoa,
ta beste honek beti izan du
engainuaren jokoa.
Gizon artean ere daukagu
oso kuadro antzekoa:
Hau erregea, ni langilea
eta hau politikoa.

Irazu: Gauza onikan ez degu gero
dena politizatuta!...

Lore guztiak jarri itzazu,
denak polenizatuta;
ta erregina ondo zaudenik,
noski, ezingo dezu uka,
eztia jan da arrautzak egin,
beste lanik ez dezu ta.

S.Lizaso

GAIA: Lizaso, haurdun dagoen emakume bat dugu, entzun eta irakurri du, nahiz eta oraindik jaio ez, barruan dagoen haurrari hitz egitea oso ona dela. Hitz egion barruan dagoenari.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago

Aitak hazia erein zulako
nere baratzen, itxuran,
orain ernetzen ari zerade
jaiotzea dan helmugan.
Nik maitekiro mintzatu nahi det,
ez naiz ibiliko dudan,
jaiotzerako jakin dezazun
zeinen maitea zaitudan.

Bere garaian etorri zaitez,
ez agertu ezustean;
eta partoan, ene umetxo,
burua erakustean,
sendagile edo emagileak
zilborrestea haustean,
pozaren pozez negar eingo det
zu negarrez ikustean.

Orain artean zilborrestetik
dizut jakiak emanak,
baina mundura zatozenez
aldatzen dirade planak:
jakin ezazu bi bular goxo
izaten ditula amak...
Bizi iturri izango dira
aitan jostailu izanak.

LESAKA 1993-06-19

Bertsolariak: J.Lizaso, Euzkitze, Egaña, Gorrotxategi, Elizagoien eta M.Arozena. Bortzirietako lau bertsolari helduei omenaldia: Josetxo Iantzi, Luis Olaetxea, Maurizio Mitxelena eta Dionisio Mujikari. Beti Gazte K.J.E.-k antolatua, Udalaren laguntzarekin. Pilotalekuan, gauetz, sarrera ordaindua eta 500 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanak Iñaki Perurenak burutu zituen.

Elizagoien - Egaña

GAIA: Andoni medikuarenera joan da Bittor, bularreko mina zuelako. Erantzi ostean eta goitik ikusmira dionean, medikuak jazteko esan dio. Medikua eseri, puru eder bat piztu eta gaitz guztiak tabakoak eragin dizkiola esan dio bezeroari.

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Nere senarrarekin

Elizagoien: Aspalditikan zerbait
nola nun susmatzen,
eta zer nuen ez zun
inorek asmatzen;
zigarroak ditula
horiek ekartzen,
zerorri zer ai zera
puro bat fumatzen? (bis)

Egaña: Bittorrek zeukan arnas
hartuta ta ezina,
bihotzean puntadak
sabelean mina;
mediku jaunak badu
erretzeko grina,
pertsonak ez daukagu
arraza berdina. (bis)

Elizagoien: Zure esan horrekin
ni ados ez nago,
alperrik egin dezu
hortikan esklabo;
ni gaizki nago eta
zu berriz flakoago:
ni laister hilko naiz ta
zu, berriz, lehenago. (bis)

Egaña: Harro ipini zaigu
alajaingoikua!
Nere errezetakin
ez al zan nahikua?
Ados ez dagoela...
hau da hau kaikua!
Hemen zu edota ni,
zein da medikua?. (bis)

Elizagoien: Harroketan bakarrik
dauka urguilua...
Burua soildu eta
agur frekilua;
mediku gisan ere
nahikoa txulua.
Norek eman ahal zizun
zuri titulua? (bis)

Egaña: Orain esan duena
ez al da grabea?
Ahoa ixtea zen
zuretzat hobea;
hau da tipo zikina,
hau lotsagabea!
Enfermera, prestatu
faktura doblea. (bis)

Elizagoien: Faktura kobratzeko
hartu du itxura;
hortako badaduka
berak nahiko gura;
ez dakit nundik jaio
ote zan mundura,
askoz gehiago dauka
porreta itxura. (bis)

Egaña: Aizu, Elizagoien,
ibili suabe...
Konsultan sartu eta
ze kalamidade!
Diferenteak gera
dudarikan gabe:
nik erre egiten dut,
zu erreta zaude. (bis)

Elizagoien: Bere burua ontzat
nola dun sentitzen,
gizarajoa dago
nahikoa sufritzen;
hezurra besterikan
ez zaio gelditzen,
suak hezurrik ez du
sekulan erretzen. (bis)

Egaña: Kliente honek daukan
mintzatzeko grina,
oraintxe aritu da
loroak adina:
"bihotzeko ziztadak
ta petxuko mina...".
Zure gaitza ez al da
isildu ezina? (bis)

Elizagoien: Isildutzeko ere
ni nola naizen gai,
zure ondoan, behintzat,
gaur ez nago alai;
orain noa hemendik,
egon zaitez lasai!
Eta faktura pasa
herriko apaizai

Egaña: Ez da bate normala
zure kolorea:
arpegi zuria
betondo morea;
fakturaren hori zan
sake dotorea,
apaiza al dezute
enterradorea? (bis)

TOLOSA 93-06-19

Bertsolariak: J.Sarasua, S.Lizaso, X.Zeberio, Munduate,
Lazkano, J.Agirre, Irazu eta Murua. "Ari naizela, ari
naizela..." kanpainako saioa. E.H.B.E.-ak antolaturik. Beotibar
pilotalekuan, gauetz, sarrera 800 pta eta 740 pertsona.
Tolosaldeko bertso eskolak burutu zuen gaien prestaketa eta
aurkezle lanetan Felix Irazustabarrena aritu zen.

J.Agirre - Munduate

GAIA: "Munduatek neska bati erregalia egin nahi dio, baina ez
daki zer erregalatu. Hau dela eta, Agirrereengana joan da
kontseju eske".

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Zeru altuan zegoen jaunak

Munduate: Hauxen da trantze estua eta

hauxen da trantze zorrotza!
Larrosatxo bat badut barnean,
baina gaur nago mingotsa.
Erregali bat egin nahi diot
ta agertu nire poza,
eta berekin neureganatu
haren betiko poza.

J.Agirre: Aldamenetik jotzen hasi zait
uste ez nuen orkesta;
ezjakina naiz, baina nik orain
egin nahi diot protesta:
gaurko gaztea izatekotan
hau oso bizkorra ez da,
neskatxa bati zer erregalatu
aitona bati galdezka.

Munduate: Erantzuteko gogo haundirik
ez dadukazu orduan...
galdetu eta ikasten degu
gazteek gaurko munduan.
Zu're portatu izan bazina
gizon jatorran moduan,
neskatxa bati zer erregalatu
jakin beharko zenduan.

J.Agirre: Nere garaian izan nuen nik
argia eta zentzuna:
neskatxa bati ematen nion
berak asko maite zuna;
garbiago esango nizuke
ez balitz gauza lizuna...
erregalorik ederrena da
gorputzean daukazuna.

Munduate: Nola arraio trata liteke
horrela mutil gazte bat!
Zuk badakizu, nik ere badet
ondo gorderik traste bat.
Hori ona zala lehenago ere
euki izan det uste bat;
hori lehenago emana daukat
orain nahi nuke beste bat.

J.Agirre: Nondik erantzun behar diotan,
nik dadukatan trantzea!
Orain hizketan ez zera hasi
nik uste nuen antzea:
nekin enterau eta nahi dezu
neska bat gonbidatzea;
gero zedorri aproetxatzeko
hau da tontotzat hartzea!

ERRIGOITI 1993-06-20

Bertsolariak: J.Enbeita, A.Lopategi, J.Sarasua, Areitio eta Iturriaga. Herriko jaietako saioa, jai batzordeak antolaturik Udalaren laguntzarekin. Eguerdian, herriko plazan eta Jon Mikel Omagojeaskoaren esanetara.

Iturriaga

GAIA: Euskal Entziklopediarako zure laguntza eske etorri dira.
"B" Tomoan hau ipini behar duk: BERTSOLARIA...?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: San Barbara zure bizitza III

Definizio bila dabilta
hortik hainbeste artista,
nik eman nahi nuke gaurkoan
eta badaukat bi pista:
Sarasua da sasi-intelektual
herrikoi eta anarkista,
eta bestetik Aritz daukagu
golfo eta parrandista. (bis)

Bertsolariak beti izan du
gizon golfoaren fama;
dana ez da egia, ez da gezurra,
ez da sinistu behar dana;
definizio txiki bat daukat
azken orduan emana:
herririk herri lau gauza esanda
"como Dios!" bizi dana. (bis)

URRESTILLA 1993-06-25

Bertsolariak: S.Lizaso, J.Sarasua, Mendizabal, Peñagarikano, Egaña eta Lazkano. Herriko jaietan, jai batzordeak Udalaren laguntzarekin antolatutako saioa. Pilotalekuan, gauez eta 600 bat entzule. Sarrera ordaindua. Gaijartze eta aurkezle lanetan Pako Aristi idazlea aritu zen. Megafoniak ez zuen ondo funtzionatu eta entzumenean arazoak egon ziren.

S.Lizaso - J.Sarasua - Mendizabal

GAIA: S.Lizaso, Euskal Herriko Lehendakaria dugu, Jose Antonio Ardantza; Mendizabal, langabezian dagoen sendagile bat; eta Sarasua, 40 urte Asian misiolari pasatu duen erlijioso, eta orain Euskal Herrira itzuli dena. Duela aste gutxitako hauteskunde hoietan entzun ditugu Euskal Herriari buruzko gauza asko: egoerari buruz, nola dagoen, gaizki, hobeto, langabezia, burruka armatua... Hainbat gauza, ezta? Orduan, ba, pertsona hauei eskatuko nieke beraien iritzia Euskal Herriari buruz.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

S.Lizaso: Galdera hori neronek ere maiz egiten det, tamalez; baina mamira ez gera heltzen, justuan gabiltz azalez; egoera hau nola konpondu asmatzea ez da errez; gaizki dagola denok dakigu, nola konpondu inork ez.(bis)

Mendizabal: Ez da normala medikuari egokitzea parua; zer ta nola egin badakit eta hau da nere helburua: osasunean ipintzekotan Euskadiko ingurua, lehendabiziko sendatu behar da politikoen burua. (bis)

J.Sarasua: Berrogei urte oraintxe dira Indiarra joan nintzala, galdezka nator eta nahi nuke horrek erantzun dezala; oso oinarritzko galderatxo bat egin nahi dut berehala: egia al da Euskal Herriko Presidentea zerala? (bis)

S.Lizaso: Jakin nahi dunak galdezka hasi horrek ez dauka gaitzikan, eta ahal bada ez det esango komeni ez dan gauzikan. Ebanjelista, hemen, mesedez, zuk ez nahastu hitzikan: Presidentea ez dut izan nahi, Lehendakaria baizikan. (bis)

Mendizabal: Mediku honek aterea du

diagnostiko bortitza,
ta aztertu det nolakoa dan
aberri honen bizitza:
Madritarrari aurka eginda
bete zazu herriko hitza,
eta orduan sendatuko da
Euskal Herriaren gaitza. (bis)

J.Sarasua: Enteratu naiz ni Gipuzkoaz
Bizkaiaz eta Arabaz,
eta jakin dut gobernutikan
hartu ohi dutela arnas.
Buesa ta hoiek omen dituzu
zure gobernuan nahas;
nola arraio moldatzen dira
ez badakite euskaraz? (bis)

S.Lizaso: Sozio batzuk baditudala,
hori gauza nabarmena;
haiek euskera ez jakitea
nik ere hartzen det pena;
berriro ere, ordea, berak
lortu dute garaipena:
irabazleen gurdia ohi da
gehien korritzen duena. (bis)

Mendizabal: Gauza zaila da ta itsusia
gaur egungo politika,
osasanari begira gabe
bete baidegu patrika;
euskaldunaren tumor txarra da
dabilkigun hika-mika,
abertzaleon batasuna da
hau sendatzeko botika. (bis)

J.Sarasua: Beste galdera inuzente bat
behar dizut orain bota;
Euskal herrira etorri naiz ta
gelditu naiz erdi jota:
bukaturikan omen da euskara
ta Euskal Herriko borroka,
orduan zertan arraio dabiltz
gizajo batzuk tiroka? (bis)

S.Lizaso: Oraindik ere ari zerade
neri gauz batzuk galdetzen,
saiatuko naiz zure buruan
daduzkazun dudak kentzen;
arrazoi dezu, une txarrena,
nere ustetan, joan zen..
Ez al dakizu? Fedeak ez du
gauza guztia konpontzen.(bis)

Mendizabal: Misiolaria mintzatu zaigu

une honetan estu ta
Euskal Herriko egoera hau
ezin liteke izkuta:
batetik tiro, bestetik tiro,
denok gabiltza nahastuta,
pomadatxo bat gainean jarritz
gaitzan sustraia ahaztuta. (bis)

J.Sarasua: Alde batetik hemen gatazkaz
guztiz harrituta nago,
ta beste batzuk pintatzen dute
ezer baino normalago.
Berrero ere Txinara noa
eta ez nator gehiago,
nere Euskal Herri maite honetan
ziniko gehiegi dago. (bis)

USURBIL (Kalezar) 93-06-26

Bertsolariak: Sorozabal, Sarriegi, Mendizabal eta Lazkano. San Juan jaietan auzoko jai batzordeak antolaturik, Udalaren laguntzarekin. Felix Aizpurua Enparantzan, aide librean, gauez eta sarrera dohan. Bota Punttuba Bertso Taldea gaiak jartzen eta Inaxio Usarralde aurkezle lanetan. Entzule urriko saioak aparteko giroa bizi izan zuen.

Mendizabal - Sorozabal

GAIA: " Petsona baten bi begi zarete. Berau betokerra denez,
Mikel begi ona eta Jokin betokerra izango da. "

Neurria: 8ko txikia
Doinua: Minberatu zaizkigu

Mendizabal: Bi begi diferente
gaituzte berezi,
ta biok badaukagu
nahikoa desgrazi:
batera ta bestera
begiraka hasi,
zuzen begiratuta
dena oker ikusi.

Sorozabal: Begi okerra ez da
hain gauza normala,
baina aitor dezagun

beharrezko dala;
nola bidea sarri
ohi degun zabala,
nik hura ikusten det
hara nihoala.

Mendizabal: Egin beharko degu
boion arten tratu:
gauzak nola ikusi,
nola begiztatu.
Jendeak ere badu
endreduz pekatu,
begira hasi ta ez daki
nori begiratu.

Sorozabal: Begi okerrarentzat
txarrak dira sonak,
desgrazi bat du hori
gertatzen zaionak,
baina begi okerrak
dira gauza onak:
ikuspegi zabala
behar du pertsonak.

Mendizabal: Ez didazu plazara
arrazoi ederra;
ikuspegi kontuan
badaukagu gerra,
bati begiratuta
bestea hartu berra,
zabalena da baina
ez da hain okerra.

Sorozabal: Nahiz ta begi okerra
ez izan dotore,
kotxea txofertzeko
izaten da hobe;
adelantatzen hasten
baldin badirade,
bapo ikusten ditut
ispilurik gabe.

Mendizabal: Kotxean sartu eta
jo pareta, traka!
Ta orduan gertatzen da
horrenbeste marka.
Istripuaren kulpa
begi okerrak dauka...
Ertzaina etortzean
neri begiraka.

Sorozabal: Nahiz ta sarri ibili
bidea galduta,
nik nere orguiloa
ezin det izkuta;
kotxean ibiltzen naiz
hara beiratuta,
baztarra jo ezkerro
kotxearen kulpa.

Mendizabal: Ez da ederra gero
gure abelera,
ta zer egin gentzake
hemendik aurrera?
Antiajuk jaztea
askosaz hobe da,
eta disimuluan
pasatuko gera.

Sorozabal: Pertsona denak ditu
hemen bi begi ta,
beti ibiltzen gera
biak irikita;
gurekin ezin leike
gauza onik jarri ta,
ibili beharko du
begi bat itxita.

MUNGIA 1993-06-27

Bertsolariak: Azpillaga, J.Lopategi, I.Elortza, J.Enbeita, Sorozabal, Euzkitze, Ajuria eta Mañukorta. San Pedro Jaietako saioa, euskararen aldeko Mungiako taldeak eta bertso eskolak antolatua, Udalaren babesarekin. Gaijartze eta aurkezle lanak Bernardo Mandalunizen esku egon ziren. Pilotalekuan, gauez, sarrera ordaindua eta 500 entzule bertaratu zirenak.

I.Elortza

GAIA: Bihar Udaletxean soldaduskarako kaxan sartzeko deia duzu.

Neurria: 10ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Udaletxetik dei bat izan dut
edukazioz beteta:
kajatik pasa behar dudala
ta hainbeste berriketa!

Momentu txar hau helduko zela
pentsatu izan dut uneka;
nola banekien helduko zela,
nahiz ta ez nagoen erreta,
badaezpada ez nere zai egon
aspertuko zarete ta. (bis)

Soldadutzaren aurkako urtetan
joan dira hainbat neke.
Udaletxean zer zabilzaten
ezin ulertu daiteke;
ahal dudan arte ejerzitoai
ez laguntzea nahi nuke,
ta zuek ere gauza berbera
egin behar zenukete,
zuen herriko gazteengatik
ardurarik bazenute. (bis)

J.Lopategi - Azpillaga

GAIA: Hemen baditugu 1936 urteko argazkiak, zer gomutapen dakarzkizue?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Adiskidia Andoaindikan

Azpillaga: Berrogei eta hamazazpi urte
argazki horrek daukana,
oraindik ere goguan dago
eurak egin eben lana;
bertsolariak ziraden eta
bertsoetan bizi dana.
Basarri dogu bakar-bakarra
gaur bizirik daguana.

J.Lopategi: Arbola zaharrak aintzat hartzeko
jarri dauskue aukera;
gerra aurreko aitona guztiak
jarri ditue batera;
fotograforik izaten bada
baldin, ba, danok atera:
geu be holaxe egongo gara,
baina hemendik ehun urtera.

Azpillaga: Zepai ta Txapel ta Uztapide
zelako hirukotia!
Haiekin ere bertso kantari
hartu genduen partia;
ikusi dogu argazki hori
da oroitzapenez betia:
historirako geldituko da
horrek daukan argazkia.

J.Lopategi: Historiari emon neutzien
hasiera ta indarra,
horren ahotik agertzen baitzen
euren bihotzeko garra;
bizkorra gendun kantuz Txirrita,
baina gorputzez baldarra;
itxura hori hartzera doa
Azpillaga lagun zaharra.

ASTEASU 1993-07-2

Bertsolariak: Telleria, Peñagarikano, Ibarra eta Lujanbio. San Pedrotako jaietako saioa. Jai batzordeak Udalaren laguntzarekin antolatua. Pilotalekuan, gauzez, dohan eta 600 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Nikolas Zeberio aritu zen.

Telleria - Peñagarikano - Ibarra - Lujanbio.

GAIA: Zuek lau komunikabide zerate: Telleria izango da irratia;
Peña, telefonoa; Lujanbio, telebista; eta Iratxe, egunkaria.
Zuotan zein da garrantzitsuena gaur egunerako?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Telleria: Aspaldikoa naiz sortzez ere
ta hainbat berri jaulkia,
horretarako bat behar eta
izan neike egokia;
ospean eta balioz ere
onentsuna irratia:
zuetara nik adierazten det
gertatu ohi den guztia. (bis)

Peñagarikano: Egunkaria askok letzen du,
baina ez da gauza ona;
ta "Goizean Behin" programak ere
hemen badu bere sona;
nik telefonoz dei niezaioke
esanez hola moñoña;
zalantzik gabe telefonoa
da gauzik beharrezkona. (bis)

Iratxe: Irratia ta telefonoa
telebista ere bertan;
egunkaria deitzen naute ni,
oso ona naiz benetan;
gu laurotatik neu naiz onena,

behintzat, neronen ustetan;
bestela ez zuten "Egunkaria"n
jaia egingo Iurretan. (bis)

Lujanbio: Telefonotik mintzatzen gera
gehientsuok babo-babo,
irratia ta egunkariak
urruntasunan esklabo;
nik hau sarritan entzun det eta
gaur argitzeko prest nago:
Irudi batek balio baidu
ehun hitzek baino gehiago.(bis)

Telleria: Kaja txikiak nahiz badituen
ospe ikaragarriak,
telefonoan bideak, berriz,
informazio urriak;
eta nik atzo eman nituen
zuek gaur irakurriak:
nereak atzo berriak ziren,
zuenak ez hain berriak.(bis)

Peñagarikano: Gaur telebista "caja tonta" da,
jaunak, hemen ez da giro!
Alde batetik "El Precio Justo"
ta bestetik Urrusolo.
Lehiaketa ta konkurtso hoiei
begira zenbait mozolo,
telebista hori ikusi baino
hobe da butaka hortan lo. (bis)

Iratxe: Irudiak asko balio dula
telebistak jo du alai;
barkatu, baina nik, telebista,
ez zaitut umilatu nahi;
zure hitz hori gogotan daukat
ta erantzungo dut lasai:
nik hitzak ondo bildu ditzaket
ta irudiak ere bai. (bis)

Lujanbio: Somaliako gosea eta
Sarajeboko ikara,
telenobelen malkoak eta
umoretsuen algara,
neska gazteak bikinian ta
Rober Reforden patxada...
Deskribatzea alperrikan da,
ikusi egin behar da. (bis)

Telleria: Ospe piska bat hartu zuen da
berez dijoa aurrera.
telefonoa nahiko garesti
ta egunkaria behera;
telebistatik bertsolariak

eta edozer mouz gainera;
zenbat balio dun telebistak
hortik kontuak atera! (bis)

Peñagarikano: Jaun da andreok, etxe bat sutan
da gauza negargarria,
telefonoa degu onena
sortu ezkeroz larria;
egunkarian zabaltzen bada
era hortako berria,
suhiltzaileak etortzerako
erreko da baserria. (bis)

Iratxe: Robert Reford ta holakoekin
telebistak irrintzia,
aspaldi hontan egunkaria
batzuk daukate ahantzia;
nire ustetan egunkariak
badu bere garrantzia:
bere orrietan biltzen da ondoen
herriaren iritzia. (bis)

Lujanbio: Orain badago "Antena Tres" ta
"Canal Plus" ta "Tele Cinco";
eta Hitzetik Hortzera horri
nik diot kaso egingo.
Peña honek ere bere exitoa
bertantxe jo zuen bingo,
bestela oraindik ez zun neska bat
nolakoa dan jakingo. (bis)

USURBIL 93-07-3

Bertsolariak: J.Lopategi, S.Lizaso, Loidisaletxe II, Olalde,
Irazu eta Iturriaga. Santiago jaien barnean jai batzordeak eta
Udalaren laguntzarekin antolatutako saioa. Pilotalekuan, gauez,
sarrera dohan eta 900 entzule. Gaijartze lanak, "Bota punttuba"
taldeak burutu zituen eta aurkezle lanetan Inaxio Usarralde
aritu zen.

Iturriaga

GAIA: Esku-horri batean honako hau irakuri huen: Drogaren menpe
zegoen Usurbilgo batek, "Gizakia Helburu" Unibertsitatetik
lizentziatu titulua atera du, droga utzi du.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza III

Ez dakit ondo egingo dudan,
nahiz eta saiatu nahita;
horrelakotan zail izaten da
zure aurrekoari kanta;
drogak utzita omen zabilta
oso ondo, gazte, aupa!
Zuretzat behintzat zorion hitzik
besterik ezin dut aipa,
drogek daukaten gauzik onena
neurtzen jakitea baita.(bis)

Hainbeste jende erori arren
hemen egunikan-egun,
dirudienez ezingo gara
sekulan elkarren lagun;
inguru hortan zer dadukagun
aspaldi dugu ezagun;
zure bidea behingo batean
denok zuzen har dagigun,
eta entzunaz ia gerora
zerbait ikas dezakegun.(bis)

BEASAIN (Arriaran auzoa) 1993-07-3

Bertsolariak: Mendizabal, Lujanbio, Sarriegi, Murua, Sorozabal eta Telleria. Auzoko jaietako saioa, jai batzordeak antolatua Udalaren babesean. Pilotalekuan, gauez, sarrera dohan eta 150 bat entzuleren aurrean. Gaijartze lanetan Pello Urretabizkaia eta Iñigo Eguren; aurkezle lanetan, Pello Urretabizkaia.

Mendizabal

GAIA: Bihar Arriarango urtegiak urez estaliko dituen soroetan lana egin duen aitona zaitugu. Orain, goiko errepidetik urtegiari begira zaude.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Goizian goizik jaiki ninduzun

Goiko bidetik begira nago,
begira beheko zulora;
isiltasunez begira nago
gurea gendun sorora:
pareta egin dute altu ta
ura igoko da gora,
hor botatako izerdi haiek
datozkit orain gogora.

Aldapak ziran soro ugari

hara uretan berdindu!
Oroitzapenak horri begira
gaur nahi nituzke zuzendu:
aita ta amak utzi zidaten
ta hori nik ezin aldendu;
diru puska bat eman didate
bainan penik ezin kendu.

Nik aitortzen det, egin genitun
erabat lantegi txarrak,
garbitu nahirik horko belarrak
horko sasi eta laharrak;
baina guztiak bukatu dira
harturik uran indarrak...
Pixkana hola galduko gera
hemengo baserritarrak.

Sorozabal - Telleria

GAIA: Jokin, Olazar baserriko artzaia dugu. Gaur goizean
ondoezik aurkitu denez, letxeroarekin bidali dio abisua
medikuari. Une honetan Telleria albaiteroa etorri da.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Telleria: Zortzirak ziren, andrea ta ni
artean'e lotan geunden,
eta norbaitek ateai kolpe
ematen zion nabarmen;
esan didate: "Olazarrera
joan zaitea lehenbailehen!"
Hementxe nago eta egunon,
zer gertatutzen da hemen? (bis)

Sorozabal: Albaiteroak badauka, nonbait,
hemen laguntzeko grina;
letxeroak zer esango zion
daukat konpreni ezina,
baina etorri zeran ezker
hobe hasiko bazina;
ba al dakizu nola sendatu
nere hagineko mina? (bis)

Telleria: Ez dakit letxe txarrean hartu
edo umore onean,
letxero edo artzaia norbait
dabil adarraren planean;
etortzeko, ta haineko mina
dula ta, aldamenean;
dentistarena emango zaitut
beruntza nihoanean. (bis)

Sorozabal: Atzo gauean ohartu nintzan
nere ardiak jetzita,
oherakoan hagin aldean
mina neukala hasita...
Orain ezetza eman behar dizut,
zure plana ikusita;
hemendik ez naiz inora joango
ardiak hemen utzita. (bis)

Telleria: Eoskor honi inbentoren bat
beharko diot kontatu,
ardiak utzi ta kalerantza
ezin badet apartatu;
igo sapaira ta lasto-liztaz
hagin zaharra amarratu.
Itxi begiak! Itxi ukabilak!
Zulotik behera saltatu. (bis)

Sorozabal: Honek ederki kobratu ezkerro
besteena bost inporta,
hala moduzko plana jarri dit
erdi eroa dago-ta;
barkatu, baina ez naiz hasiko
teilatutikan saltoka;
honek haginik ez dit kenduko
ta borda lurrera bota. (bis)

AIA (San Pedro) 1993-07-4

Bertsolariak: Mendizabal, Peñagarikano, Egaña, J.Sarasua eta
Olaso. Auzoko jaiak zirela eta antolatutako saioa. Plazan,
gauetz, sarrera ordaindua eta 500 bat entzule. Jai batzordeak
antolatua Udalaren laguntzarekin. Gaijartze eta aurkezle lanetan
Joxe Mari Lertxundi aritu zen.

J.Sarasua

GAIA: Hiru bertso kantatzeko gaia hau dek, Jon: "Ez degu
arrazoirik gutxi geralako..."

Neurria: 10eko txikia
Doinua: Lagundurikan denoi III

Jarri didazun gaia
ez da nobedade,
nahia eta ezinak
sortzen dit nahigabe;
halare ez gera gure
buruaren jabe,

esaldi horretatik
gingo det alde:
gutxi ez gera baina
zatituta gaude.

Kanpotik sartzen zaigu
horrenbeste ezten,
gure erantzun maila
ez al dabil jeisten?
Askok askatasunen
ez baitu sinesten;
agintari horiek
joaten ez dute uzten,
ahaztu egin baizaie
hortzak erakusten.

Herriaren parte bat
dago bero-bero,
erdian geldituta
egiten da zero;
txapelkeriak badu
hainbeste bezero;
hala ere lortzea
noizbait det espero:
txikiak badu indarra
sinistu ezkerro.

ABADIÑO (Mendiola auzoa) 1993-07-9

Bertsolariak: J.Sarasua, Peñagarikano, Iturriaga, Lujanbio, I.Elortza eta Mañukorta. Mendiolako jaietan jai batzordeak Udalaren babesarekin antolatutako saioa. Auzoko plazan gauez, sarrera dohan eta 400 bat entzuleren aurrean. Joxe Inaxio Arri gaijartzaile eta aurkezle lanetan. Saioa gustokoa eta polita atera zen orokorrean.

J.Sarasua - Iturriaga

GAIA: Etorkizuna ikusteko betaurrekoak jarri eta 2013. urtean zer nolako Euskal Herria ikusiko zenukete?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Iturriaga: Garbitu, behintzat, egin itzazu;
ez da ikusten, ze pena!
Gutxi asko be azaldu nahi dut
bere kanpo eta barrena;

nere urtea dago bi mila
eta hamairugarrena,
oker ez banauk gure autopistak
debalde izango direna. (bis)

J.Sarasua: Bi mila ta hamairugarrenean
jarri dut begi ninia
eta hor dago Euskal Herri bat
guretzako eskeinia;
askatasuna da, zorionez,
nagusi han ipinia,
eta jubilatuta dauzkagu
Arzalluz ta konpainia. (bis)

Iturriaga: Ordua da ta, nere atzeko
hauekin fijatu nadin:
Mañu hor dabil oraindik ere
bere Patrol zaharrarekin,
Igorrek dauzka "Nike" zapatillak
"Bostaire" kamararekin,
ta Sarasua agure zaharra
praka mahozko urdinekin. (bis)

J.Sarasua: Pertsonalki zer ikusten dudan
kantatuko dizut azkar:
Mañu ez dago bizirik eta
hor ez dut kantatu behar,
Peña famili haundi batekin
dabil Donostian zehar,
Iturriaga patila gabe
eta Maddaialen neskazahar. (bis)

Iturriaga: Hementxe gabiltz atzeko hauekin,
gezurrak bota ta bota;
lehen ez dut ezer kantatu eta
Peñak hor bota dit bronka;
palankatxo bat badaukat eta
ez noa inora hemen jota,
hortik aurrera biziko naizen
oso seguru ez nago ta. (bis)

J.Sarasua: Gure mundua ikus daiteke
gauza arraroz beteta:
oraindik ere bizirik dago
kutsadura eta seta,
baina hementxe utzi nahi nuke
geroaren berriketa,
Steve Wonder-ena egiten
aspertuta nago eta. (bis)

I.Elortza

GAIA: Hemen aurrean dagoen bati bihotzak buelta ematen dio zure izena aipatzearekin bakarrik.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Egia esan, burua ez dut
orain ideiaz beteta;
buelta gora buelta behera
bazuen honek berriketa;
bost lagun hoiek atzekaldean
lasai-lasai daude eta,
holako gaiak entzun ta gero
neuk eman nahi nuke buelta. (bis)

Honelako gai bat kantatzean
sentitzen naiz hain aldrebes,
kontu hauetan ni betidanik
hain lotsatia naizenez;
holako bati esatekoak
esatea ez da errez;
bestela gutxi egiten du ta
tablau gainetik inoiz ez. (bis)

IRUÑEA 1993-07-9

Bertsolariak: Lazkano, I.Elortza, E.Arozena, Narbaiza eta Larrañaga. San Ferminetako egitarauaren barnean antolatu ohi den saioa. Takoneran, aide librean eta dohan. Antolakuntzan Iruñeako Bertso Eskola tarteko izan zen. Gaijartze lanetan Bertso Eskola eta aurkezle lanetan Manu Gomez aritu zen. 500en bat entzule bildu ziren eta bertso saio osoa San Ferminetako gaien inguruan joan zen.

Lazkano - I.Elortza - E.Arozena - Narbaiza - Larrañaga

GAIA: I. Lazkano izango da EEUU-etatik etorri den estranjeroa edo; I.Elortza, berriz, 4 kalabaza edo 4 suspentso atera dituen iruñear gaztea; E.Arozena, alde zaharrea bizi den 80 urteko amonia; Narbaiza, Iruñako alkatea; eta Larrañaga, taberna batean lan egiten duen tabernaria. Nola pasatzen dituzue San Ferminak?

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Mando baten gainean

Lazkano: Lehenbizi hasiko da
amerikanoa,
hemen arkitua det
bizitza sanoa:
gauean parranda ta
itzalean loa;
bizitza ederra da,
batere ez noa.

I.Elortza: Ni ere etorri naiz
hona algaraka;
neure herrian daukat
parranda galanta;
lau suspentso izan arren
ezer ez zait falta,
iazkoan baino lau
gutxio dirata.

E.Arozena: Nahiz ta oihuka jardun
ni nere atetik,
jende guztia dator
alde guztietik,
ta oihua besterik
ez dago denetik,
eta pixa usaia
gauz denen gainetik.

Narbaiza: Ez nuen uste festa
hain gogorra zanik,
hamaika lan badaukat
alkate izanik;
gau ta egun problema
besterik ez dut nik,
amerikano zaharrak
zuzendu ezinik.

Larrañaga: Tabernaria dabil
ilusio haundiz,
klienteak gorriturik
musu eta begiz;
denak umorez dira,
aitortzen det egiz.
Ai San Fermin balitza
urtean bi aldiz!

Lazkano: Amerika gehiegi
ez ote da hazi?
Munduko bazterretan
geu gera notizi,
baina hemen bezela
ezin gera bizi...
Parranda ta juergan

Euskadi nagusi.

I.Elortza: Alkateari paso
eitea hobeto,
amonaren portala
txixa egiteko;
taberneroa, berriz,
tragoak hartzeko,
ta amerikanoa
hari ordaintzeko.

E.Arozena: Nahiz ta alkohola edanez
ez da oso sanoa;
behintzat, hala goaz ta
hala dut susmoa;
piska bat aldatuta
lehen neukan asmoa,
gazte sentitzen naiz ta
tabernara noa.

Narbaiza: Alkatean belarriak
tinko eta tente,
gazte estudiantea
poztu da dexente:
nahiz ta eskolan dabilen
nahiko inuxente,
parrandan atera du
sobresaliente.

Larrañaga: Alkateak nahiz jarri
gehiegizko traba,
San Ferminak dira ta
har zazu patxara;
gozatu nahi duenak
irri ta algara,
lehenbailehen bildu bedi
nere tabernara.

ZUMAIA 1993-07-10

Bertsolariak: J.Enbeita, Sorozabal, Murua, S.Lizaso eta Loidisaletxe II. Narrondo auzoko jaietan, bertako jai batzordeak antolatutako saioa, Udalaren laguntzarekin. Saioa gauzez burutu zen, plazan, dohan eta 400 bat entzuleren aurrean. Gaijartze eta aurkezle lanetan Jose Mari Etxabe.

J.Enbeita

GAIA: Zergatik Euskal Herrian PSOE nagusi?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Euskal Herrian PSOE nausi,
hau azkenengo kaltea;
zer dela eta zabaldu zaion
indar horreri atea?
Zuk nahi zenduke nik bi bertsoan
hemen argi esatea;
esango dizut hitz gogor batez,
hau dezu errematea:
Garratzegia dalako, nonbait,
abertzale izatea. (bis)

Baina egia hori izan da
ta behar degu irentsi:
españolistak igo direla
eta euskaldunak jeitsi;
alperrik dira jai egunetan
mila gora ta irrintzi;
benetakoak hemen gabiltza,
batelean ezin etsi;
hitza gehiegi egiten dugu
eta egipenak gutxi. (bis)

Murua

GAIA: Lazkao-Txikik Goierrin hutsunerik utzi al dik?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutik koxkor bat itsuaurreko

Gazterik hasi bertso munduan
ta hustu zuen barrena,
hark jarri zuen hainbat urtean

gure umore gehiena.
Lazkaomendiko gain polit hartan
zeinen txori gardena!
Hainbat sentipen bihotz barneei
eman zien hunkipena;
ez zan haundia, baina utzi du
hutsunerik haundiena. (bis)

Hainbeste bertso, hainbeste ipuin,
hainbeste bihotz dirdira!
Zenbait alditan ez du ekarri
gaua eunaren argira?
Hainbeste jende bere ondoan
itxaropenetan jira.
Hura joan da triste gaude
joate horri begira...
Zer eingo zaio erreka denak
itsasora joaten dira! (bis)

Sorozabal

GAIA: Auzo honek bi udaletxe dizkik, baina diru gutxi iristen
zaiok...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Bi pusketako auzo txikiak
ez du meritu makala,
kostatzen zaie festetarako
eskuratzea jornala;
esaera bat bada erderaz
haundia eta formala:
Bi nagusiko zakurra beti
goseak gelditzen dala. (bis)

Ta auzokoak hutsaren truke
jardungo dira lanean,
seguru asko auzoko jaiak
gaur montatu ezinean;
eskarmentu bat agintariek
behar dute zuzenean:
esaizkiezue haiei kristonak
boto eske daudenean. (bis)

Zestua eta Zumaia dira
Larrondotarren nagusi,
eta jaietan xoxikan ere
ezin dezute ikusi.
Independiente egin zaitezte,

herrietatik berezi,
ta udaletxe haundi bat jarri
bere alkate ta guzi. (bis)

DONOSTIA (Añorga) 1993-07-15

Bertsolariak: Sorozabal, Telleria, Mañukorta eta Murua. "Donostian Bertsotan" kanpainako lehen bertso saioa. Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak, Donostiako Udaleko Euskera Patronatoaren laguntzaz antolatua. Añorgako Zinemaren arratsaldean eta sarrera dohan. Gaijartze lanetan Karlos Aizpurua aritu zen eta 100 bat entzule bildu ziren. Saio hotza eta entzulegoarekin harremanik lortu gabe igaro zen.

Telleria - J.Sorozabal

GAIA: Jokin, Julio Iglesias Zamora izango da, eta Millan, berriz, bahitzailea edo bera sekuestratu duena.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

Sorozabal: Batzuentzako bahiketa honek
badu hamaika interes,
baina pertsona guztiak libre
bizi nahi lukete berez.
Nahiz eta honek tratatzen nauen
beste askok baino era hobez,
nik ere lasai bizi nahi det ta
aska nazazu mesedez.

Telleria: Agian zuk'e amesten dezu
askatasunan izpia,
baina bizitza ez degu beti
samurra eta ezta,
eta nik ere nolabait bete
aginduaren hizkia,
zu egon lasai bete artean
eman didaten guztia.

Sorozabal: Ikusten denez, zure gainetik
beste norbait badaukazu;
hark esan arte preso nago ni
halaxe esan didazu;
ni inuxente bat nola naizen
garbi ohartzen zara zu,

ta gerran segi behar badezu
Atutxa sekuestra zazu.

Telleria: Nolabait ere har nezaioke
nik Atutxari neurria,
ertzainburu da gizon hori ta
zein gizon lotsagarria;
bere mutilez mendekatu nahi
sortu ginan aberria;
usteldu nahian dabil hura're
gu eta gure Herria.

Sorozabal: Baina ni ez nabil ustelkerian,
ez bainaiz hortarako gai;
atera eta nere enpresa
altxatzen nahi nuke jarrai.
Nerekin ados baldin bazaude
esan zenezake lasai:
Euskal presoak kalera baina
Julio Iglesias ere bai.

Telleria: Zu buru zinan eta urrats bat
latza eman zun IKUSIk,
zuk diozuna presoengatik
sumatuko nuke pozik;
bion artean ez nuen nahiko
gorroto ta sestra gauzik,
bion arteko gauza ez da hau
goitik daudenena baizik.

Sorozabal: Nagusiren bat badaukazula
zuk hor zenion lehenengo,
seguru asko hura're ez da
nere erruki egongo,
baina pakea behar degula
denok badakigu ondo,
ta denok zerbait galdu ezean
sekula ez da izango.

Telleria: Burruka batek izaten ditu
negar eta erasoak,
ta amaierak ez guzientzat
uste bezain erasoak;
gure Herriko gudariantzat
altxa ditzagun besoak...
Ta askatasuna Zamorarentzat,
eta askatu presoak!

LEGAZPI (Aztiria) 1993-7-17

Bertsolariak: Egaña, S.Lizaso, Murua, Peñagarikano, E.Arozena eta Irazu. Urtero bezala, bertako jaietan eta jai batzordeak Udalaren laguntzaz antolatua. Gaez eta sarrera ordaindutako saio honetara, 100 bat pertsona hurbildu ziren. Gaijartze eta aurkezle lanetan Juanjo Sagastibeltza aritu zen.

Egaña - S.Lizaso

GAIA: Demagun eguerdiko hamabiak direla eta Zarauzko hondartzan gaudela, uda garaia da. Hemen duzue Egaña, Gurutze Gorriko mutila edo hondartza zaintzen dagoena, eta handikaldeko hura bandera gorria dagoen arren, uretan sartu dena.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Egaña: Bainista horri ez zaio falta
lehorrekoen plantikan,
uretan sartu ta egiten du
txipristin latz galantikan.
Bandera gorri egonagatik
ez al dio inportikan?
Galerazia zegok bainua
ta irten hadi hortikan! (bis)

S.Lizaso: Langile zera ta uste dezu
zerala hemengo nagusi.
"Irten hortikan" esanaz, hemen
builan zabiltz jo ta hausu.
Nik dadukaten gerri bueltarik
zuk ez al dezu ikusi?
Nere ustetan seguru nator
flotadore eta guzi. (bis)

Egaña: Motiborikan ez dezu bate
hain bromoso azaltzeko,
itsas haundiak badu indarra
flotadoreak kentzeko,
ta sokorroka hasten bazera
gizajo baten antzeko,
hiru zodiak beharko dira
bulto hau karraiatzeko. (bis)

S.Lizaso: Zodiak eta era hortako
txorakeririk ez konta;
ni lasai nago, zu, berriz, estu;
ez zait batere inporta;

ez ikaratu alde z aurretik,
neurriak hartuz nago ta:
barrikarika ez da hondatzen
nahiz ta itsasora bota. (bis)

Egaña: Igarin ez du ideiarika,
halare bera nagusi;
zakurren gisan mugituz da,
aldrebes eta itxusi.
Itsas erdian buru haundi bat
ez al dezute ikusi?
Zarautz "La Concha" bihurtu zaigu,
Santa Klara eta guzi! (bis)

S.Lizaso: Arrazoi hori etorri zaizu
ahoa bete-betera;
baina nerean egin behar det,
ez bedi neure kaltera.
Banijoa ta, arren, etzazu
buila gehiago atera.
Agur, banoa Getariraino
txakolina edatera. (bis)

ETXEBARRIA 1993-07-25

Bertsolariak: Ibarra, Mendizabal, Iturriaga, I.Elortza,
J.Sarasua eta J.Lizaso. Santixo Jaiak zirela eta jai batzordeak
Udalaren laguntzarekin antolatutako saioa. Herriko pilotalekuan,
arratsaldean eta dohaneko saio honetara, 300 bat entzule bildu
ziren. Gaijartzaile eta aurkezle lanetan, Jose Mari Lejardi
"Gabixola" aritu zen.

I.Elortza

GAIA: Bueno Igor, hire gorpuztxo lirain horrekin hemen
Etxebarrian dagoen harri haundi horrek ze pentsamendu sortu
dik? Hiru bat pentsamendu.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza III

Beraz jarri nau harri haundiai
hiru bertso kantatzeko;
nahiz ta serio hartzea igual
izango nuken hobeto,
katxondeora hartuta ere
aterako da ederto.
Nagoenean prestatu nahian

kirolerantza joateko,
horrelako bat erabiltzen dut
beroketak egiteko. (bis)

Urte pare bat ezagutua
daukat gutxi gorabehera,
Sarasuakin gentozenean
kotxea aparkatzera;
berriro bista hor eraman dut
harri haundian aldera;
begiratuta gustatu egin zait,
begiratu dut atzera,
bueltarakoan praketan sartu
ta eramango dut etxera. (bis)

Eramateko erabakia
hartua dut eta kito,
berriro hemen horrelakorik
iñork ez du ikusiko;
nire kuartoan jarri behar dut,
han, erdi erdian, tinko;
bere lekuan zeu, Gabixola,
jarriko zaitut, mutiko;
azken batean diferentzirik
ez baidute igarriko. (bis)

IRUÑEA 1993-07-28

Bertsolariak: Mendiluze, Irazu, Egaña eta Maia. Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean urtero burutu ohi duen ikastaldiaren barnean kokatutako saioa. Larraona Ikastetxean, gaez eta 300 bat ikasle eta irakasleren aurrean. Gaijartze eta aurkezle lanetan Unai Iturriaga aritu zen.

Egaña - Maia

GAIA: Gareseko jaietatik datoz, goizaldean hain zuzen,
igogailuan sartu eta bigarren eta hirugarren arteko
solairuan argia joan da. Hau dela eta, igogailutik ezin da
irten.

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Pello Joxepe

Maia: Aszensorean sartu ta ordun
hasi gera gu umiltzen;
orain artean zalantzan eta
bi pauso ez gendun ibiltzen;
ia argia jua da baina

zerbait hasi da argitzen:
zuk daramazun kaka horrekin
ia ez gera kabitzen.

Egaña: Honek ardoa edaten zuen
eta nik han "Coca-cola",
horrexegatik ailegatu da
bera baba dariola;
igogailuan kutxa eder hau
ez gutxietsi inola,
deklaratzan det etxe koxkor hau
okupatuta dagola.

Maia: Beraz hauxe da okupazio
jator guztien eredu,
baina lekua txikia da ta
badago nahiko endredu;
nik "Coca-Cola", horrek ardoa
arazo ona daukagu;
aszensorean "pela" botata,
kalimotxo egin degu.

Egaña: Ardoa berak edan digu gaur,
ez det ulertzen bestela!
Hauxe da gizon edale txarra,
hauxen mozkorti txepela!
Kontatu du ta nik jasana det
sorpresa guztiz itzela;
esaten nun, bai, hanka azpiko hau
alfonbrila bat ez zela!

Maia: Eskerrak, behintzat, biok gaudela
gorputz mardul ta argala!
Hor azpitikan zer ote dagon
hau da gure martingala;
zuk esan dezu azpiko hori
alfonbra bat ere ez dala,
baina hor ere lo egingo dezu
atzo gauean bezala.

Egaña: Alperrik zaude kabina hontan
etzango ote naizen zai,
zu urdearen ondoren zera
hala hartzen dizut usai;
etxe honetan bizitzeko ere
molda zindezke nolana;hi;
zutikan ondo kabitzen zera,
pelota eginda ere bai.

ZARAUTZ 1993-07-31

Bertsolariak: I.Manzisor, I.Iruretagoiena, U.Atxotegi, Esoain, I.Epelde eta Sukia. Bertsolari gazteak trebatzeko bertso saioa. Herriko Bertso eskolak antolatua Udalaren laguntzarekin. Polikiroldegian, gauez, sarrera ordaindua eta 200 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Jose Antonio Gesalaga "Zaldubi" izan zen.

Esoain - Sukia

GAIA: Xabier Sukia bainatzen ari zen hondartzan eta, halako batean, hor nun pikatzen dion salbera edo medusa batek, berak dakien toki batean eta erizainarengana joan da; hau neska polit bat da, eta bere... erakutsi behar dizkio.

Neurria: 8ko txikia.

Doinua: Lurralde dena dabil

I.Esoain: Hau ez dabil gustora
hondartza aldean,
bi eskuz eusten dio
horri indarrean,
eta ni hemen nabil
sendatu planean,
hobeto ikusten det
zutitzen danean.

X.Sukia: Aldrebesa portatzen
gaur ari zera zu,
bertan emango dizut
oso gustora su;
gaur gauerako zita
egina det, aizu;
ez dakit nola baina
konpondu zaidazu.

I.Esoain: Lana besterik honek
ez dit exijitzen;
igeri toki onik
ez du elejitzen;
lantegi zaila daukat
zauria garbitzen...
Bestela ere ez du
asko erabiltzen.

X.Sukia: Orain asko txoratzen
hau ere ari da;
zerbait egin, ez egon
nere ikusmira;

hobeto joango zan
ligean segida,
eskua izorratu
balitzait sikira!

I.Esoain: Etxetik hondartzara
egin dezu txango,
ta ez zera atera
inondikan ondo:
mila zauri dauzkazu
hemengo ta hango,
idiana jotzerik
ez dezu izango.

X.Sukia: Nik zurekin ez daukat
juterik inora,
bate gauza onikan
ez dator gogora.
Eta konpondutakon
nola egongo da?
Badaezpada zurekin
egingo det proba.

I.Esoain: Garbi ikusi al da
gu bion konduta?
Zauriaren kontuaz
hori da disputa;
nola bialdu dedan
ez izan ahaztuta,
etxera bidali det
eskaiolatuta.

X.Sukia: Lehen gaizki neukan eta
orain okerrago,
problemak sortu dizkit
lehen baino gehiago;
masajeak ematen
zan nere esklabo...
Oraindik hor daukat da
oso pozik nago.

I.Esoain: Oraindikan beste bat
behar nuke kanta,
hauxe da ateraldi
eder da aparta;
gezurretan hastea,
horixe zan falta!
Neskak egin zion koxk
zikina zeukan ta.

X.Sukia: Problema hau daukagu
ia bukatu-rik,
etxera juan nahi det
hau hemen utzirik,

ta eramaten badet
eskaiolaturik,
gero amari zer kristo
esango diot nik?

LARRAUL 1993-08-01

Bertsolariak: Peñagarikano, Telleria, Sorozabal eta S.Lizaso.
San Esteban jaiak zirela eta, jai batzordeak antolatua, Udalaren babesarekin. Pilotalekuan, arratsaldean, sarrera dohan eta 200 entzule bildu ziren bertara. Gaijartzaile eta aurkezle Jesus Mari Irazu aritu zen. Oihartzun handiegia bertsoak entzuteko.

S.Lizaso - Telleria

GAIA: Peñak esana da Anjel Mari eta Peñagarikano nortasun desberdineko bi gizon dirala. Hemen daukagu Peñagarikano tabernan kafea hartzen eta horra etorri zaio Anjel Mari.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

S.Lizaso: Taberna baten kafea hartzen
ari nintzela jo ta su,
beste itzal bat nabaritu det,
egiten dit enbarazu.
Zer arraiotan jartzen didazu
horrenbeste konpromisu?
Nunbaitetikan ezagun gera,
bere tankera dezu. (bis)

Telleria: Arrazoi dezu, zure abizen
horrek du hainbat histori,
telebista ta irratietan
horrenbeste kategori.
Koño! Zu al zera esaten duten
mutiko xelebregi hori?
Peña txoro hoi zu al zerade?
Koño! Ez nintzan erori. (bis)

S.Lizaso: Ez da gezurra nik bi nortasun
ditudala barrenean,
bakarrarekin ibili arren
beti edo gehiengatik;
ta, Anjel Mari, ez zaitez jarri
zu nere aldamenean,
Peña bakarrik izan nahi nuke
kantura natorrenean. (bis)

Telleria: Galtza moderno eta txaketa,
nolako mutil prestua!
Planta soilikan izateko're
badaukazu arriskua.
Mostradorean tikiti-taka,
zertan jotzen duk eskua?
Esaten dio neskameari:
"Benga kafea, la oskua!" (bis)

S.Lizaso: Itxoin-itxoin! Ez zaitez hasi
beti bezela berritsu;
zer arraiotan neri begira
geldirik zaude, Maritxu
Ta lagun, Pello, ate ondoan
guardian egon zaitez zu,
ta Anjel Mari etortzen bada
ez nagola esaiozu. (bis)

Telleria: Eta horrela bete nahi nuke
Anjel Mariren papela.
Aldamenean zertarako det
holako mutil pardela?
Esan Peñari Egaña ere
honuntza badatorrela,
eta kontatu neska batekin
ligatzera joan naizela. (bis)

GASTEIZ 1993-08-7

Bertsolariak: J.Enbeita, J.Lopategi eta Amuriza. La Blanca
Jaiak zirela eta, jai batzordeak antolatua, jai egitarauaren
barnean. Matxete Plazan, eguerdian, sarrera dohan eta 100 bat
entzuleren aurrean. Gai libreko saioa.

J.Enbeita - J.Lopategi - Amuriza

GAIA: Herrietako giza desorekaren bidegabekeriak aztertu ostean,
jaietako panorama deskribatzea hartu zuten lantzat.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Basotxoritxu moko luzia

Amuriza: Mitina hortan utz dezagun ta
jaira itzuli gaitezan;
blusa taldeak Gasteiz hontako
sinbolo nola ez izan;
talde bat hantxe aurkitu dut gaur
Otxandio Erdiko Plazan.

"Alto!" emanda galde didate
ohera nondik joaten zan.

J.Enbeita: Otxandioko Plaza erdian,
beraz ez zeuden hain bare;
era hortako galdera iteko,
nonbait, lorik egin gabe;
baina ezin da Gasteiz aldean
egin ohe baten jabe,
pekatu baita ohea nun dan
galdeka hastera ere.

J.Lopategi: Bereiztu behar ditugu hemen
garia eta oloa,
jakin dagigun zelakoa dan
Gasteiz hontako soloa;
gazte jendeak bere erara
eroaten dau arloa:
edozein banku zaharren azpian
eiten dabe gero loa.

Amuriza: Lo egiteak Birgina Blankan
hemen ez ei dau merezi,
goizean hortxe talde batzuek
zeuden loari igesi;
egunkaria zabal-zabalik,
ez zeuden bate itsusi,
irakurtzeko planta eginez
nahiz letrarik ez ikusi.

J.Enbeita: Hemen gabiltza gasteizkoetaz
zerbait berri erakusten,
ta, Amuriza, formalidade
izan zerbait irakasten;
beste haiekin eta beretaz
kontuan ez baita jausten;
"Xusta" tabernan harrapatu dut
bere ileak orrazten.

J.Lopategi: Horretan ere izango ete da
bertsoetan bezain trebe?
Hobe luke, bai, "Blanka" batzuek
laguntzat hartu balebe;
eguna amaitu baino lehenago
ingo da zerbaiten jabe,
goapoa dogu goitik beheraino
orraztu gaberik ere.

Amuriza: Eskerrik asko, sozio beltza,
ez nuen hori usteko.
Gasteizen ondo ezautzen naute,
ez naiz txantxetan jartzeko;

orraztu gabe goapoa bainaiz,
Marlo Brando-ren antzeko;
batzutan pixkat orraztu egiten naiz
pixkat disimulatzeko.

J. Enbeita: Gure Zeledon beltzarana zen,
eman dute jakitera;
zalantzan nago, nahiko urduri,
begira ezker aldera.
Ez ote dago nere ondoan
kantari Zeledon bera?
Aurten Zeledon etorri zaigu
San Pedrorrekin batera.

J.Lopategi: Titulo hori ederra da ta
ez naiz jarriko haserrez;
ligea ere era horretan
gertatu liteke errez;
nahiz ta ileak orraztu edo
danak eduki aldrebes,
"Blanka" ugari izango da hemen
baina Birgina batere ez.

Amuriza: Blanka Birgina Zeledon eta
Gasteizko hainbat bezero;
ni lehen tabernan sartu naiz eta
sortu da nahiko endredo;
batek esan du: "Horra San Pedro!"
ta besteak: "Olentzero!"
Gasteizen zernahi entzuten dugu
bizkaitarra izan ezker.

J.Enbeita: Bat bizkaitarra izan ezker
bitxo raroen zalantza:
alde batetik ezjakina ta
beste aldetik bengantza;
baina Amuriza honekin sarri
konfunditzen dira, antza;
izan ere du begiratua
nahiko bitxo raro antza.

J.Lopategi: Baina adorez jotzen dausku gaur
bere bertsoen ezquila;
esanak esan, ez da egongo
umila edo isila;
beste batzuek ere badabiltz
gaur Blanka batzuen bila;
deskalabratu ei dira atzo
Abel ta bere kuadrila.

BALIARRAIN 1993-08-13

Bertsolariak: S.Lizaso, Egaña, Murua eta X.Zeberio. Herriko jaietan, jai batzordeak Udalaren laguntzarekin antolatua. Plazan, aide librean, gauzez, dohan eta 200 bat bertsozale entzule zirela. Gaijartze eta aurkezle lanetan Millan Telleria aritu zen.

X.Zeberio

GAIA: Heure gaztaroan nola pasatzen huen igande arratsaldea?

Neurria: 6 puntutakoa

Doinua: Dozena bat bertso berri

Hori jakin nahi zenduan,
erantzun behar orduan:
hogei urte ta sasoi bikaina,
haizea buruan,
diru gutxi poltxikuan,
halare taberna juan...
Gu baino zoriontsugorikan
ote zan munduan? (bis)

Joxemai lagun gendun da
jotzen zun "jun-da-ta-jun-da".
Dantzik ein gabe gu nola egon
soinua entzunda?
Ilunabarra barrunda,
neska launtzeko burrunda,
nahiz eta gero Gaintzen azaldu
Abalita junda. (bis)

Etxera joan ber noizbaiten;
kotxerik ez gendun arten,
Romanek eramaten ginuzten
furgoneta baten,
kabitu ezinik aten,
batzuek garrafoi tarten,
bestela bertan egoten ginan
euna zabaldu arten. (bis)

LEITZA 1993-08-14

Bertsolariak: Mañukorta, S.Lizaso, Murua, Egaña eta M.Arozena. Herriko jaietan ohizko saioa. Jai batzordeak antolatua, Udalaren laguntzarekin. Zineman, eguerdiz, sarrera ordaindurik eta 300 bat entzuleren aurrean. Gaijartze eta aurkezle lanetan Iñaki Perurena aritu zen.

Murua

GAIA: Gaur hemen, Naparroako herri batean, Gipuzkoako hiru bertsolari zaudete. Zer pauso eman behar dira Naparroan, Gipuzkoako hainbat herritatik hiru bertsolari naparren eskaria izateko?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun

Bertsolaria ugari xamar
dala Gipuzko aldean,
ta noiz hasiko handik honuntza
bertsolarien galdean;
eskoletatik landare berri
ugari dator aidean,
urte gutxitan da aldakuntza
hartu dezuten bidean.

Oraindik atzo dala dirudi,
pasatua da denbora.
Manuel Lasarte fin-fina gendun,
zeinek hau ez du gogora?
Manolo hor dago, Estitxu eta
Silbeira badatoz gora;
aurki eskea iritsiko da
Gipuzkotik Nafarrora.

Bitan bakarrik gutxi deritzot
zabaldu Euskal Herrira:
Bizkai-Araban ere behar du
loratze horrek segira;
ta zu zalea lagundu holaxe,
ez egon geldi begira;
lehen ximurtuak berriro ere
loretzen hasiko dira.

GOIAZ 1993-08-21

Bertsolariak: J.Sarasua, Egaña, Murua, S.Lizaso eta X.Zeberio. Herriko jaietan ohizko saioa. Jai batzordeak Udalaren laguntzarekin antolatua. Herriko pilotalekuan, gauez, dohan eta 200 bat entzuleren aurrean. Gaijartze eta aurkezle lanetan Nikolas Zeberio aritu zen.

S.Lizaso

GAIA: Baserriko emakumeari.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Kaletarra naiz baina badaukat
baserriko informea:
etxeakoandrea izaten dala
beti fina ta xumea,
atseden gutxi eta gainera
ia urtero umea;
benetan diot, sufritu bat da
baserriko emakumea,
bera da ama, etxeakoandre,
langile ta neskamea. (bis)

Etxean jabe bada gaitzerdi,
sarri askotan maizterrak;
etxeakoandreak konpondu behar
seme-alaben okerrak,
eta sarritan ferira aldegin
etxeako senar alperrak;
holakoetan etxeakoandreak
erakutsi behar perrak.
Hamaika etxe bada bizirik
etxeakoandreaki eskerrak! (bis)

Bertsolariak: J.Lizaso, Lazkano, Gorrotxategi, J.Lopategi, Sorozabal eta Mañukorta. San Bartolometako jaietan, jai batzordeak Udalaren babespean antolatutako saioa. Plaza librean, gaez, sarrera dohan eta 1000 bat entzuleren aurrean. Gaijartze eta aurkezle laneran Joxe M^a Aranalde aritu zen. Antolakuntza aldetik zenbait arazo: zarata, eserlekurik ez, argiak gaizki...

Gorrotxategi

GAIA: "Gaztearen ametsa lagun bikaina eta urrez betetako kutxa omen da. Zure alabak lagun bikaina badu baina urrezko kutxarik ez, eta galdera hau egin dizu: Dirua nola egiten da?"

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan

Hau egoera! Hemen da lurra,
goian omen da zerua,
tarte horretan, zerbait lortu nahi
eta ez da segurua.
Alaba maite, une batean
jaso ezazu burua,
zure galderai erantzutea
baida nere helburua:
asko irabazi, gutxi gastatu,
hola egiten da dirua.(bis)

Baina diruan amets hutsean
ez zaitez inoiz erori,
ametsa ustel gertatu zaie
zoritxarrean askori;
diruak sortzen ditu munduan
makina bat kategori,
horrek sortzen du hemen fama ta
jartzen gaitu gori-gori.
Maitetasuna falta badezu
zertako da beste hori? (bis)

Gazte zera ta goza ezazu
mundu honeta aurrena;
lana aurkitu eta jornal bat
izango dezu hurrena;
etzazu pentsa dirua pila
ta konpontzen denik dena,
hain laburra da ezereza dan
gizakiaren azkena,
daukan pixkakin konforme dana
bera da aberatsena.(bis)

ARRASATE (Uribarri) 1993-8-24

Bertsolariak: S.Lizaso, Mañukorta, Egaña eta Mendizabal. Auzoko jaietan jai batzordeak antolatua Udalaren laguntzarekin. Auzoko plazan, gauzez eta dohaneko saioa 200 bat entzulerekin. Gaijartze eta aurkezle lanetan Nikolas Seguroiak jardun zuen.

S.Lizaso - Egaña - Mañukorta - Mendizabal

GAIA: Zuek aspaldi samar ezagutu zenuten elkar; zer iritzi edo zer irudipen izan zenuten elkar ezagutu zenutenean.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

S.Lizaso: Jainkomenditik jetxi zan eta
esan zuen zela artzai,
erromerian ikusi nuen
neskatxak ligatzeko zai.
"Tipo zuzena ez duk izango..."
nik esan nere buruai;
orduan hori pentsatzen nuen
eta oraindik ere bai. (bis)

Mañukorta: Hogeit bat urte ezautu nitun
hoi daukat gauza zigurra,
Amerikatik etorritzian
zapalduz Euskadin lurra;
nere albuan ikusitzen det
oso hiruko bigurra,
neregandikan ikasi dute
gaur dakiten apurra. (bis)

Egaña: Mutil rubio ta dotorea
gainera bette-bettea,
bertsotarako sumatu nion
arte ta borondatea.
Mikelengatik zer pentsatu nun
ez da zaila esatea:
neronen antza ere bazula,
zaharragoa izatea. (bis)

Mendizabal: Ni behin Zarautzen hurbildu nitzan
Egañaren ingurura,
lehenengo aldiz jua zan plazara
eta gainera kantura;
melenita ta txaketilakin
honek bazuen piura;
lehendabizikoan hartu nion

Migel Bose-ren itxura. (bis)

S.Lizaso: "Mañukorta naiz" esaten zuen
galdetu ta berehala,
eta gainera aguanta behar
petraltzen baitzen bestela;
ni saia arren ez nun sinisten
artzaia izango zela,
bera nolatan ibili ohi zan
ardi galdu bat bezela. (bis)

Mañukorta: Bi gazte hauek ezautu nitun
esku emanda gozo-gozo.
Txulo bezela bere denboran
badute hainbat arazo.
Bizar haundiko mutil ederra,
Azpeitiako Lizaso...
Handikan hona eman dituzte
hamaika mila frakaso. (bis)

Egaña: Nik Mañukorta ezagutu nun...
pasa da urte ugari,
Usurbil edo Aginaga zen
oraindik ezin nabari:
bekain bat zeukan gora saltoka
bestea, igual, erori;
pentsatu nuen Santimamiñen
biziko da tipo hori...(bis)

Mendizabal: Ta nik Lizaso ezagutu nun
orain hemeretzi urte,
Azpeitiako Matximentan zan
ta hartu genuen parte;
ondora etorri ta hitzegin zidan
builoso eta fuerte:
gau osoa pasa hizketan eta
ez nion entenditu bate. (bis)

BIDEGOIEN 1993-08-28

Bertsolariak: Telleria, Sasiain, Mendizabal, Lazkano, Murua eta M.Arozena. Jaietako saioa jai batzordeak antolaturik, Udalaren laguntzaz. Herriko pilotalekuan, gauez, sarrera dohan eta 150 bat entzuleren aurrean. Koldo Zelaiak burutu zituen gaijartze eta aurkezle lanak. Entzumena oso txarra izan zen eta bertsolariek ere elkarri entzun ezinda jardun zuten.

Mendizabal - M.Arozena

GAIA: Mikel , mutil elegante eta dotore jazten dena da; Manolo berriz, zelaian zehar pixa zabaltzen ari dena. Mikel pasatakoan egundoko bustia eman diozu.

Neurria: 8ko txikia

Doinua: Nere senarrarekin

Mendizabal: Nekazarin bat degu
ondoko laguna,
barrutia ximortzen
zerade jarduna;
mangerak aldeginda
nigana da juna.
Hauxen da kolonia
bota dizudana! (bis)

M.Arozena: Gauzak garbitutzea
hobe da agian;
ez da normala: hain txulo
zer zabiltz mendian?
Diskuidatuta zerbait
gaur gorputz guztian,
zuk zer egiten zendun
nere belardian. (bis)

Mendizabal: Belardi hontan nengon
lasaiki etzana,
eta erregadioa
didazu emana;
nik zer egiten nuen
zuk dezu esana:
prestatzen ari nintzan
gauerako plana. (bis)

M.Arozena: Zerbait gaizki egin det
ta hau da iluna;
laguna ere triste
zer pisu astuna!
Galdera bat berriro
da egin nahi nuna:
ea busti ote dan
azpiko laguna. (bis)

Mendizabal: Erantzun behar dizut
modu gogorretan,
galdetu baitidazu
trantze kaskarretan;
nere laguna dago
beldurturik bertan;
busti nahi luke baina
ez modu horretan. (bis)

M. Arozena: Arrazoitan zatoz zu
haserre antzera,
ez duzu pausorikan
egiten atzera.
Orain lagundutzeko
konforme bazera
gero joango gera
biok aldatzera. (bis)

Mendizabal: Jai arratsaldea da,
egin zazu kontu.
Ximaurretan hastea
nolatan pentsatu?
Gaurkoz egin dituzu,
aizu, bi pekatu:
zu ernegatu eta
ni fastidiatu. (bis)

M.Arozena: Fastidiatze hori
hain gauza normala,
pekatun erori naiz
gaurkoz berehala;
badakit bide txarrak
hartzen zabiltzala,
aski zendun ixtea
kotxeko kristala. (bis)

Mendizabal: Nere ustez zabilta
garai beranduan,
baserritar kaskarra
baitaukat onduan;
gauzak egin behar dira
behar dan moduan:
udaran siesta eta
ximaurra neguan. (bis)

M.Arozena: Gauzak inoiz ikasten
ahal dira kalia.
Honeri, berriz, nago
esan beharrian:
neguko lanak utzi
zuk orain pakian,
ximaurra ateratzen da
betetzen danian. (bis)

OIARTZUN (Gurutze auzoa) 93-08-29

Bertsolariak: Amuriza eta Murua. San Bartolome jaiak. Jai batzordeak antolatua Udalaren laguntzarekin. Auzoko enparantzan, eguerdiz, sarrera dohan eta 100 bat entzuleren aurrean.

Amuriza - Murua

GAIA: " Iñaki, barberoa zara, Xabier ilea moztera etorri zaizu baina belarri puska kendu diozu mozterakoan."

Neurria: Berezia.

Doinua: " Aizak hi mutil mainontzi "

Murua: Hona etortzeko astea
pasa nahi edo ustea,
ta esan zidan: "nahi dit bizar ta
ilez biluztea".
Nahi zun guapo uztea,
ala iletik jauztea...
Belarri haundiei normala zati
txiki bat moztea.(bis)

Amuriza: Neronen bizar zuriak
zeuden ondo ageriak,
baina halere belarri puska
orain moztu didak;
honelako aberiak
zeuzkak nere belarriak,
baina entzuteko bestearekin
nahikoa badiat.(bis)

Murua: Gainera ondorenean,
jarduna gero lanean;
ez didala ezere ordainduko ta
joan nahi azkenean;
nik esan diot legean:
"izkutatuta zeudean
"belarria're moztu diat nik
prezio berean". (bis)

Amuriza: Mila esker, gizon gaixoa!
Ni nauk oso inozoa...
belarri punta hola moztea
ez huken gozoa;
ez haiz oso mainosoa,
ezta ere kuriosoa...
mozten hasita moztu behar huen
belarri osoa.(bis)

Murua: Hara zer erantzun, sari!
Badu holako ugari.
Lanan erdiaz ez da konforme,
hala da nabari;
lanerako ez nauk nagi,
berriz'e naitekek ari,
eta osoa moztu nahi badek
berriz jarri hadi.(bis)

Amuriza: Hik eman didak aukera
konpontzen baldin bagera;
eta badakit zer egin, jaunak,
hontatik aurrera:
belarriaren aldera
tori milako papera!
Bihar goizean etorriko nauk
bizarra moztera.(bis)

DONOSTIA 1993-09-4

Bertsolariak: S.Lizaso, Larrañaga, Peñagarikano, Euzkitze, Lazkano eta Mendizabal. "Donostian Bertsotan" kanpainako saioa. Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak Donostiako Euskara Udal Patronatoaren laguntzarekin antolatua. Trinitate Enparantzan, gaez, sarrera dohan eta 500 bat entzuleren aurrean. Aurkezle eta gaijartze lanetan Joxepa Madariaga.

S.Lizaso - Larrañaga

GAIA: Sebastianen eskuak dotore eta txukunak dauden eta diren bitartean, Anjelenak zatarrak, traketsak eta kailotsuak dira. Nolako bizimodua daramate?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai arrebak hementxe nator

S.Lizaso: Gure eskuak begira hemen
aldez aurretik jardunak,
eta nereak beti bezela
txukunak eta legunak;
zikinak eta zartatu askokin
daduzka nere lagunak,
eskuak ez du zer nekaturik (bis)
burua nekatzen dunak.

Larrañaga: Alde batera gure Lizasok
arrazoi zuen, agian;
txikia ere ahal baldin bada
saiatu nahi du egian:
lana eginda laztuak ditut,
utzi nahi dute argian...
Nik atzaparrak kailoz beterik (bis)

ta Lizasok arpegian.

S.Lizaso: Zeure ustetan bertso horrekin
egin nahi zenduen grazi,
zu langilea ta ni alperra
zeuk hori adierazi;
zuk izerditan egunero ta
nik kosta gabe irabazi;
behar bezela bizi ezkerro (bis)
ondo bizitzen ikasi.

Larrañaga: Zure alderdi bat kontatuko det:
hain bertsolari mardula!
Begian bistan dagon gauza da
zergatikan egin burla?
Eskuak ere leunak dauzkazu,
hori ezin disimula;
hamabost urte badira, behintzat, (bis)
kolperik egin ez dula.

S.Lizaso: Hori serio bota du honek
ni nago arpegi alaiz,
inoiz lanean hasi nahi badet
oraindikan nago garaiz.
"Hik ez det, motel, kolperik jotzen"
hori entzuten det nik maiz,
holako batzuk beharrezkoak (bis)
ni hola biziko banaiz.

Larrañaga: Itxura antzean bizi zerala
denok gerade kontura,
ia egunero festarik-festa
hor baidijua kantura;
neretzat, berriz, kamiona ta
baserriko lotura,
hemen Lizaso bizi da bakarrik (bis)
bertsolaitzaren kontura.

ADUNA 1993-09-18

Bertsolariak: J.Agirre, Gorrotxategi, Egaña, Mendizabal eta Euzkitze. Gazte Asteko Jaiak zirela eta bertso saioa antolatu zen. Belkoain Gazte Elkarteak antolaturik Udalaren babesean. Pilotalekuan, gauetz, sarrera dohan eta 800 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Joxe Mari Aranalde aritu zen.

J. Agirre

GAIA: Lau seme-alaben aita... Lau seme-alabak ez ditu bakarrik eginak. Badu emazte bat Oiartzuarra. Ez, Aizarnarra, Maria Luisa izena duena. Ez dira beren emazteei kantatu zale bertsolariak, baina gaur kantatuko dio. Maria Luisa, bere seme-alaben amari.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

Zenbait gizonek esan izan du
ez ote dan andre onik,
baina behin ere ez det pentsatu
gauza hori hola danik;
ia hogeita hamar bat urte
batekin badamazkit nik,
eta ez pentsa oraindik ere
saltzeko dadukatanik.

Seme-alabak hazi ditugu
urtietan goazela,
da aitortu behar haiek'e nahiko
formalak badatozela;
andreak egin etxeko lanak
nik bertsuetan naizela,
andrerik gabe ni ezin bizi
gaur bizi naizen bezela.

Azkenerako aitortua det
Aizarnatik hartu nula,
neu urtietan piskat juana,
hura gazte ta mardula.
Aranalde honek, badakizute,
oiartzuarra esan dula,
nik pentsatu det keridaren bat
noizbait eduki dezula.

Orain arteko urteak doaz
nahiko era ondraduan,
beste mordo bat pasatu nahian
orain gabiltzan moduan,
ta Muruaren lehengo esana ere
nik hartua det goguan:
horrek ez daki nere akuilua
oraindik nola dagan.

DONEZTEBE 1993-09-19

Bertsolariak: Peñagarikano, E.Arozena, Egaña, Telletxea, Mendizabal eta S.Lizaso. IKA euskaltegiak antolatutako saioa. Herriko pilotalekuan, arratsalde zen saioa. Sarrera ordaindua. 300 entzule hurbildu zen. Antolatzaile eta babesle IKA Euskaltegia zen. Gaijartze eta aurkezle lanetan Patxi Larretxea.

**Peñagarikano - E.Arozena - Egaña - Telletxea -
Mendizabal - S.Lizaso.**

GAIA: Sei bertsolariak berri emaileak izanen dira. Amaia eta Estitxuk emango digute Nafarroan gertatzen denaren berri, Mikel eta Sebastianek Euskal Herriko berri eta Angel Mari eta Andonik munduan zehar gertatzen denaren berri.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Peñagarikano: Ezin ikusi ugari dago
bata eta besteakin;
gaur gorrotoa ta guda txarra
ezin daitezke ekidin;
hemendik urrun saiatzen dira
gauzatxo konpon dadin:
adiskidetzen hasiak daude
orain Arafat ta Rabin. (bis)

E.Arozena: Orain artean lurralde hontan
gauzak baizebiltzan oker,
era berean gure hizkuntzak
ukituz hainbeste bazter;
gaur egunean, nahiz ezin esan,
esan dezakegu laster:
"Nafarroa ere euskalduna da
euskaltegeri esker" (bis)

Egaña: Saiatuko naiz mundu zabala
zertan datzan erakusten,
Arafat eta Rabinen horrek
ez bainau hain lasai uzten;
egia da, bai, akordiora
hasi direla iristen,
baina Clintonek bedeinkatzen dun
ezertaz ez dut sinesten. (bis)

Telletxea: Denok dakigu lehen Nafarroan
egoera txarra zela,
baina orain ni ziur nago ta
esan behar det horrela:

hartuko degu Nafarroan guk
kultur arloko papela,
ta badakigu euskara eta
bertsoa hobetu direla. (bis)

Mendizabal: Sekuestro bat dala medio
ez dago giro apala,
lehengo astean burutua zen
manifestaldi zabala,
ta atzo Donostin demostratu zen
pentsatzen gendun bezala,
Euskal Herriko konponbidea
negoiazioa zala. (bis)

S.Lizaso: Intsumisoai eleiz torrean
ez zaio pakean utzi,
lau bost polizi igo ziren da
beren makilaz igurtzi;
esan liteke gizatasunan
arrastua dala hautsi:
lazo gehiegi daukagu modan
eta askatasun gutxi. (bis)

Peñagarikano: Aste betean zazpi pezeta
galdu dizkigu dolarrak,
epe motxeko agintea du
Fidel Castroren bizarrak,
Yugoslavian teilatu gabe
daude ume eta zaharrak,
oaindik tiroka jarraitzen dute
kroata ta serbiarrak. (bis)

E.Arozena: Bertsolaritza aipatu behar,
hemen gaudenez hainbeste:
Nafarroako bertsolaritzan
garapen onaren eske.
Baina gauza bat oker doala
zuek ez al dezute uste?
Gipuzkoako bertsolariak
inbaditzen baigaituzte... (bis)

Egaña: Mundu zabalak ekartzen digu
makina bat burukomin:
Kroazia dago lastimagarri
eta Somalia berdin.
Kasko Urdinen jokabidea
ez zait batere atsegin:
pake aitzakiz sartzen dira ta
gerra piztuta aldegin. (bis)

Telletxea: Denok dakigu istori hori
gaur nahiko tristea dela,
ta jakin degu lazo urdinak
honaino iritsi direla,

baina gaurkoan zuek ikusita
esan nezake horrela:
Nafar aldean lazorik gabe
jende asko bagaudela. (bis)

Mendizabal: Donosti aldeko zinemaldia
herenegun zen da hasi,
ta Oñatiko Eusko Ikaskuntzak
bere urte urrena berezi.
Kirolak ere aipamentxo bat
ez ote digu merezi?
Zeruan eta itsas gainean
San Pedro degu nagusi.

S.Lizaso: Hirurogeita hamabost urte
Eusko Ikaskuntzak berez,
eta Oñatin burutu zuten
festa haundi bat eginez.
Ardantza eta Alli han ziran
elkarri esku emanez.
Itxuraz soilik elkartzen dira,
bestela zergatikan ez? (bis)

Mendizabal

GAIA: Esaiguzu politiko batek zer pentsatu ohi duen, zer erran
ohi duen, eta zer egin ohi duen.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

Halabeharrez iritsia naiz
politikoen gradura,
eta sartu naiz aulki haundiak
ikusten diran lekura.
Ez dakit hola edo hala den
politikoen ohitura,
baina patrikak beteko ditut
nere botoen kontura.

Kontuak kontu eta hitz ugari
daramat egun osoa:
batean daukat mitina eta
bestean konpromisoa;
jende aurrera aurkeztu eta
hau da nere eraso:
"zuen laguntzaz konponduko det
herri honen arazoa."

Pentsamentutan agertu izan naiz

egoismoaren jabe,
gero hitzetan hor agertu naiz
gizon jator baten pare,
eta ekintzak heltzeko ere
momentuak orain daude:
nerea egin, nahi dana esan,
gelditu ezer egin gabe.

AZPEITIA 1993-09-25

Bertsolariak: J.Lizaso, J.Agirre, Lazkano, Azpillaga, Murua eta S.Lizaso. Herriko Lagun-Onak futbol taldearentzat dirua biltzeko antolatutako saioa. Landetako kiroldegian, gauez, sarrera ordaindua eta 500 bat entzule bildu ziren bertara. Gaijartze eta aurkezle lanetan Euzkitze bertsolaria aritu zen.

Murua

GAIA: Frantzian gertatua da duela hainbat hilabete: Sikopata batek, burutik jotako batek, irakasle bat eta bere gain zeuden guztiak gela batean gorde zituen sekuestraturik. Irakasleak ipuin bat kontatuz esplikatu zien, haurtxoei, gertatzen zena. Ze ipuin klase kontatu ote zien?

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

Gizon gaizto bat etxe batean
berhala sartu zan gauez,
zeuzkan arma haien lege bakarra
garbi azalduaz aurrez;
aita ta ama berak hartuta
eraman zitun indarrez,
seme-alabak etxean utziz
bakardadean beldurrez.

Hurrengo egunez egunkarian
lau albisteren tartean,
aita ta ama falta zaizkie
herriko etxe batean,
laister bildu zen jende multzoa
preso zeuzkaten atean,
esanaz: "inor ez da joango
hauek askatu artean."

Sentimentua jarri zen, beraz,
gizalegearen maizter;
gero ta jende gehiago bildu
kalez-kale, bazter-bazter;

eta libratu behar izan zuten
bikote jatorra laister;
gauzik zailena gainditu leike
elkartasunari esker.

ANDOAIN 1993-10-9

Bertsolariak: Murua, J.Lizaso, Sorozabal, A.Mendiluze, J.Agirre eta Euzkitze. Manuel Larramendi Kultur bazkunak antolatua, elkarteak ezagutzera emateko helburuarekin. Polikiroldegian, gauzez, sarrera ordaindua eta 200 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Irazu bertsolaria aritu zen.

Murua - Euzkitze

GAIA: Zuek biok zerate bi gorpu hilotzen izpirituak. Zu, Xabier, hemen Andoainen hil zuten Juvenal Villafañe guardia zibilarena, eta zu, Iñaki, kuartelera bizirik sartu eta hilda atera zen Gurutzerena. Izarretan edo hor nunbait topo egin dezue eta bata besteari hizketan hasi zerate.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere hegoa hegan dijoa

Murua: Gaztea nintzan etorkizuna
margotu nuen oparo,
ustekabeen bizitza honek
gau beltz batez jo "ordago!"
Kaixo, zu ere hemen zabilta,
iritsi zinan lehenago;
zure lagunak gehiegikeriz
hilda izarretan nago.

Euzkitze: Nere lagunak etzazu jarri
orain hiltzaile moduan.
Gure egoerak antz asko dauka
jakingo dezue segituan:
nik zuk bezela dena azkarregi
bukatu nuen munduan,
zu bezain gazte ez nintzan baina
nik ere bizi nahi nuan.

Murua: Etorri zinan kanpo herritik
eta saiatu ahalegin;
etorri ez bazina askozaz
hobe ginan gu Euskadin;
hala ta guzti, gertakizuna
zuzendu nahi nuke baldin

beste bizi bat Euskal Herrian
alperrik galdu ez dedin.

Euzkitze: Ai, neska gazte, nik ez dizut nahi
bate meriturik kendu,
baina gu mailaz oso ezberdin
gabiltzala ematen du;
nere aldeko ekintzarikan
hemen ez da nabarmendu,
zu bezelaxe hil naute baina
ni inork ez nau omendu.

Murua: Omen eskean ez zaitetz hasi
ez espero hainbat lora,
alper samarrik heldu zinatzen,
behar zenduke gogora.
Lurran gainean etsai ginanak
orain alkarren ondora,
elkar ulertzen saiatu ezik
beti hola izango da.

Euzkitze: Gorroto gabe hitz egin dezu
horixe dizut nabarmen,
baina lehenak min ematen du
hau geuk dakigu ondoen.
Lehen bizi ginen, gaur izpiritu,
biok aurrez aurre hemen;
elkar ulertzen ez degu jakin
berandu izan baino lehen.

Murua: Alperrik da ta elkarrizketa
orain zertarako eten?
Gaiztona ere konponbidez
ari da zerbait esaten.
Utzi iozue herri zahar honi
berak nahi duna izaten,
bihar-etzikoan euskaldunek
zoriona izan dezaten.

Euzkitze: Barkatu baina nik, neska, ez det
zure iritzi berdina,
ezin liteke justifikatu
zure lagunek egina;
garai baino lehen hil ginen eta
barruan det nahiko mina,
hala ere hori gutxi litzake
azkenak baldin bagina.

ONDARRU 1993-10-11

Bertsolariak: S.Lizaso, J.Lopategi, J.Enbeita eta Egaña. Aurrera Futbol Taldeak dirua biltzeko antolatutako saioa. Bide Onera zineman burutu zen saioa gauez, sarrera ordainduarekin eta 400 bat entzulerekin. Gaijartze eta aurkezle lanetan Joserra Garzia aritu zen.

J.Enbeita - S.Lizaso

GAIA: Aurki beteko dira hemezortzi urte Franco hil zenetik. Zuek garai hortan nobioak zineten: Enbeita andregaiia, eta Lizaso, senargaiia. Geroztik Sebastianek, senargaiak, hamabost urte darama kartzelan eta andregaiak beste hainbeste kanpoan zai. Gaur zaudete bisita horietako batean "vis a vis"

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

J.Enbeita: Ene senarra zoritxarrean
badugu zer sufritua:
herriarentzat meritu zena,
etsaiantzat delitua.
Franco hil zela entzuten dugu,
guk bihotza eritua;
haren gorputza hilgo zen baina
ez haren espiritua.

S.Lizaso: Ene maitea, behin behar eta,
nere aurrean hor zaude,
hainbat urtetan egin didazu
ez dakit zenbat mesede;
ni harritzen naiz, ni nola naizen
zure bihotzaren jabe.
Zenbat sufritzen ari zeraden
bate gozamenik gabe!

J.Enbeita: Ez al da inoiz aldendu behar
guregandik desgrazirik?
Honela jardun beharrak, maite,
ez dit ematen grazirik.
Franco hil zen ta oraindik ez da
zuretzat hautsi hesirik;
suge zaharra hil egin zen baina
semeak daude bizirik.

S.Lizaso: Zuk badakizu egoera hau
ez dudala merezia;
nerea ez da ederra baina
zurea ere berezia;

eskertzen dizut hainbat urtean
daukazun pazientzia:
zuregatikan izan ez balitz
galduko nuen bizia

J.Enbeita: Bion arteko bizia dago
lotura baten esklabo,
hasierako amets urdinak
goibeldu ziren zeharo;
nire partetik maitasunari
erantzun beharra nago:
kanpoan aske daukat gorputza,
bihotzez zurekin nago.

S.Lizaso: Maite nauzula sinesten dizut
zure bisitak lekuko;
nere azkena nola litzake,
maite, zu galdu orduko
garai bateko idealari
ez diet egiten uko.
Francok ez zuen lehen lortu eta
Felipek ez du lortuko!

BEASAIN 1993-10-15

Bertsolariak: S.Lizaso, Murua, Egaña, Peñagarikano, Maia eta Telleria. Bosniako gerratea dela eta, bertarako dirua biltzeko antolatutako jaialdia. Antolakuntzan, Erakunde publikoetako zenbait pertsona ibili ziren. Herriko polikiroldegian, gauez, sarrera ordaindua eta 800 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Laxaro Azkune aritu zen.

S.Lizaso - Murua

GAIA: Egin dezagun kontu zuek Bosniako bi bizilagun zeratela, etxepe berean jaio eta hazitakoak, eta gaur gerran elkarren aurka aritu eta zaurituta elkarren ondoan.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

S.Lizaso: Garai batean egin genion
elkarri hainbat mesede,
halako baten bakoitzak gendun
bere aldetikan alde;
zauritu eta elkarren gertu
berriro gu hemen gaude;
elkarren kontra jardun gerade
zergatikan jakin gabe.

Murua: Azkenerako hara alkarri
aurre egitea toka!
Egian jabe ginala uste ta
hasi genuen borroka.
Zauriturikan aurkitzen gera
biok alkarri mokoka.
Lagunak ginan, lagunak gera,
eta alkarri tiroka!

S.Lizaso: Batak bestea menderatzea
espero gendun indarrez,
baina borroka luzea doa
ta amaitzen ez da errez;
nik gauza hauxe pentsatutzen dut,
laguna, erdi negarrez:
orain hizketan konpontzen gera,
orain arte zergatik ez?

Murua: Arrazoi gabe ari ginan gu
biok alkar tirokatzen,
bakoitza, ustez, ari ginala
geure geroa jokatzeko.
"Alper-alperrik ibili gera"
ari nintzan ni pentsatzen,
konponbiderik ez degun arte
geu ez gera konturatzen.

S.Lizaso: orain artean tiroka jardun
ta orain elkarri musu,
berandu samar ohartu gera
horretxek ematen dit su;
tira nuen da ziur ez dakit
parean ote zinan zu.
Zauria neure erruz badezu,
arren, barkatu zaidazu!

Murua: Eskerrik asko aitortzearren;
barkatzen da, zaude lasai,
baina oraindik tiro bizian
ari dira hainbat anai;
oraindik hori bukatu dadin
ez ote da nahiko garai:
bizi mordo bat salba liteke,
etorkizuna ere bai.

S.Lizaso: Neroni ere konforme nago
lagun zure esanean,
sendatu arte jarrai dezagun
elkarren aldamenean;
ta sendatzean, ahal baldin bada,
eraso elkar-lanean;
pakean bila goazen batera
sendatzen geradenean.

Murua: Oharkabeen gu biok ginan
gorrotoaren ostatu;
bizitzarekin ez leike berriz
era horretan jostatu:
Hiltzeko bonbak eitea hainbat
milaka miloi kostatu.
Hil behar bada gosea hiltzen
zergatikan ez gastatu?

EA (Natxitua) 1993-10-31

Bertsolariak: J.Enbeita, Ajuria, J.Lopategi, Azpillaga, Egaña, S.Lizaso eta Murua. Juan Bermeosolo "Gaztelu" eta Joxe Mari Totorikaguena "Zesterue"ri omenaldia eskeini zitzaien egun osoz, jai batzordeak antolaturik. Zenbait ekitaldiren artean, arratsaldez bertso jaialdi bat burutu zen. Gaijartze eta aurkezpen lanak burutu zituen Jose Antonio Aranburu "Natxi" izan zen eta jende askok hartu zuen parte omenaldian.

J.Enbeita - AJURIA

GAIA: Gaurko jai eta inguru honen ganean.

Neurria: Kopla nagusia

Doinua: Omendu naian etorri gara

J.Enbeita: "Gaztelu" eta "Zesterue"ri
lehenengo nahi deutset kanta, (bis)
beste guztiok arren parkatu
gaur euren eguna da ta. (bis)

Ajuria: Egia esan bikote honek
badauka hainbat meritu: (bis)
ondratu dabe Euskal Herria;
altzatu dabe Natxitu. (bis)

J.Enbeita: Ta emazteak goratzen noa
euren gizonen antzean, (bis)
beti andra bat egoten baida
gizon haundien atzean. (bis)

Ajuria: Beti ez dogu izaten gero
zuk esan dozun antzean, (bis)
gizonak juergan tabernan eta
andrea berriz etxean. (bis)

J.Enbeita: Tabernarako bertsolaria
beti izan dogu fina, (bis)

ez daukazue meritu gitxi
Pantxike eta Rufina. (bis)

Ajuria: Hala ta ere sentimentuak
bihotz barnean gorderik, (bis)
golfo samarrak izanagatik
ez dauke gizon hoberik. (bis)

J.Enbeita: Gaur jaso dabe gure gizonak
bertsolariaren ondraz; (bis)
bertsotan eurak, baina seguru
puntutan hobeak andrak. (bis)

Ajuria: Beraz andrak pe egon ohi dira
bertsolaritzan sartuta, (bis)
horregatikan etorten ziran
primeran preparatuta. (bis)

J.Enbeita: Nekeak nahikoak izango ziran,
gaur, beraz, danok alaitu; (bis)
omena eta esker beroa
ez daitela hemen amaitu. (bis)

Ajuria: Bikote honek Natxitun badu
ondo merezita sona; (bis)
besarkada bat ta ondo gorde
herriaren eskerrona. (bis)

ORIO (Ortzaika) 1993-11-13

Bertsolariak: Egaña, Peñagarikano, Euzkitze eta P.Etxeberria.
San Martin jaietako saioa. Auzoko jai batzordeak antolatua
Udalaren laguntzarekin. Gauez, aide librean eta dohaneko saiora
100 bat pertsona hurbildu ziren. Gaijartze eta aurkezle lanetan
Jose Antonio Gesalaga "Zaldubi" aritu zen.

Egaña - Euzkitze

GAIA: Egaña, senarra eta Euzkitze, emaztea. Gaur iluntzean
senar- emazteak abiatu dira kotxean; eta andrea, Euzkitze,
konturatu da kotxean berea ez den oinetako bat dagoela...

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

Euzkitze: Hamaika juerga egiten dezu
bertsotara joatian,
seguru asko neskatzaren bat
ez zenduen apartian;

ta "treinta y siete" tailakua da
ikusi det bapatian.
Zein arraiokin ibili zinan
juan zan larunbatian? (bis)

Egaña: Susmo txarrikan ez zazu hartu;
ez zaite izan ergela;
bertso saio bat izandu nuen
ohitura dedan bezela.
"Treinta y siete"ko numerua du,
takoiak berriz horrela;
Olasorena izan liteke,
Sarasuana bestela. (bis)

Euzkitze: Martin Olasok holakoik ez du
ibili bere bizitzan,
ta Sarasua bezain pasotak
badakit nola dabiltzan;
nik pekatuan harrapau zaitut
ta gezurtia ez izan:
auto-estopian zapatera bat
hartu zendunik ez esan. (bis)

Egaña: Konturatu naiz ustekabeen
jauzi naizela lazuan,
era hontako hanka sartzerik
ez nuen bizi osuan.
Zapatatxo bat ikusi eta
ez dago era goxuan.
Baldin izterra topatu balu
zer esango ote zuan? (bis)

Euzkitze: Nik banekien beste batekin
dibortziatua zinela,
ta segur aski usteko zendun
denak tuntunak ginela.
Ezpain onduan marka gorriak,
belarronduan rimela;
baina ni ez nauzu engainatuko
lehengo andria bezela. (bis)

Egaña: Engainu eta holakoekin
hortxe ari zait jo-ta-su,
gure arteko amodioa
oraindik dago indartsu;
hurrengo astean berrogei urte
egiteko prest zaude zu.
Hau da lastima, erregaloa
deskubritu egin dezu! (bis)

Euzkitze: Broma txarren bat izango zala
uste nuen hasieran,
baina zu tranpan jauzi zerala
konturatu naiz primeran:

antisorgailu, pastillak ere
ahaztu zituen guanteran.
Su hartzerako esan zaidazu
zeinekin ibiltzen zeran! (bis)

Egaña: Azkenerako eskatu dizkit
datuak eta izena,
ondo dakizu edozein neskaz
enamoratzen naizena.
Nere kerida zein izango da?
Han urrutiko Elena,
hain zuzen ere, orain artean
zure lagunik onena. (bis)

Euzkitze: Sekula ez zait gustatu izan
neri zure martingala,
ondo nekien herririk herri
modu hortan zenbiltzala.
Beraz Elena hartua dezu
orain amante bezala,
ondo probatu nahi bazintuzke
betiko hartu zaitzala. (bis)

EIBAR 1993-11-26

Bertsolariak: Sorozabal, Irazu, E.Arozena, Lujanbio, Iturriaga eta I.Elortza. "...Eta Kitto!" elkarteak antolatua. Ohizko saio hau, San Andres pilotalekuan izan zen, gauez, sarrera ordaindua eta 800 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan Peñagarikano bertsolaria aritu zen. Bildutako entzulegoa gaztea zen eta urteko gazteen bertso saio bezala ezagutzen da jadanik.

Sorozabal - Irazu - E.Arozena - Lujanbio - Iturriaga - I.Elortza

GAIA: Eibar aipatzean, batzuek gauza onak entzuten dituzte, eta beste batzuek gauza txarrak. Jokin, Estitxu eta Unaik gauza onak; eta Irazu, Lujanbio eta Elortzak gauza txarrak.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Basatxoritxu moko luzia

Sorozabal: Eibarri buruz gauza ederrik
entzun det nik aspaldian,
eta gogoan banuen sartzeko
hau entzuten zan tokian;
herria ere omen dezute

oso modu egokian:
hemen fabrikak zentroan daude
eta etxeak mendian. (bis)

Irazu: Jendeangana joango dira
nere lehenengo geziak;
ez pentsa, Jokin, alderdi onak
hemen direnik guziak;
bildurra ere eman dit hemen
hainbat jende ikusiak,
zaletasuna ito behar du
entzule sobredosiak. (bis)

E.Arozena: Seguru nago baietz nik entzun
gaurko txalorik gehienak;
dirudienez, aditu ditut
egi pila nabarmenak;
hauek dirade entzundakoez
ein ditudan laburpenak:
esan didate Eibarrekoak
zaretela hoberenak. (bis)

Lujanbio: Eibarko bertso entzulegoaz
esan didate horrela:
badakitela bertsolaritzan
"bollito" asko daudela,
bertso onak ta bertso kaxkarrak
bereizten ez dakitela,
bertso entzutera etorri orde
ikustera datoztela. (bis)

Iturriaga: Ene Eibarren dagoen martxa!
Ene Eibarreko jaiak!
San Andresetan ta San Juanetan
aze gaupasa alaiak!
Baina aipatu beharko dira
beste entzundako gaiak:
merke-merkeak omen daudela
Marruekosera bidaiak. (bis)

I.Elortza: Arratsaldean Durango aldean
hitzegin eta hitzegin,
Eibar aldean behar niola
bertso saio bati ekin,
eta lagunek agurtu naute
abisu txiki batekin:
Kontuz ibili zaite, mesedez,
bizkaitar frustratuekin. (bis)

Sorozabal: Gure herrian esaten dute:
"Eibar herririk onena",
nahiz ta neroni aurrena izan

hau sinisten ez duena;
hemen leihoa "bentania" da,
hori gauza nabarmena,
hau izango da gure hizkuntzaren
euskalkirik berriena. (bis)

Irazu: Estetika ta irudimena
dauzkazute agortuta,
hori besterik ez da somatzen
atzera begiratuta;
kartelen batzuk hor pegatzeko
orain dituzute hauta,
baina iazko berdinak dira
eta gainez okertuta. (bis)

E.Arozena: Txarrak esaten ari direnek
egiten digute burla,
baina gauza da horiei kontra
egin diezaiogula;
urterik urte hartuko denez
ziurtasun bat mardula,
Eibarrek duen beste gauz on bat
bertso saio bat dugula. (bis)

Lujanbio: Iturriagak atera zuen
iaz saioan erdira,
eta aurten nik konprobatzeko
egin det pare bat jira.
Parranda asmoz nola etorri
ke zikinaren herrira?
Hemen girorik ez dagolako
Elgoibarra joaten dira.(bis)

Iturriaga: Mikroak ere kategorian,
prestatua dute dena;
zuen aurrean kunplitzea da
gaur guretzako aurrena;
nahiz ta bizkaitar fustrauak izan
hor ez da amaitzen dena:
Eibar omen da herri bakarra
txistu jotzen ez duena. (bis)

I.Elortza: Lehen esan legez lagunak hasi
zaizkit lehenago kontatuz,
hauen bizkaitar fustrazioa
beraiantzako gai hartuz;
duda txiki bat badaukat orain
pixkat pentsatuta buruz,
ez baididate ezer aipatu
futbol taldeari buruz. (bis)

AZPEITIA (Landeta) 1993-12-4

Bertsolariak: Murua, Loidisaletxe II, Peñagarikano, Egaña, Euzkitze eta Lujanbio. Auzoko jaietan, ohizko saioa. Jai batzordeak antolatu eta Udalaren laguntzarekin. Landetako kiroldegian, gauez, sarrera ordaindua eta 500 bat entzule. Gaijartze eta aurkezle lanetan S.Lizaso aritu zen.

Peñagarikano

GAIA: Jakin diat hirekin batera hainbat abentura izan duen Opel Cadett-a saltzera hoala. Egiok agurra...

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Hara ta hona, hona ta hara,
ez dakit zenbat buelta;
lanerako're garraiobide,
beti liburuz beteta.
Arrate ez bazan ipintzen nuen
Sorotan Bele kaseta;
ez Citroen da ez Vectra,
nerea beti Cadett-a.(bis)
Zu agurtzeak, sinets zaidazu,
guztiz beztu dit kopeta;
baina agurtu beharko zaitut
zaharkitua zaude ta. (bis)

Halabeharrez iritsi zaigu
agur esateko txanda,
baina gero're egingo det
Opel-aren propaganda.
Zenbat gozatu dedan barruan
neska hartuta joanda,
asientutan etzanda,
beste lekurik ez zan da. (bis)
Gero jolasten hor hasten ginan
seguroari emanda,
nere maitasun kabia ere
nere Opel-a izan da. (bis)

Iruditzen zait nere Opel-ak
onenak eman ditula,
zenbat atze-aurre eman ditudan
ezin dezaket kalkula.
Kolore txuri, bost, hiru , bi, sei,
eta X matrikula;
ez zera izan ahula,
ez dizut egingo burla. (bis)
Zu agurtzeak ni samintzen nau

ta ezin det disimula,
hain maite nuen nere Cadett-a
ez det ahaztuko sekula. (bis)

MARKINA 1993-12-12

Bertsolariak: J.Enbeita, Ibarra, Mañukorta, Peñagarikano, Egaña eta S.Lizaso.

Ohizko bertso saio honen bitartez, Santi Onaindia fraide karmeldarrari omenaldia eskaini zion Markinako herriak. Pilotalekuan burutu zen ekitaldia, sarrera ordaindua, arratsaldez eta 900 bat entzule hurbildu ziren bertara. Amaiur Taldea arduratu zen antolakuntza zereginenez, Udalaren laguntzarekin. Gaijartze eta aurkezle lanetan Jose Mari Lejardi "Gabixola" aritu zen. Bertso saioaz gainera beste zenbait ekintza ere burutu ziren saio amaieran.

J.Enbeita

GAIA: Hamabost urte ia igaro dituzte sei euskal presok kartzeletan. Hamabost urte bi-hiru metro karratutan. Zer egin duk hamabost urte hauetan hareek barruan direla? Akordatu al haiz eurekin?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Semaforoak gorri ta berde

Inorentzako ez da atsegin
horrelako zoritxarrik:
hamabost urte lau metroetan
libertadean itxarrik.
Hemen bertsoan aritzea da
azken batean alperrik...
Urte hauetan zer egin dudan
ez daukat horren izparrik;
ez da nahikoa han daudenetaz
akordatzea bakarrik.(bis)

Hamabost urte argi gabeko
samintasunez beteak,
tristura digu bihotzeratzen
soilik hori esateak;
ordurik ordu, egunik egun,
pasatzen dira urteak
noiz puskatuko kateak eta
noiz zabalduko ateak;

baina kanpotik hautsi behar dira
giltzapetako kateak. (bis)

Ez gaitu inor aspaldi biltzen
benetako zorionak...
Hainbat izardi, hainbeste odol,
Herriagatik emonak;
gaur ere soilik etorri dira
bere negarraren sonak;
bildu gaitezen, saia gaitezen,
berdin andre zein gizonak.
Ea noiz diran Euskadirentzat
preso gabeko Gabonak! (bis)

AZPEITIA 1993-12-18

Bertsolariak: J.Lizaso, X.Zeberio, Maia, Lazkano, Loidisaletxe II eta J.Agirre. Udaleko Kultura batzordeak antolaturik, urtero burutu ohi den saioa Soreazu zineman. Txapelketa Nagusiko finaleko bezpera zelako edo, oso entzule gutxi hurbildu zen saiora. Sarrera ordaindua izan zen eta gaijartze eta aurkezle lanak Jose Luis Gorrotxategi bertsolariak egin zituen.

J.Lizaso - X.Zeberio

GAIA: Zuek biok baserri bateko aita- semeak zerate: Joxe, aita; eta Zeberio, semea. Joxek erabaki bat hartu du: "Hola jarraitzerik ez zioke..." Eta ukuiluan obrak egin eta behi taldea ipini nahi dezu. Zeberio ukuiluan obra egitearekin konforme dago, baina ez behiak jartzekotan, beste negozioren bat jartzekotan.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

J.Lizaso: Seme maitea, aita zaharrakin
har zazu pazientzia;
pobre antxean igaro degu
oraindainoko bizia;
nolabait ere komeniko da
bizimodu bat sortzia,
horregatikan erabaki det
ganadu gehio jartzia. (bis)

X.Zeberio: O, aita zaharra, orain erabat
burutik nahastu al zea?
Egia esan, ez zait gustatzen
zuk hartu dezun martxea,
Karibe aldera banijoa ni

mulatak enkargatzea,
behiak baino hobe genduke
putiklubtxo bat jartzea. (bis)

J.Lizaso: Nahiago nuke gizon bezela
bazenduke hitzegingo,
kontu narratsak ikasi'tuzu
nola hemengo ta hango,
ta behi beltz hoik nunguak diran
pentsatu zazu lehenengo:
haiei esnea kenduta ez dezu
gazta haundirik egingo. (bis)

X.Zeberio: Hainbeste urte lanean pasa
dituzu alper-alperrik,
honez aurrera ez dadukazu
belarra ondu beharrik.
Karibetikan ekarriko det
bigantxa jende edarrik,
eta gainera ez dadukagu
zezena erosi beharrik. (bis)

J.Lizaso: Ez zat gustatzen nolakoa dan
semean hitzegitia,
ta baliteke aita zaharrak'e
noizbaiten hutsegitia.
Era horretan trata ber al da
gure basarri maitia?
Hobe zenduke agur eginda
Andaluzira joatia. (bis)

X.Zeberio: Baserri hontan orain artean
zuk izan dezu mandua.
Joxe Agirrei bialdu zaiozu
behi, iria ta mandua;
eta kalean juanda jar zazu
hor egundoko bandua,
ta bion arten egingo degu
negozio "redondua". (bis)

J.Lizaso: Atera dezun hizketaldia,
semea, ez da txukuna;
zure buruko amesa dago
orain pikotara juna;
ez dezu asko estimatutzen
zure aitak egin dizuna...
Gure etxean mandoa hau da
probetxurikan ez duna. (bis)

X.Zeberio: Negozio on bat jartzeko, aita,
orain daukagu aukera.
Eta soroan zertan ibili
aurrera eta atzera?
Ta esan dizut negozio hori

ni banijua jartzera,
ofizinista jarriko zaitut
ondo portatzen bazera. (bis)

ELGOIBAR 1993-12-30

Bertsolariak: Lujanbio, Meabe, S.Lizaso, Murua, Egaña eta Peñagarikano. Urtero burutu ohi den Urtezahar bezperako jaialdia. Herriko bertso eskolak antolatua Udalaren laguntzarekin. Polikiroldegian, gauez, sarrea ordaindua eta 600 bat entzule hurbildu ziren bertara. Gaijartzaile, bertso eskola izan zen eta aurkezle Izaskun Elizburu eta Jon Barandiaran aritu ziren.

Lujanbio - Meabe - S.Lizaso - Murua - Egaña - Peñagarikano

GAIA: Lujanbio eta German, zuek zarete bertsolari txapelketan aritu ez zareten bakarrak, beraz, zuei dagokizue txapelketaren balantzea egitea.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Meabe: Xebastianek nerbio danak
barruan zitun gordeta,
lasai joaten zan batekin eta
bestearekin hizketa,
baina akats bat ikusi nizun
ta jarri zazu arreta:
ez dituzula bate bereizten
saiuak ta txapelketa. (bis)

Lujanbio: Ez zazu pentsa nere juzkua
hain seriuu danikan;
uste aina ondo ez zinan ari,
hobe zera oraindikan
ta txapelketan egin zuena
Peñak egin zun lehendikan:
hirugarrenge gelditu baina
dena ahotsagatikan. (bis)

S.Lizaso: Ez da gezurra, buila batzuek
Donostin nituen egin;
hala ta guzti hirugarrenge
hori neretzat atsegin,
baina indarrak itxuraz neurtzen
nik ordun ez nuen jakin:
goizez bentaja eman nioten,
gero harrapatu ezin. (bis)

Meabe: Gure kixkurrak beti izan du
nolabaiteko dirdira:
Gernikan oso gora joan zen,
Eibarren jetxi erdira;
eta txapela ziur joango zen
aurtengo hontan Gabirira
jurauan zeuden zazpi lagunak
emakumeak balira. (bis)

Lujanbio: Kattalineri beatzi puntun,
sentimentu denak pizten;
neska gazteak baba daiola,
ahorik ez zuten ixten.
Garai batean erori nitzan,
orain ari zera jeixten;
erromantiko itxura hori
iada ez dizut sinisten. (bis)

Murua: Erromantiko edo eta ez,
zertan hasi berriketan?
Nahiko desastre ibili nintzan
Eibarko saio horretan,
eta Gernikan edota Bilbon
nahiko poliki benetan,
hurrengo urtean aterako naiz
Bizkaiako txapelketan. (bis)

Meabe: Egañak saiorik saio
egina dauka azala,
baina Donostin hartu zunean
txapel beltzaren itzala
begibitara negar malkoak
heldu ziran berehala...
Dagoen gizon gogorrena ere
ederki biguntzen dala! (bis)

Lujanbio: Faboritoan paperan ere
Andoni Egañan zetzan;
ez naiz irtengo bere bertso on
eta sakonen defentsan;
eta duda bat agertuko det
jendeak pentsatu dezan:
Egunkariko inozentada
inozentada ote zan? (bis)

Egaña: Egunkarian azaldu zan, bai,
bere argazki ta guzi.
Oholtza atzean tipo gazte bat
ez al zenuten ikusi?
Aizu, Lujanbio, dudak uxatu,
hobeto zenuke kasi,
eta hik German nere doinuak
pixkat hobeto ikasi! (bis)

Meabe: Peñak nolabait xarma izan du,
nik ez dizuet ukatzen;
baina jendea ez ote zaigu
hasi oraintxe nekatzen?
Anjel Mari, hik tipo hortatik
hasi behar dek apartatzen,
txapelketetan Peñakeriek
ez baitute puntuatzen. (bis)

Lujanbio: Txapeldun hoiek presio pixkat
nahiz eta beti daukaten,
gure Peña hau horren nerbioso
ere ez da jua aurten.
Zergatik ez zun irabazi nahi
jakin det halako baten,
bi urte luzez nazkatu baita
"txapelduna naiz" esaten. (bis)

Peñagarikano: Egia esan behar baldin bada
triste joan nintzen etxera;
oso urduri egon nintzela
eman dezu aditzera.
Lau urte barru ene, Lujanbio,
izango dezu aukera,
matraka latza zera zu baina
han urdurituko zera. (bis)

Peñagarikano: Batzuk aurrean geratu ziran
eta ni oso atzean.
Peñakeriak aipatu ditu,
min eman dit bihotzean
Aizazu, German, hau esan eta
ez zaitez jarri letxean:
pixkat gehiago ikasi arte
geratu zaitez etxean. (bis)

Lujanbio: Gure kritika egin degu ta
Peña etorri korrikan,
harrokeria azaldu digu
baina ia alperrikan,
eta bi bertso bota dizkigu
berak bakar-bakarrikan;
lasai, ez dezu badakizula
demostratu beharrikan. (bis)

Meabe: Peñagandikan entzun dugu guk
orain horrenbeste ale;
emantzailea izan naiz baina
baita ere ni hartzaile;
baina, Peña, zu nola zeraden
harrokeri orren zale,
harrokeria izaten baida
ezintasunan seinale. (bis)

SAIOEN AURKIBIDEA

DATA	HERRIA	BERTSOLARIAK	ORR.
1993-01- 2	Ordizia	E.Arozena	
1993-01- 5	Antzuola	J.Sarasua, J.Enbeita	
1993-01- 6	Hernani	Peñagarikano, Lazkano, Murua	
1993-01- 8	Oñati	Lazkano, Lujanbio	
1993-01-16	Goizueta	Telleria	
1993-01-17	Lekeitio	J.Sarasua	
1993-01-23	Oiartzun	J.Enbeita, J.Lopategi	
1993-01-24	Donostia	Larrañaga, Gorrotxategi	
1993-02- 1	Zestua	Peñagarikano, S.Lizaso, Egaña, J.Lopategi	
1993-03- 5	Elgeta	A.Sarasua, Egaña	
1993-03- 6	Hondarribia	Peñagarikano, E.Arozena	
1993-03-20	Berastegi	Iturriaga	
1993-03-21	Donostia	Maia	
1993-03-27	Ordizia	S.Lizaso, Iturriaga, Maia	
1993-03-28	Donostia	Amuriza, S.Lizaso, J.Lopategi	
1993-04- 2	Zaldibia	Egaña, Gorrotxategi	
1993-04- 4	Lazkao	J.Lopategi, Iraola, Garmendia, Sarriegi, Peñagarikano, Lazkano, X.Zeberio, Amuriza	
1993-04- 3	Zornotza	Egaña, Iturriaga	
1993-04-11	Sunbilla	Peñagarikano, S.Lizaso, Egaña, Murua, J.Sarasua, Euzkitze	
1993-04-16	Zumaia	Euzkitze, S.Lizaso	
1993-04-17	Azkoitia	J.Lizaso, Euzkitze	
1993-04-17	Segura	Egaña, Peñagarikano, Mendizabal	
1993-04-23	Lasarte	Amuriza, Egaña	
1993-04-24	Gabiria	U.Agirre, Irazu, Zelaia	
1993-05- 2	Andoain	S.Lizaso, Telleria	
1993-05- 7	Ibarra	Gorrotxategi, Sarriegi	
1993-05- 8	Elizondo	M.Arozena, Peñagarikano, J.Sarasua, Egaña	
1993-05-14	Elorrio	Maia	
1993-05-15	Bilbo	Respaldiza, I.Elortza, A.Lopategi	
1993-05-15	Azpeitia	Olaso, Maia, Euzkitze, Loidisaletxe II	
1993-05-16	Oiartzun	Peñagarikano, J. Sarasua, S.Lizaso, Murua, Egaña, J.Lopategi	
1993-05-22	Orio	S.Lizaso	
1993-05-22	Oñati	J.Agirre, Lazkano	
1993-06- 5	Zarautz	Olaso, Sorozabal	
1993-06-12	Elosua	Mendizabal	
1993-06-12	Errezil	Murua	
1993-06-13	Lekunberri	Mañukorta, M.Arozena	
1993-06-18	Olaberria	Irazu, Lujanbio, J.Sarasua, S.Lizaso	
1993-06-19	Lesaka	Elizagoien, Egaña	
1993-06-19	Tolosa	J.Agirre, Munduate	

1993-06-20	Errigoiti	Iturriaga
1993-06-25	Urrestilla	S.Lizaso, J.Sarasua, Mendizabal
1993-06-26	Usurbil	Mendizabal, Sorozabal
1993-06-27	Mungia	I.Elortza, J.Lopategi, Azpillaga
1993-07- 2	Asteasu	Telleria, Peñagarikano, Ibarra Lujanbio
1993-07- 3	Usurbil	Iturriaga
1993-07- 3	Beasain	Mendizabal, J.Sorozabal, Telleria
1993-07- 4	Aia	J.Sarasua
1993-07- 9	Abadiño	J.Sarasua, Iturriaga, I.Elortza
1993-07-9	Iruña	I.Elortza, Lazkano, E.Arozena, Narbaiza, Larrañaga
1993-07-10	Zumaia	J.Enbeita, Murua, Sorozabal
1993-07-15	Donostia	Telleria, J.Sorozabal
1993-07-17	Legazpia	Egaña, S.Lizaso
1993-07-25	Etxebarria	I.Elortza
1993-07-28	Iruña	Egaña, Maia
1993-07-31	Zarautz	Esoain, Sukia
1993-08- 1	Larraul	S.Lizaso, Telleria
1993-08- 1	Leitza	Murua
1993-08- 7	Gasteiz	J.Enbeita, J.Lopategi, Amuriza
1993-08-13	Baliarrain	X.Zeberio
1993-08-21	Goiaz	S.Lizaso
1993-08-21	Ibarra	Gorrotxategi
1993-08-24	Arrasate	S.Lizaso, Egaña, Mañukorta, Mendizabal
1993-08-28	Bidegoien	M. Arozena
1993-08-29	Oiartzun	Murua, Amuriza
1993-09- 4	Donostia	S.Lizaso, Larrañaga
1993-09-18	Aduna	J.Agirre
1993-09-19	Doneztebe	Peñagarikano, E.Arozena, Egaña, Telletxea, S.Lizaso, Mendizabal
1993-09-25	Azpeitia	Murua
1993-10- 9	Andoain	Murua, Euzkitze
1993-10-11	Ondarru	J.Enbeita, S.Lizaso
1993-10-15	Beasain	S.Lizaso, Murua
1993-10-31	Ea	J.Enbeita, Ajuria
1993-11-13	Orio	Egaña, Euzkitze
1993-11-26	Eibar	Sorozabal, Irazu, E.Arozena, Lujanbio, Iturriaga, I.Elortza
1993-12- 4	Azpeitia	Peñagarikano
1993-12-12	Markina	J. Enbeita
1993-12-18	Azpeitia	J.Lizaso, X.Zeberio
1993-12-30	Elgoibar	Lujanbio, Meabe, S. Lizaso, Murua, Egaña, Peñagarikano

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre J.	
Agirre U	
Ajuria
Amuriza
Arozena M.
Arozena E.
Azpillaga J.
Egaña
Elortza I.
Enbeita J.
Esoain
Euzkitze
Garmendia
Gorrotxategi
Ibarra
Iraola
Irazu
Iturriaga
Larrañaga A.
Lazkano
Lazkao-Txiki
Lizaso S.
Lizaso J.
LoidisaletxeII
Lopategi J.
Lopategi H.
Lujanbio
Maia
Mañukorta
Meabe
Mendizabal
Murua
Narbaiza
Olaso
Peñagarikano
Sarasua J.
Sarriegi A.
Sorozabal
Sukia
Telleria
Telletxea
Zeberio X.
Zelaia

Izen eta izengoitien deskribapena

Ondoren zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokiona da:

<u>Liburuan</u>	<u>Izen deiturak</u>	<u>Herria</u>
Agirre J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Agirre U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Ajuria	Irineo Ajuriagojeaskoa Enbeita	Gernika
Amuriza	Xabier Amuriza Zarraonaindia	Berriz
Arozena M.	Manolo Arozena Mitxelena	Lesaka
Arozena E.	Estitxu Arozena Albizu	Lesaka
Azpillaga J. ...	Jon Azpillaga Urrutia	Mutriku
Egaña	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza I.	Igor Elortza	Durango
Enbeita J.	Jon Enbeita Ealo	Gernika
Esoain	Ibai Esoain Arruti	Orio
Euzkitze	Xabier Perez Mendizabal	Azkoitia
Garmendia	Txomin Garmendia Galarza	Billabona
Gorrotxategi ...	Joxe Luis Gorrotxategi Zangitu	Azpeitia
Ibarra	Iratxe Ibarra Foruria	Markina
Iraola	Patxi Iraola Garmendia	Zaldibia
Irazu	Jesus M ^a Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga	Unai Iturriaga Zugaza-Artaza	Durango
Larrañaga A. ...	Angel Larrañaga Sodupe	Azkoitia
Lazkano	Imanol Lazkano Uranga	Azpeitia
Lazkao-Txiki ...	Joxe Miel Iztueta	Lazkao
Lizaso S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lizaso J.	Joxe Lizaso Mendizabal	Azpeitia
LoidisaletxeII .	Juan Joxe Eizmendi Garmendia	Errezil
Lopategi J.	Jon Lopategi Lauzirika	Muxika
Lopategi H.	Haritz Lopategi Urrutia	Muxika
Lujanbio	Maddalen Lujanbio	Hernani
Maia	Jon Maia Soria	Zumaia
Mañukorta	Gregorio Larrañaga Mandiola	Markina
Meabe	German Meabebasterretxea Arregi	Elgoibar
Mendizabal	Mikel Mendizabal Garmendia	Itsasondo
Murua	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Narbaiza	Juan M ^a Narbaiza Arana	Eibar
Olaso	Joxe Martin Rezabal Irazusta	Aia
Peñagarikano ...	Angel M ^a Peñagarikano Labaka	Anoeta
Sarasua J.	Jon Sarasua Maritxalar	Aretxabaleta
Sarriegi A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Sorozabal	Jokin Sorozabal Ansa	Andoain
Sukia	Xabier Sukia Etxeberria	Orio
Telleria	Millan Telleria Perurena	Albiztur
Telletxea	Amaia Telletxea Larretxea	Arantzaz
Zeberio X.	Xabier Zeberio Zubeldia	Itsasondo
Zelaia	Iñaki Zelaia Irazusta	Hernani